

JAKIN sorta

**SALBATORE
MITXELENA**

J. San Martín - J. Azurmendi - Txillardegi - L. Villasante -
J. M. Torrealday - N. Etxaniz - E. Agirretxe - M. Lekuona -
L. Schwob.

Editorial Franciscana Aránzazu

JAKIN SORTA

SALBATORE

MITXELENA

- U. San Martín - J. Larrañaga - J. Larrañaga - J. Larrañaga - J. Larrañaga - J. Larrañaga
- U. San Martín - J. Larrañaga - J. Larrañaga - J. Larrañaga - J. Larrañaga - J. Larrañaga

© Editorial Franciscana Aránzazu - Oñate. (Número de Registro 1692)

Depósito Legal: S.S. 399/70

Itxaropena Irar-lantegietan argitaratu emana - V. Pradera, 2 - Zarautz

AURKIBIDEA

(horrialdeak)

Salbatore Mitxelena: <i>Joan Mari Torrealday</i>	5
Bizitza eta idazlanak	9
Salbatore Mitxelena, poeta epikoa: <i>Juan San Martin</i>	11
Mitxelenaren poesiako tematika ezpalak: <i>Jose Azurmendi</i>	19
Saiakera eta hizkuntzen pizkundea: <i>Txillardegi</i>	55
«Ama-Semeak»: <i>Luis Villasante</i>	65
Mitxelenaren argitaratugabeko lanak: <i>Joan Mari Torrealday</i>	81
Salbatore saiolari: <i>Nemesio Etxaniz</i>	99
Mitxelenarekin pentsaketan: <i>Eugenio Agirretxe</i>	119
Oroipen batzuek: <i>Manuel Lekuona</i>	133
Oroitzen: <i>Lucien Schwob</i>	137

SALBATORE MITXELENA goi mailako idazlea dakarkigu, gaur, JAKIN-en horrietara.

Zorretan daude euskal letrak Salbatorerekin. Ordain eskasez bada ere, zor horixe garbitu nahi genuke liburuxka honekin.

Eta ez da zorra ordaintzeagatik bakarrik. Esango nuke ez dela batez ere horregatik. Euskal kulturaren beharkizunak begien bistan ditugu. Beharkizun horietako bati erantzun nahi lioke liburu honek. Izan ere, Mitxelena ezagutzearekin, haren eta haren aldiko bizi- eta idazgiroa ezagut ditzazkegu. Ezagutze hau betiere interesgarri da. Eta gaur, gure kultura-une honetan, areago, pre-miazkoa!

Premia hau ikusten saia gaitezen, laburki bederen.

Lehen, txokokeriaren arriskutik libratzeko IPAR EUSKAL HERRIA presentatu bagenuen, orain "aldikeriaren" arriskutik onez ateratzeko asmotan aurkezten dugu hau.

"Aldikeria" (nolabait deitu behar!), beste garaietako mogimenduak eta joerak, orduko ahaleginak, saiaketak, orduko indar nagusiak eta problematika ez ezagutzean sortzen da. Nork bere aldiari neurritz gaineko inportantzia ematea da aldikeriaren alderdi bat. Kasurako, gaur gure kulturak lehen ez zituen zenbait bereiztasun dituala eta, euskal kultura sortu berria dela pentsatzea litzake, ikusmodu batzuk oro-tankera aldatuko balute bezala.

Aldikeria, adoleszentismoaren semea da. Zer da adoleszentismoa kulturaren? Gure eta gainontzeko herri axien —ismoak ez ezagutzea batetik; eta bestetik, honek berekin loturik dakarren gaurko zenbait —ismo radikalizatzea. Uztarkide dira bi gaitzok.

Kulturagintzan, gizagintzan bezala gerta dakiguke. Mutiko-aroan ba dakizu egin ohi direla bilakuntzarik nagusienak, eta uste da ezagutzen hasi den mundu berri horixe dela bakarra. Edade horretan, bizitzarekiko jakintza eskasak eta aurkikundearen pozak —biak nabasturik— holako absolutizatze bat dakarte. Lehenbizikoz ikusten delako, dana berritatzat jotzen da, eta labetik-hararokoa dela pentsatzen. Halatsu kulturaren ere.

Arrisku hau, euskal kulturaren, gainditu egin behar dugu, jarraipenik-eza ez bait da sekula jakiutza alorrean gertatzen. Jarraipen baten harian mugituko da beti kultura.

Aintzinarik-ezaren arriskua salatu dugun bezalaxe, etorkizunik-ezaren beste arrisku hori ere salatu behar dugu. Kultura ez dago inoiz geldirik. Gelditzen bada, heriotza hurbil da. Inmobilismoa ere txaretsi dezagun, zahartzaroaren ezaugarri da eta.

Euskal kulturak, beraz, zahartzaroaren mundu ankilosatu eta adoleszentismoaren mundu txikia, biak indar berarekin arbutatu behar ditu. Gaztea eta heldua da gure kultura.

Bi jokabide hauen sendagailu gisa, monografiak behar genituzke ugariago. Alegia, gure kultura-indarren historia behar dugu jakin; eta, ahal dela, zehazki, oso zehazki. Jakintzari eta zintzotasunari leialki lot gakizkion arazo hauetan ere, zenbait jokabide gogor hartu eta hainbeste iritzi ustel zabaldu aurretik.

Liburu honetan, Mitxelena emandako urratsak jarraituz, gerra osteko giroa ezagut genezakeala pentsatzen dut. Mitxelena da, agian, gerra ondoko euskalminaren adierazlerik nabarmenena eta fidagarriena. Euskal Herriaren bidegurutze (eta guruzbide) horretantxe egingo da idazle. Obrarik gehienak urte horietan (1937-43 artean) eginak (edo hasiak) ditu. Hain zuzen, biziki senditu zuen krisi horrek giroa du bere idaz-bizitza guzira

Salbatore, herriaren galzoriak minberaturik bizi da. Min hau, obra bat idatzi behar duanean, handiagotu egiten zaio. "Gehiegi sufritzen dut idazterakoan", aitortuko dio adiskide bati. "AMA-

-SEMEAK Arantzazuko kondairan” eskribitzeko enkargua hartu zuanean, hain bere baitan bildu zen, bere lagunak erotuko ote zen beldur ziren. Holakoxea da Salvatore. Bere lanak ez dira jostagai-lutzat eginak, ez denbora pasa. Lan bakoitza, Salvatoreren pentsaeraren laburpen bat dela esango nuke.

Mitxelenaren lana, erdizka bakarrik irakur dezakezu. Eta makurrena, gaur ere oraindik ezin ditugula argitaratu. Pena da, obra horientantxe, nere ustez, azaltzen bait da gure benetako Salvatore.

Txikikeriak aparte, Mitxelenaren euskaltzaletasuna azpimarkatu behar dugu. Zenbait pondutan bere arazoketa (eta arrazoi-keta) arrotz egiten zaigula? Ez da harritzekoa. Hala behar du ere. Bakoitza da bakoitz, eta guk geure modura bizi behar dugu euskaltasun hori. Ez dira alferrik hainbeste gertakizun pasa. Mitxelenak ezaguturiko soziologia- eta politika-baldintzak ez dira gureak. Gizarte-giroa aldatzean, kultura-beharkizunak ere aldatu egiten dira; eta, orobat, idazleak, kondizionamendu horieri erantzuteko, bezurmamitzen duen problematika ere. Lege da.

Gizakumea, gurasoen seme bezainbat da aldiaren seme. Eta sinesturik nago, alegia, benetan bere garaiari konkretuki erantzuten dioten idazle horiek direla “galtzen” ateratzen diren aurrenekoak, sasi-jakintsuen aburuan, gizarte-baldintzak kanbiatzerakoan. Aldia-ekin batera desfasatzen bide dira.

Desfasatua ala ez, hor gelditzen da idazlearen lana. Eta hor dugu Salvatore, giro baten lekuko: herriaren abots eta interpretatzaile batetik, eta bestetik herri horren auspoemaile eta gidari. Mitxelenaren saio guzietan Euskal Herriaren egoera malapartatua eta berak herri horri sartu nahi dion hil-nahi-eza ikus ditzazkezu.

Salvatore ezagutzera konbidatzen zaitut. Ez zera damutuko. Irabazten aterako zera.

Eta amaitzeko, bi ohar.

Bateko. Adiskide batzuk bultzaturik, orain hiruzpalau urte, lanok inguratzea abiatu nintzen. Baina lau aizetara aldarrikatu

behar ez ditudan zenbait gorabehera direla medio, argitaratzea —oso gogoz kontra!— atzeratu egin behar izan nuen. Gaur arte. Liburuko lan guzietarik, San Martin-ena eta nereak izan ezik, gaitzetzekoak ordukoak dira. Zenbait pondutan, liburua epaitzerakoan, kontuan eduki beharko duzu urte-alde hau.

Eta besteko. JAKIN-ek batasun aldera jo nahi izan du beti. Luis Mitxelenaekin uste dugu, zera, alegia, "euskerak idatziaren batasuna ez da zenbait zororen apeta. Gure hizkuntzak, biziko baldin bada, beharrezkoa, premiazkoa du batasun hori. Ez da aski den adinbat, zaharrek esaten zuten bezala, baina aski ez izanik ere, premiazkoa da". Izan ere, "lege bat behar dugu, geure buruen gainetik dagoen legea: zerbait erabiltzekotan, ereduak behar dugu, haren ondotik ibiltzeko".

Lege hori, eredu hori, Salbatorek hain maite zuen Arantzazun erabaki zen. Bai, Arantzazun, besteak beste, erabakiak hartu ziren. Erabaki horien jarraitzaile zintzo gaituzu. Baina, oraingoan, abaleginak egin arren, bi artikulua dauden-daudenean utzi behar izan ditut. Ditezela gaurko aniztasun kaltegarriaren seinale.

JOAN MARI TORREALDAY

1970

Salbatore Mitxelena Lazkano

bitzitza

1919: urtarrilaren 18-an jaio. Zarautzen. Iñurritza auzoko Etxebeltz baserrian.

1943: abenduaren 28-an, apaiz Arantzazun.

1945-54: Donostian sermolaritzan.

1949: Euskaltzaindiko Urgazle.

1954-62: Montevideora dioa. Gero, Asuncionera eta Cuba-ra. Urte horietan Hego Ameriketara zehar ibiliko da, sermolaria bezala: Bolivia, Ecuador, Panamá, El Salvador, Costa Rica, eta Colombian.

1963: Suizara, emigranten kapelau.

1965: abenduaren 20-an, Suizako Chaux-de-Fonds-en hil.

idazlanak

ARGITARATUAK

1949: "ARANTZAZU, Euskal Sinismenaren Poema".

1951: "AMA SEMEAK Arantzazuko Kondairan".

1952 aldera: "Ogei Kanta Arantzazuko".

1956: "Arraun ta Amets".

1956: "Unamuno ta Abendats".

ARGITARATU GABEAK

1937-43: "Aberriak min dit".

1944: "Aboz abo".

1955: "Guruzbidea".

1940-55-58: "Erri bat Guruzbidean".

1960-62: "Confixus".

Salbatore Mitxelena, poeta epikoa

Juan San Martin

Krisis handi batetik erne nahirik eta erne ezinez sortutako poeta. Gerrate ondorenean eta euskal poesia sinbolistak bere oin-harriak ondo errotu baino lehen izan zuen etenaren mugan.

Aurretik, Lizardi, gazterik joana, erromantikuen eta moder-nisten ondoren bide berriak, oso berriak eta oso bereak goi mai-letaraino urratu zituena; eta Lauaxeta, gazteago joana, edo era-mana, sinbolismo eskola hain txit ongi landu zuena eta sozial poemak lehen aldiz entsaiatu zituena. Zeren, sozial eskolarik or-durarte, herri poesiakoak soilki eta oso gutti arkituko ditugu, batez ere sozial kontzientzia heldu batekin, baizik gertaerak beren on-dorioz emandako frutuak, frutu urriak. Baina Lauaxeta berarenak ere, behar bada, poesiaren eraberritze baten bultzadaz areago.

Giro hau arkitu zuen Salbatore Mitxelenak euskal poesiaren egoeran. Eta era berritzeeri ez zion gehiegirik begiratu. Hala ere, uste gabeen ere, bere gisara arituaz, berritzaile bat izan zen. Bere mendeko ekintza eta gertaeretan arkitu zituen gaiak, eta gaiok bere ideal bideetan abiatu. Ez dugu esan nahi bere aurretikoak haintzat hartu ez zituenik, baizik bere inguruko gertaera eta sen-tiereri loturik eta erantzuna eman nahirik jardun zala.

Gudu izigarri baten ondorea eta bere herriaren beheratzea nabari zituen aurrez-aurre eta bere herri honen geroa galzorian,

heriotzara bidean ikusten zuen eta egoera honek larri-mindu zuen bere gaztaroa, eta berdin bere poemagintza.

Moldez, zer molde hobeagorik, epika kutsuz bere herriaren gain-behera nabarmena agertzeko eta salatzeko, herri beraren literaturan chundaka urteetatik zetorkion iturburuzko emaitza baino? Beraz, bertsolaritzaren moldeetatik eratzten ditu bere poemak. Bera ere, euskaldun asko bezala, haurtzarotik bertsolari giroz inguratua zanez eta bat-bateko bertsoak egiteko ahalmena zuenez.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika berri bat sortzea. Inguruan arkitzen zuen egoera latzak minberatzen du eta gogoia jaso nahirik eta jaso ezinezko poesietan abiatzen da. Baina, hori bai, errealista, errealismu latz batek bihotz mindurik eta ideal bati begira. Ideal hau, Euskal Herria. Eta oinazezko kantak egin zituen.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, badute gorde-leku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea. Hontatik sortu ziren *Arantzazu euskal-poema* (1949) liburutik hasi eta *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* eta *20 Kanta Arantzazuko*, bere gogoaren gorde-leku, eta neurri batean, baitere geroagoko zenbait poema ere, ondorean adieraziko dugunez.

Lehen lan horiek, poetaren gogoan, dudarik gabe, barruragoko sentipenen adierazle dira, bere sufritzaren lagungarri, aterpe beharrak emandako ihes-bide bat behar bada. Lan handiak; ezin ukatu. Baina hala ere, bere bizitzaren zati bat. Ez betegarrizkoa, baizik aldezturiko adierazpen gisa, poema nagusi bati lotura osoa eman nahirik. Ez dut esango lan handiagoak, baizik jarraipena, ondorenean dator (behar bada, ez beretariko asko ondorenean idatziak, baizik ondorenean argitaratuak). Eta hauek ezagutzeari konturatzeari gara poetaren sentimen sakonez.

Arantzazu euskal-poema, poetaren barne-gogoan, erdizka, Arantzazuri eta Euskal-Herriari egina da, orduko giroz eta al-

dartez: "Euskal-Fedea, beratan, bidazti, aldapa-gora, nora datorren jakiteke". Eta kanta haiek:

*Zuk zer dezu, Arantzazu!,
ames-kabi, erti-leku?...
Euskalerrria oso-osorik
kantari dijoakizu.*

*Euskalerrri urrumatzu;
zorionekoa bai zu!
Negar egiten dakizulako
miña abesti biur zaizu!!*

Eta argiago oraindik poetak "Agur, Jesusen Ama..." ize-neko kapituluak dionez: "onako poema au ez dala iñorena, ez nerea. Baizik Erriarena!" Bere ideal nahigabeen aterpea Arantzazun finkatzen du. Kontu izan, fedea ematen ziola justizi esperantza eta hamasei urte zituen bezala geroz Arantzazun bertan igaro zuela gaztarorik gehiena. Geroago ere esan eragingo dio, *Guruz bidea*-n (1955): "Ona Arantzazu, euskal-Golgota!, euskal-Kalbario santu!" eta berdin *Bizi nai* poeman (1955, urte berean argitaratua) esaten duelarik: "Nornaik antzematen du, Arantzazuk eta Euskalerrriak bost mendeontan alkarrekin izan duten zorikidetzata ar-emanan".

Etsipenak larri-mindurik, kezkatu eta egonezinez nabarizan *Arantzazu euskal-poema*-ren une batzuetan, eta bere babesa eskaintzen zien, dirudien bezala, bere antzerako egoeran zeudeneri, batez ere herbesteratuei:

*Nora zoaz erromes
orron, Euskalerrri?
Ona Aizkorri'ko maldan
zure Andra Mari!*

Baina, ordurako, behar bada, bere erromes kezka somatzen zituen. Geroago, *Arraun ta Amets-en* (1955-ean argitaratua hau ere) bere oroitzen eta bere sentipenen artean azaltzen zaigun erromes minezko kantak salatuko diguten bezala; etsipenezko minduraz bere herriari begira:

*Gaberdi beltzean
izarño bat eza
bidazti galduak
tamalgarri leza...*

Eta antzerako aitorenak agertzen dizkigu liburu honetan. Herriaren salbaberako zerbait egin nahirik eta egin ezinik. Aldetzea erabaki zuen:

*Lur ezaguna utzirik
banoazu iraduz.
Zurekin bat eginda
nik atsedean, Yesus!*

Idealetan goian arkitu arren ere, ondo ohartu zen herriaren sentipenez, edo hobeto esan, bera eta herria, bietarako gogozko lokarri bat bazuen, bere poema, egituraz, errealismu erakoa zen eta orduko gazteak ulertu zion. Gazteria harek ere bere gogoa bete beharra zuen eta "Zuk zer dezu, Arantzazu!"-k, dei baten oihartzuna zirudien. Sentipenezko oihartzun hari jaramon eta segi egin zion orduko gazteriak. Egarrri bat ase nahirik edo. Ikusia dago, urte ilun haietan, aterpe edo babes gogo batek indartu zituela orduko gazteen kongregazio elkarteak, maiz, fedea bera asetzeko haina, ihes bidetzat. Hala zen, zerbait behar hura. Eta, ondorioz, laisterkako beheratzea izan du. Baina hau ez da hain zuzen Salbatoreri zegokion prolematika. Bere fedea sendoa zen, bere abertzaletasuna bezala. Berak, hortik, argi ikusten zuen bidea, are gehiago garai hartako gazterien joeraz. Eta bi gauza uztartu zituen poema gain.

Ezin ukazkoa da berak ekarren gure olerkaritza era-berritzea. Moldez, errealismo bidezko herrikoitasunera bihurtu zuen. Zeren, beragandik aparte, urteak igaroaz ere Lizardi eta Lauaxetaren imitzaile txarrak jarraituko zuten (banaka batzuek kenduz gero) liliak hegatzaz apaintzen, oinak lurrean eta burua ilargian. Ezer probetxuzkorik eman gabe, gehienak behintzat. Horregatik, eskuko behatzekin kontatzeko haina apartaturik, bera izan zen gazte berrientzat gure literaturaren erlojua martxan ipini zuenetako bat.

Bertsolari grina zuen, eta grina honek ematen zion poema epikarako dohain berezia. Latza da, gizaldi hartako egoera bezala. Goxotasunik urri da fedezko estalpe hortatik aparte. Maiz, euskal-sinismenaren poema nagusia balitz bezala idurituko zaigu. Euskaldunok munduaren laguntza gabe, desanparaturik, sinismena zala estalpe bakarra.

Unamuno zale zen, eta berak honegandik aukeratu zituen hitz batzuek aurkituko ditugu bere poemaren funtsaren giltzia balira bezala, *Guruz bidea*-ren hasieran hitzok bere egiten dituelarik: "Un *miserere* cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía" (*Del Sentimiento trágico de la vida*). Hitz hauetako iritzia, esango nuke, bere barne-gogoan iltzatua zuela S. Mitxelenak, eta gure guruz bidean kargarik astunenetakoa hartu zuen bere kontzientziaren gain eta larri-minez bizi izan zuen bere gaztaroa. Eta, herri orenen pekatu honek nahigabeturik urrundu zuen, esanaz:

*Ai urruti-miña!
gaitz senda-exiña,
baiñan ala ere
ondo atsegiña,
euskal Kondaira doa
aintziña ta aintziña.
Egonak pozik ez du!
Boga alegiña!*

Etsi ezinez, dana eman nahirik ibili zena.

Euskal poesiarentzako ez zan izan hura unerik egokiena, eta Salvatorek bazuen meriturik aski orduko egoeratik hain goi mailetara igotzeaz. Honekin ez dut esan nahi ordukoa eremu soila zenik, ez; ba ziren banaka bat, eta batez ere ba zan Frantzia aldetik altxa zan ipar haizea, gure alorrak freskatuaz arnasa berritzea ekarriko zuena. Bi poeta handi ziran gure literaturaren kondairan poemagintzaren berbiztzaile geldituko direnak: Mirande eta Iratzeder. Geroko gazte berriak, gudu ondoreneko gizaldikoak, horiek ereindako hazietatik eman dituzte beren frutuak.

Batez ere, *Eusko-gogoa*-n argitara zuen *Bizi nai* poema dugu gure artean egin danik epikarik gailenetako bat. Batera samar eman zituen lan haiek urte askoren frutuak ziren. Poema bizkorra eta eraginkorra. Baina lastima hemen behar bezala ezagutua ez izatea. Ez bait zen zabalkundea eratzeko biderik. Ez zan ahal. Eta herriak bere lozorroan iraun zuen. Gogo egarriak eleizan soilik aseztu eta materiak bere egarriak ahal zuenak ahal zuen erara. lanarekin, korrika, makinaren serbitsuko, ahal zen dirua guztia pila tzeko. Ez zen harritzekoa ondorengo gazteak beste era batean erantzutea.

Salvatorek, tunel batean sartuta bezala arkitu zuen bere bu-rua, eta bere, eta bere poesia epikoa, teknikaz eta formaz aski herrikoia izan arren, ilunpean gelditu zen; bere mensajerik ez zuen jaso ez orduko poeta gazteak eta are gutxiago herriak. Behar bada Arantzazun sortu zuen eskola, eta eskola hontako emaitzaren on- dorioak aski ezagunak ditugu. Eskola tipia baina gihartsua, oin- harri onetan finkatua. Bere lagun Alustiza, bere ikasle Gandiaga, eta honela, aldatuaz, berrituaz, mailaz maila kate fin bat, *Jakin*-en egileak edo eragileak eta Joxe Azurmendi poeta handiaren artera- inokoa. Salvatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zana, noski. Jakina, poetak ere, bere giroa arkitu zuen, euskaltzale giro sendoa bere inguruan, zorionez gainera euskal historia eta euskal

kultura ondo ezagutzen zuten lagunekin, eta ideolojia aldetik era askotakoak izanik gainera. Eta bere barnetikako suan ere honek esan eragin zion *Bizi nai* poeman: "Euskalerrri leenago, barruko edozein alderdi baiño". Gaur ere oraindik zer lezio ederra gure ikasbiderako.

Bere ingurua girotzen zutenen arteko izen asko eman genitezke, baina aspergarri ez egiteko eta batzuekin huts ez egiteko izenok isildu beharra ba dut ere, gutxi batzuek bederen eman beharra dut, horiek gabe ez dalako hain errez Salbatoreren ekintza konprenitzea, eta horien arteko ditugu Omaetxebarria, Agirretxe, Anasagasti, Villasante eta abar, Euskal Herriak gure mendean izan duen unerik larrienetan hain gartsuki lan egin zutenak. Horiek ba dute zer ikusirik Salbatoreren poemekin.

Ez dut hemen poema horien xehetasunetan sartzerik. Bakoi-tzak bere aldetik aurkitzea du hoberena, bere lanetan txastatuz. *Arantzazu euskalpoema*-n aintzinako mendeetatik gurera arte, erlijioz eta bakez batez ere, Euskal Herriari babes eskaintza bezala da; *Arraun eta Amets*, larri minezko egonezinak erromes girotua; eta *Bizi nai*, karlisten gerratetik hasi eta azkenengoraino. Poema orokor bat funtsean, gainerako zenbait poematxo atalka eman zituenean bezala. Berekin, poeta epikorik hoberenetakotzat geldituko da geroan, garaiko egoeraren kontrea gora behera, eta kontra honegatik bere dohainak posible ziran neurrira heldu ez ba ziran ere.

Unamuno taabendats (1958), bere azken lana, aurretikoekin lotura gabekoa itxuran, baina funtsean honek ere zer ikusi handia du, bere barne prolematikaren eboluzioa arkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz bertsoz idatzi zuen, bertso librez gehien, eta argitaratze orduan, zenbaiten eskariz, hitz-lauz jarri zuen. Zaitegin eskutik ezagutu nuen bertsozko hura, *Unamuno ta gu* izenez, eta unkgarriagoa iduritu zitzaidan. Gainera, bertso librez, gure artean lehenengoetako poema bat zen. Bere taxura *Unamuno taabendats*-en azken orrietan arkitu genezake.

Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzaigun, herbestetara erromes. Berak nahi ez zuen bohemian, bere lur epeletik urruti, arrotz lur hotzetan hezurrak utzi arte. Gure literatura ttipian bederen, izan dezala ohorezko maila, ongi merezia.

Juan San Martin

1970

MITXELENAREN POESIAKO TEMATIKA EZPALAK

Jose Azurmendik

I. SALBATORE, HERRI BATEN BOZA

Barka, orratio, Salvatore, hire pentsamentuari —edo pentsamentupeari, akaso— jarraitzeko nire ausardia. Hirea dalakotan neurea besterik ez dan bidea eramaten badiat ez haiz harrituegiko. Ez hi behintzat. Eginaren —nahiezaren— indarra ezaguna diagu aspaldion. Eta gure bizitzaren lege izan duk, inorenean bada, ezinaren gainetik pasa beharra. Gainera, ez diat sekula poesia kritiko naizen pretensiorik izan eta ez nikek gaur olako itxurarik artu nahi. Ez duk hau kritikarik izango.

Orain modan zebilkiguk Prometeu-ren mitoa, eta zibilizazio bat Prometeu-ren leherreginetan ari dela esaten diagu. Gure herria, berriz, noiztandik ari ote zaiguk harri karrion triste honetan? Eta ez mendi tontorrera. Noiztandik, dariola dakarren bizitzari eutsi nahita? Joanak joan, geroa behar diagu koberatu. Kanpotarren sutondoetara bero bila joateke, eta joateke ilinti arrotzetan argirik arrapatzera. Geure patuan segi eta salba. Geure su koxkorra puztu, bizkortu, indartu edo bertan kixkaldu. Nahi zuelako ez hil eta bai bizi, zeukagu gure herria harritzar honekin kargatua. Kargatua, eta halare ba goazek zeren azpian nekatzen ari geran antzeman ezinda, nunbait.

Hi izan haiz, halabear itsuari begietan begiratzuz, errebelatu haizen bat, gutxiegitako bat. “Wer rette vom Tode mich, von Sklaverei?”, Goethe-ren Prometeu-k bezala galdetu duen bat. Hik esan duk: aberriak min dit, eta miñak olerki. Esan duk: gaur negar dariogunak kanta dezagula bihar. Hik egin duk negar negarrez ari zan herriarekin eta hik kanta diok Lazaro-ren berpizkundera. Hik kantatu duk, apenas heuk sinistu ahal huan esperantzarekin:

Arkaitzak ausi, irauli, jarri...
berebiziko lanean.
E'tzan nekerik barkatu bear
askatasun-arbidean.

(*Arantzazu*, 69-70).

“Ez dut aztu nai, Goliat zangarra menderatzeko Dabid txikiari indarra eman zionaren itxaron-itza: *Beati qui lugent, quoniam ipsi consolabuntur.*”

Hire adiskide batek esan digunez, kantatzeak etzian nekerik hiretzat, asmamen zorrotzekoa hintzan, hitz eder errezekoa. Herri baten bertsolari gertatu haiz. Eta gure nahigabearen ego beltza luzatu ala luzatzen duk hire kantua ere, negarrak berekin dakarren esperantzarekin. Jeremias-ena tokatu zaik. Gerra zital galdu eta alferrikaldu haren ondoren mutu gelditu zan erriaren boza arturik, hik kantatu duk, Prometeu-ren nahigabea ta ezin arria abandonatu dugula. Eta hil egin haiz, beste edozein bezalaxe. Baina hi heu ere mutu geldituko hintzenerako “abesti-xorta auxe” utzi diguk.

Zergatik kantatzen huen ordea?

Mitxelenak, bere burua Byron-en hizlapur Konrad-ekin alde-ratzuz, gisa honetan idatzi zuen noizpait: alegia, arraun eta amets aiendutako mineritu baten gurari aparra uzten zuela, oroitzat, hilgo zenerako. Beraz, Mitxelenak, nahiz eta txalorik bilatzen ez (AtA,

129. Laburpen onekin adieraziko dut *Arraun eta Amets* liburua), etzuan ahaztua izaterik nahi. Bilatu ez, ahal diot? Hobe litzake, beharbada, txaloak nahi izatea etzuela nahi, esatea. Ze, *no quiero ni quiero quererlo* harek azpiko nahi izate bentzutu ezina akusatzen du. Txaloak, izan ere, ez dira gure arrokeriaren aparrak ateratzen dituen globo xoro huts. Bizi gerala esaten digun oiartzuna ere ba dira, eta idazlearentzat beharrezko dira noski... Salbatorek etzuen hil nahi. Eta horregatixe ere, beste zenbait horregatixeren artean, kantatu egin zuen. “Urrutiaren gandutan begiz galdu ezkerero, bizitzako itxastar onenik ez dugu zure esku ezer izango, abesti-xorta auxe baiño” (AtA, 97).

Beste hau ere ondo zekien Mitxelenak: euskal herria hiltzen bada, hil da Mitxelena. Egin du *non omnis moriar* harenak. Galdekizun gorria benetan idazle bokazio duenarentzat hauxe. Egia esateko, diferente agiri zaizkit niri Unamuno, Baroja eta beste asko, izu honen argira begiratu ezkerero... Baina Salbatorek bere hilnahieza sartu nahi izan dio bere Herriari. Ikus, bestela, Mitxelenaren obra osoa zear, bere persona unibersaltzeko ta era berean Herria personalizatzeko joera agiria. Mitxelenak horregatik bere geroko bizitza posibletu ezezik bizirik gorde ahal zezaketeneri ere bizitza sortzen (hots, ez poesiari bakarrik eman bizitza iraunkor bat), edo bizitzeko adore ematen, hilnahieza pizten, lanegin behar izan zuen.

Ereiten du laborariak garia, eta ba da munduan nork ogia jan. Baina euskaldun poetak ogia eta nork ogia jan erein behar ditu. Lurra landu eta eguzkia ekarri, euskaldun poetak obra eta irakurlea sortu bear ditu. Euskaldun poeta, beste iñor ez bezala, da gizon bat besteen heriotzak suizidatuko lukeana. Bere obraren eta irakulearen hilezkortasuna aseguratatu behar dituen, beraz. Mitxelenak berak gogoratzen zuen esaera honen beste aurpegia Aleixandre-ren hitzez baliatuz: “herriarentzat idazten ez dun idazlea suizida bat da”. Euskal Herrian batez ere.

Simonides-ek esan zezaieken grekoeri bizitza jolas gisan hartzeko, baina gisa berean kanta dezan euskaldunak ez dakit trajeria bat ala komeria tonto bat, zer egingo luken. Eta satiro gehiagorik ez du euskal poesiak behar. Tirso-ren kondenatuak bezalakoxe patua du euskaldun poetak: ez du salbaziorik, Enriko —erriko— ez badu salbatzen.

Euskeraz idazten duenak etorkizuna apostatzen, jokatzen du... Eta Salbatorek (zeinek, gero?) etzuen hil nahi. Etzion —heriotzaren ihesi— euskerari muzin egin, halare. Bere Termopila-ko postuan gelditu zan zintzo, hil edo aberria salba. Bere hilkortasuna kantatzen zuen Salbatorek herriaren hil zoria kantatzean, eta aitzitik, bere samin eta esperantzetan herri bat ari zaigu bertsolari. Hau ez da sekula ahaztu behar, nire ustez, Mitxelena —ezpata bezalako ezpain!— irakurtzekoan. Ezta ere poesia idaztekoan, geure narrua Marsya-k bezala galduko ez badugu.

Euskal kantan zer diodan
oraindik galdetzen didan?
(AtA, 99).

Eta berak, egoki asko:

Naikoa dun yakitea
oñazean dunaia anai.

Oinaze zalako kantatzen zuen. Zeren oinaze? Oi, Mitxelena-ren izatea bera oinaze izan dela, maitasun (“Amor es triste”, zion Aleixandre-k, eta Salbatorek, koplaz zaharra beretuz: Amodiorik eztuenak eztu mifirik biotzean. Eeva Liisa Manner poetisa suomitarak oraindik: ba du nekerik aski maitasunaren oinazeak eritua denak... Heriotza bera baino gogorrago Mitxelenak amodioa,

ordea!) (1), egonezin, antsia, urruti min zala Mitxelenaren izatea, nork ez du igarri? Eta mindun arima bakoitzari bere penak kantatzea gustatzen zaiona ba zekien Martin Fierro-k ere. Eta Salbatorek:

Zein ederra dan
olerkaritza
biotzak min duanean!
(AtA, 101).

Mitxelenak Jaungoikoa eta nor-izatearen barne zorua (gauza biok bat ez ba dira behintzat) jotzen zituen kantuaren estasian (AtA, 101, 129, 208), antsiaren moskorra xehatzen duen pake nekatuan, "in un'inmensa tacita armonia", Tosatti-k esango zukeanez.

Maite zuelako, urruti minak tiratzen zuelako, ase ezinak etetzen zuelako, libertade irrikatzen zuelako, zer nahi zuen ez zekielako... Mitxelenak poeta zalako kantatu du. Poeta zalako. Kantatu, beste erremediorik ez zuelako, irudimenaren jolaserako (AtA, 89) baino bihotzaren eragitezago, noski. Ezpal ezpalekoak zituen kantuok, bere haundian bai kaxkarrean, bere esperantza erauzi ezinean bere romantizismo beraxka motelean bezalaxe. Ede-rraan ala itsusian.

(1) "Errarik gabea, biotz onekoa zearo, maitasunari, lagunarteari ta adiskidetasunari emana" zala esan digu ezagutu zuen batek (A. Iturria, JAKIN, 21). — Mitxelena-ren poesian "neskatxak", femeninoak zein parte duen aztertzen ez gera geldituko, inork egin nahi baleza interesgarri izango litzakean arren. Ikus AtA, 93, 97, 113, 187 etab. Andre Maria bera nolako perspektiban agiri duen. Ez dakit norainoko zuzentasunez, baina García Lorca-k Góngora-z esandakoa datorkit puntu honetan burura: "... Y su sentimiento amoroso hacia la mujer, que tenía que callar por razón de su hábito sacerdotal, le hace estilizar su galantería y erotismo hasta una cumbre inviolable". Nor ez Faust-ez gomuta? "Das Ewig-Weibliche / Zieht uns hinan". — Ez ahal du inork errespeto faltatzat artuko.

Eta azkenik (ez dut pentsatzen zergatiko denak azaldu behar ditugunik!), bide bat aurkitzen zion poesigintzan Salvatorek urrutu minari.

Kantuz noa itxas-zear urruntzen, urruntzen.

(AtA, 93).

Arraun eta oial gauzazko sortzen zizkien ameseri bertsoekin. Itsasoan libre, zearo libre eta ardurarik gabe, zortearen eskuetan abandonaturik, ezezagun absolutuaren bila biderik batere gabe joateko zoroan:

Iñork gura ba'leza bizi gezalean,
sar dedilla nerekin amets-batelean.

Gizon haundia galdu du Euskalerrriak, zion A. Iturria-k. Eta denboraren lekuko bakarra ere, erantsiko nioke nik. Gerra aurreta osteko erasoak itsutu zuen herri baten lekuko (Solferino-ko itsu!). Batez, ere hori, lekuko. Kondairako beharbada bihurgune ilunenean euskaldunek bere joana, egoera, etorkizuna, herri izana ikusteko izan duten ikusmoldearen agerpenik eta agertzailerik seguraski nabarmenena, sakonena, benetakoena. Bere haundian eta kaxkarrean —berriro diot, ez baita poeta denporatik kanpora begiratu behar—, okerrean eta zuzenean. Ala artxo batek frutuaren —Espirituaren, dio Nietzsche-k— eldua ukatzen ote du? Herri baten samina, esperantza, desesperazioa, maitasuna, gorrotoa, arrazakeria (ere!), fedea... Herri bat ari zaigu Mitxelenaren poesian. Ez osoa, noski, baina poeta bat ez da sekula soziologo bat izan eta eskubide osoa du —obligazio ez badu behintzat— berak nahi-tako aldeak hautatzeko, eta haieri zintzo irauteko.

Filosofiaren arazo izango da osotasuna osoki biribiltzea. Ez dut esaten poesiak osotasunaz arduratu behar ez duenik. Poesiak, halare, Günter Eichek ederki esan duenez, plano baten "puntu

trigonometrikoak” seinalatzen ditu, osotasunean gida gintzeketen argiak piztu.

Lekuko zintzo izatea eskatzen zaio poetari. Eta Salvatore denpora baten eta jendarte baten boza izan da, bere ingurukoen artean —niretzako— beste inor hainbeste ta seguraski gehiago. Poeta ez da gabeko ontza. Ontaz propagandistak ere konturatu dira —baina poeta batzuek ez— eta gainuntzekoz poesiari mesede haundirik egin ez dion Goebbels-ek berak argi ikusten zuen herriarekin “artueman organikoak” eten dituen poetak sustrai biziekarlea galdu duena. Orratio, Hitler-ek berak esaten zuen poesiak Aldi-espirituaren (Zeitgeist) agerpen izan behar duela-ta! (Hala-bainan, “errealismo” edo Sozialismus omen dalako ez dakit zerk berak nahi duen bezala ulertzen du denborako izatetasun hau, eta bere uster a bihurtu nahi lituzke denak derrigor). Bakarreko negar batek ez ote du bakarreko lapurreta batek hainbeste herri-tasunarekin zerikusi?

Mitxelenaren bertso artean,
(Sono un poeta
un grido unanime)
Ungaretti.

Guruzbidean, Confixus-en, Arantzazu-n ETA poesia partikularrenetan, herri oso bat doa Salvatore-rekin bateginda.

Ez zaigu erabat joan Salvatore. Bere hitza gudan gelditu da, hitza ta esperantza (Mitxelenak Andre Maria-gan josita zekarrena), ilunak mindutako bizi nahia:

Salba zaiguzu bizia!
(Bizi Nai).

Baina batez ere gelditu zaigu Mitxelenaren herria eta Mitxelenaren lana. Haren obra segitzeko legea. Joan da Mitxelena, eta

gure begiek haren irudia betikotasuneko atea aurrera galdu dutenean gure esperantzan Reinhold Schneider-ek Alemania zanpatuaren gainean kantaturiko hitzok pizten dira:

Ondasun guzti haietatik garbiak gelditu dira bakarrik:
Irudi santua eta poetaren azkeneko hitza.
(Die Letzten Tage, 1946).

II. GAI ATALAK

Bego esandakoa tematikaren begiratu orokortzat, zatika banatu aurretik.

Mitxelena-ren obrari tematikaren aldetik lotzen zaiona ez da mundu oso zabalarekin aurkitzen. Nik —apropos— neurri laburragoetara ertsiko dut oraindik.

Ezin esan diteke Salvatore sinbolista izan genuenik, eta harelare aixa antzematen dute irakurleek nola dagon Mitxelenak utzi digun poesia sinboloarekin batategina. Ba zekien berak ere haxe. Sorburu asko izan zitezkean jokabide honek, personaren aldetik nahiz euskeraren aldetik begiratu. Bata, esate baterako, berak aitortu zidan noizpait: alegia, esan nahi izan zuena eta nahi izandako eran agertzerik oso gutxi gutxitan edo inoiz ez ahal izan zuelako.

Homero-ren indarra Homero-rena ez baino Akile-rena bada, Mitxelenaren poesia euskal herriarena dala esango genuke. Euskal Herriaren agonian egin zan Salvatore gizon eta poeta. Herriaren agonia eta amaren heriotza ez zebiltzaizkion, noski, urruti, guk herriaren bizi nahia eta Mitxelenaren urrun mina biurritu trake-tsegirik gabe elkartuko genituzkean gisan. Eta oraindik barrenago jo nahi bada, errez nabarmentzen da Mitxelenaren baitan herriaren bizi nahia eta Salvatoreren Jainkoaganatzeko irrikia estu kakuak nola dauden, bategin nahastuak ere inoiz. Beraz, hau izango litzake

Mitxelena-ren tematika sakon begiratzeko bide egokiena (sinbolo zirkuloen zurubia barreneragotzen segitu), nesketsuena ta behar-bada sujetiboena ere ez balitz. Eta, nik uste, horrela igarri ahal izango litzake prosaismo ta romantizismo askoren azpian bestelakoxe giarra dagola ezkutu, makina bat aldiz. Izan ere, Salbatorek ez baitu beti ez etorri ez estilo ta ez teknika (eta ez “duende”, Lorca-rekin esateko) zoragarririk. Zenbait unetan pobre gelditzen da, kaxkal. Baina ez hala dirudien guztietan, nik uste.

Guztiarekin ere nik bide errezago bati elduko diot. Eta tematikaren puntu nagusitxoena apartatuko ditut, hau, pixka bat, disekatzea-edo bada ere. (Beste aldetik, poeta baten munduan ez da tematika lehenengo puntua, nire iritzian, eta agian ezta bigarrena ere...).

Mundua ilundi

Zeini ez diote Mitxelenaren bertso askok Savonarola bururatu? “Ordena bateratzera bortxatu nauen arrazoï lehenengoa ta bortitzena, munduaren mixeria eta gizonen zipoizkeria izan da...”, idazten zion Savonarola gazteak etxetik ihes egitekoan aitari. Gogora zagon honen atzetik, esate baterako, Mitxelenaren “Prantziskotar 16 urtekin” (AtA, 105-107), bat besterik ez aipatzeko. Eta *Arantzazu* poema osoa, nahiago bada.

Mundua illundi ei da, negar, gezur,
Zutaz landara aro omen da maltzur...

Bazterretsi ludiko poz ta lizun
itxaroz geroaren ekarkizun...
Mundu zoroa alperrik oska dabil.

Eta jentil-aro gaixoa, galduta ilunpetan! Mitxelenak beltz

agurtu zuen mundua. Mari Gaizto-ren erreginatzapeco erreinu negargarrizat jo zuen, inundik ere. Bai, eta halare (edo horregatixe? Fichte-k uste dut esaten zuela —Reden an die deutsche Nation— zerau: “gure aberria kaxkarra da, horregatixe maite dugu”) irakurmenaren begiak apropos itsutu ez dituenari, halare, ez zaio duda izpirik gelditzen Mitxelenak munduari zion maitasunaz...

Mundua gurutze,

(Gurutza bizkarrean zure erromes
maldan gora noazu, nekez, niñez)
(AtA, 107)

eta guruzbide euskal kondaira:

Guruzpide yo genun
euskal edestia.

(Cfr. *Euskal Saminaren guruzbidea, Confixus*, etab.)

Bai, gizona bera ere —gainuntzekoan Mitxelenaren poesian apenas agiri dan bakardadeko gizona, indibidua— bai triste pintatu:

Ezin ulertu: zeru eder orren pean
nola gizona onen gaizto ditekean...
(AtA, 119).

Eta izarrak, gezur sinets eragille sorgin horiek, maite zituen Salbatorek, ez dutelako gizonak ohi omen duten bezala gezurrik esaten...

Eta, errematerako, gizonaren hil beharra, samintsu ta pozgarri batera, askatasun eta galera, ondamendi eta sari.

Emengoa eginda
mara-mara gu ere
bagoaztek.
(AtA, 125).

Jainkoak biguntzen zion nolabaitxo mundu hau, eramangarri eta maitagarri ere bihurtzen (AtA, 118).

Urrun mina

Ez litzake erreza izango eskuetatik jaregin berria dugun puntuarekiko ikuspegi ilun hau Mitxelenak hain ederki kanta duen urrun minaren atze ala aurre, eragile ala eragin dan garbitzea. Nundik Salvatoreren urrun mina? Jas, izanak sustraiak omen dauzkan jaiotzaurreko izar argigabeen. Urrun minak ez du nundikorik, edo gizonarena bera du, eta hura bezalaxe misterioaren lanbropean egiten zaigu. Salvatorek berak aitortu zigun “berezko” zuela, urrun mina, “ondamenaren lainotan dagon beko munduari” (Ogei Kanta, 35) ihes egiteko grina. Mundu honetan behar ordea. Kateiatuta zurdetatik (ohi, zenbait Absalon munduan!) Salvatorek arima, katez kateiatuta. Poesia, amesa, Ameriketa... ez ziren noski urrun mina asetzeko, tentatze hutserako baino. “In alledem aber doch nur das eine Gefühl: kein Ausweg”, esango zuen Kafkak (Ein Bericht für eine Akademie).

“Aspalditik lei nuen ura, azkenera ta bearrago yotzen nuen ura, egun gutxi barru iritxiko diat...; baniyoak Ameriketara”, idazten zuen 1954-an. Eta oraindik haren hitzetatik bilduz: “orratx nolako aspalditik dakardan nirezko urrutimiña” (AtA, 85 eta 89).

Nora, zertara bainan? (...“ardi txuriak, zoazte gora ta gora?”). Zergatik ote zuen Salvatorek urruna ames ta izarrekin solasa atsegin? (AtA, 185).

(Zuk ez baituzu, lurtarrok lez, iñor saltzen).
(AtA, 116).

Zer signifikaetzen du urrun minak Mitxelenaren poesian?
Salbatorek urruna Jainkoaren atari zuela esan liteke:

Arraun ta amets doana
e'tzagu utzi galtzen.
Ta sar dedilla, txango-
mugara eltzean,
Oskarri dagoneko
atseden kaiean!

(AtA, 176)

Urruna absolutua da. Urrunak lor-ezinaren zirikatua zion, askatasuna, ibiltzearen esirik eza, zori hoberen baten atzetikan joatea, Eder gosearen atsedena, ezezagunaren erakarmena, nora ezaren zorabioa... Zer dakit nik. Danetik aurkitu liteke Mitxelenaren poesietan urruntasunaz. Idealaren, amesaren errainu —izen, apika— da urruntasuna.

Ideala esan dut, amesa esan dut. Alfertik genuke zeren ames zuen galdetzea. Mitxelenaren amesa ames baitzan, ez plan. "Al yakin norgere kutiziak eta ase-eziñak, zer nai duten, nolakoxeak diran, noruntz diyoazen!". Edo ta beste hau: "Nora? Zeren billa? Al daki mariñelak berak!" Kixote-ren ilobira, esango zukean Salbatorek maite zuen norbaitek.

Mitxelena umezurtza, ordea, Andra Mariagana itzultzen da noraez honetan. Andra Maria-gan ikusten zuen (nola berarentzat ala euskal herriarentzat) itxaropide bakar. Cfr. *Bizi Nai*-aren itzaurrea.

Noiz ikusiko noiz, Andre Mari!
zure betarte emea?

(Arantzazu, 19).

Urrun min honek mantenatu du denpora guztietako lirika. Gaurkoa ere bai, alajainetan. Gaurkoa ere *ez daukagunaren* atzetik ari zaigu: justizia sozial, pake, nahiz askatasun. Baina gauza asko

eta bestetik, zer esanik ez, frantziskotar ezikera ta Arantzazuren eragina.

Arantzazu nere, amets-mendi,
nere goi-min ase-eziñaren Alberni,
lur ta ortzi tarteko poz-uztargi...
Arantzazu nere, zeru zati.

(AtA, 196).

Horra zita hori, bat hartzekotan itsu-itsuan lehenengo gerta zaidana. Arantzazuk Mitxelenarentzat mundu bat eta zeru bat adierazten zituen. Mitxelenak, lehendik berez ez bazan behintzat, euskal herri osoaren sinbolo ta irudi bihurtu zuen aizkorriarte hau. Euskal herriaren ta Arantzazuren goibeheak, izan ere, paretasun harrigarria agertzen dute, batak bestea egiten ari balira bezalaxe. Paralelismo au ez da Mitxelenaren poesian aurkimendu txikia izan eta langai ederrak eskeini zizkion. Bai Mitxelenaren lumak iturri hartatik ur gozo galanki apotxatu ere. Haren obra osoa lekuko.

Gure Euskalherri eta
gure Arantzazu:
zori berak beinbeti
ziñuzten uztartu.
(Bizi Nai).

Arantzazu - Andra Mari: Mitxelenaren *spes nostra*. Bizi osoa zear erre zuen Salvatore goi minak. Idealista zan, gure Euskal Herri triste honek oraindik erruz sortzen dituen (materialista huts generala dio guretar zenbaitek!) idealisten kastakoa. Herri erori eta ahuldu batekin erortzen jakin zuena. Beharbada ez jaikitzen, kontraesango zait. Posible ote zan gero altxatzerik? Ordua ote zan? Posible ote zan Andra Mariagan eta mirari batengan (guk egiteko mirari) itxarotea besterik?

(Begira dago, gertatuko ote
Jesus-en “jeiki” itz ori.....)
(Bizi Nai).

Itxaropen hau madarikatu nahiko da... Lore madarikatu hau
ez bagenu, Mirande! Zer gu ta gureak ez bagenu esperantzarik!

Oh, questi morti...
Che urlì almeno qualcuno nel silenzio,
in questo cerchio bianco di sepolti.
(Salvatore Quasimodo)

Negar klase asko daude, kokodriloaren eta Jainkoaren ne-
garraren arte luzean. Negar klase asko euskal poesian. Herri baten
negarra Mitxelenarenean.

Andra Mariagan ikusten zuen Salvatorek mundu xixare ho-
nen eta Euskal Herri laurkituaren osasun. “Itxaropen bakarra
Andra Mariagan dakuskiot” (*Bizi Nai*, itzaurrea). Eta *Bizi Nai*-en
bertan oraindik: “Erdalkeriaren laiñoak itotzen dauka Erria. Ito
bearretik igeska, urtero ta euskal seme geiago igotzen dira Alo-
ña-ko Zaindარიengana”.

Herriarentzat ezezik, bere buruarentzat ere, Mitxelena persona
(umezurtz eta bakardade), Mitxelena poeta eta gizonarentzat ere
Andra Maria-gan zekusan salbazio. Andra Maria-gana itzultzen da
Salvatore bere bizitza eta poesia barna.

(Noizbehinka bertso pattal... edo pixka bat harrigarri egiten
direneta behintzat:

Yesu bezin seme ta ume
altzo ortan nai dut nik ere
edan ta edan bular ortatik...
(AtA, 154).

Nire gustorako!...).

Zer dira hok, halare, hainbeste milaka bertso jatorren aldean? Lotsa eman beharko lidake halako txikerkeriarik aipatze hutsak, irakurlearen barkamenaz ziur ez banengo, eta “biguntxokeriaz” mintzatzekoan Mitxelenak berak aurrea ez balit hartu (AtA, 88).

Ezin Mitxelenaren beste alderdi bat aipatu gabe utzi, atal hau ixterakoan: Mitxelena katekista. Hola esango dugu, nolabait esan behar-eta. Izan ere, ez ditugu ahaztekoak bere Gabon-kantak eta. Zoragarriak, oso osoak era batean. Sedar Senghor-ek hainbeste otsegiten duena konplitzeko (“Lirika musika da... Batera hitza ta doinua... Poesiak berriz ere bere jatorrizko izaerara itzuli behar du, kantatua ta dantzatua zaneke garaira itzuli”), Mitxelena ongi saiatu zan —eta gutxitako goitasun umilez-herrikoi, airoso, errez, Gabon kantetan. Salvatorek ba zekien “txikian handi” agertzen.

“Ba zekin —dio A. Iturriak— erriarengana jotzen eta errikoia izaten”.

EUSKAL HERRIA

Hau... ez dakit gai bat ote dan ala ez. Aurrekoak bezala, gai baino gai-erroago dela aitortu beharko nuke, gauzak bere benetako mugetara ertsi beharko banitu. Bego dagonean, halare.

Eta, dagola dagonean, hona hemen beste gai bat, Mitxelenaren persona ta obraren ia zabal batekoa. “Izatez naiz ekitez Euskalerrriari oro eskeini diogunontzat...” esan zezakean gezurrik gabe Salvatore-k (AtA, 90). Eta *Bizi Nai*-ren atarian “maitasun geiegia-
ren lilluraz” eta “atsekabe aundiegiaren itxumenaz” diardukigu.

Ez zion aukera handirik eskeini tokatu zitzaion denporak, egin zuenaz bestetarako. Arrazoi guzti guztiz ikusi ta erakutsi bait zuen (inork ikasi nahi izan balu!) literaturaren euskaltasunari eusteko premia ta bidea. Eta Salvatorek herri bat salbatu nahi zuen bere indar guztiekin. Politika bat edo besterekin konprometitu

gabe, noski, baina arazo batekin sakon konprometiturik. Poetari dagokionez. Ez ahal zuen esaten Unamuno-k “hágase el milagro, y hágalo el diablo”? Eta poetek, agian, museri baino kandela gehiago zor dizkie deabrueri.

Norbaitek: “Erdaldunari edozertan azala zaio gogoko: euskaldunari, ordea, barne-muiña. Geroztik, erdalduna exal-zale duzu; euskalduna, berriz, mami-zale”. Salbatorek, aitzitik, ez zuen alferrekotzat ematen euskaldunari ere zintasunera deiar dar egitea: “Gagozkion zintasunari. Zintasuna euskalzalean. Zintasuna ertigintzan ere... —Ori egungo mandamentu bakarra. Itxura, itxura. Ez dago itxura bezelako irabazpiderik...” Zintasuna eskatzen dio Salbatorek euskal literaturari, herri baten bizitzari eutsiko bazaio.

Eutsi, zeri eutsi? Zer da herri baten bizitza?... Ezeri eustekotan, ezagutu egin behar dira ezer hori ta horren egoera. Ezagutu, jaunak! Eta Salbatorek ezagutua herri bat hil zorian izan zan. Hortan saiatu zuen bere burua: hil zoria egiazkoa, bene benetakoa eta ez poesiagai ta ez sentimentalismo, zela agerrerazten. “Besteak beste, niri Isaia-rena eskatzen zidan barruak: gurutzera eramán duten orren eriotza aldarrika. Eta Yeremia-rena: intziri-mintziri illeta yo, pesimistegi naizela dasatenei entzungor” (*Bizi Nai*, itzaurrea).

Ez negar egiteko gusto txepelez, alajainetan. “Milla bider lasaiago biziko giñan; ez giñan ain aguro gaztezartuko; erriz erri gabiltzala euskeraren atzerapenak aztertzean, ez genun naigabea naigabearen gain pillatuko, baldin, biotzari beingoan tiro bat emanda, euskaltzaletasun ori utzi izan ba'gendu, zenbaitzuk, euskaltzale izenekoan artean bertan ere, egin duten bezela”. “Mitxelena minagotzen zuena, halare: “Ta gero, oietxek etorriko zaizkizu esanaz pesimistegi zerala!... Orratio, zenbait “pesimismok” momentu askotan zer ta zenbait balio duen jakin nahi ez dutenek ez dute sekula gure hil-zoria bere gaurko hortatik erremediatuko. Bapo gaude beltza beltz ikustea pesimismo bada.

Noraiño oa,
sagarñoa,
Zugaitzetik yaulkita
maldan-bera iraulka?

Eta begiak gogortzeko bertso bete beteok:

Yunak yun.
Yadanik ez aien zai egon.
Illak il...
auskalo noiz nola eta non.
Galduak galdu.

Ondamendiko harri artea bezain hautsi, sentimenak hautsi. Hitzak beren balio eta eginkizun sustraienetako harrizkora bihurtuta. Hitzak hautsita. Herri hautsiaren hitza. Gutxi irakurri dut nik holakorik. Zergatik jakin gabe, euskal poesia zaharren artean jartzen naute bertsuok. Lelo, Milia Lasturko, Bereterretxe ta Andoze-ko ibarra, ganboarrak...

Oi lur, oi lur, lur gurea
Ama lur...

Eta Solferino-ko itsua, agerkariko jeinu-itzal irudiz ebokatua:

“Bethiko gaua, gau lazgarria,
begietara zait jausi”.

Gerrateaz:

Zoritxarreko gerratea, bai,
gaitz danen iturburua.

Galtzen doa herri bat. Herri baten zer? Mitxelena ez da soziologo, poeta da: herria doa inularrean itzaltzen (baina poetaren intuizioak filologia eta filosofiazko azterketak eskatzen ditu, sikiologiako ta etnologiakoak orobat, mingarri bazaigu ere).

Adio,
Euskalerrriak dario.

Antzina galtzen dugu eta harekin oraina:

Aintziña!
—gure iñular sorgiña,
iraun-arazi eziña...—
bazuaz
zure printzak itzalduez.

Gaurko gazteok, edo hobeki esan, oraindik zahartu ez garenok (oso moda galestia bait da gaur gazte izatea!), nekez senti dezakegu lehenagoko hainbatek goratu duten Euskal Herria. Uler-tu ere, apenas ulertzen dugu eta gutxiago Euskal Herri hori Euskal Herri bakartzat onartu. Honek ez dauka zergatik sesio bide izan. Norberaren ohinekin ibili ohi da bakoitza, eta besteren bu-ruko minek ezin gurea mindu. Nor bakoitzak bere sentimena, esperentziak suspertua. Eta guk, bakan ezagutu eta sekula bizi ez dugun Euskal Herri bukolikoa (maliziarik gabe esanda) nekez konpreni genezake. *Euskaldunak* poema, esate baterako, geure zo-ritxarrerako izango da, baina egia aitortuko badugu beharko dugu esan —bere goitasunak deman jartzekekasi Txina bezain urruti egiten zaigula askori. Gehienoi, nik uste (2). Nire denboran, eta

(2) *Faust*-en bigarren zatia ulertzen ez delakoak ez du Orixe nire ustean asko justifikatzen. Gauza baten ulerkaitzak iturburu asko izan ditezke: esaera poetikoarena, pentsamentuaren sakonarena, lexiko bi-urriegiarena, gramatika zearo txarrarena, etab. Ezin denak batean har genitzake. / Gaiñera jeneroak (barka hitza) ere berexten ziran lehenago literaturan, orain galdu ez badira behinepein. Goethe-ren poesian edo-zeinek aitortuko du haren pentsamentuaren sakona, eta honi egokitu-riko sinboloen gaitza. *Faust*-i gagozkiola, metafisikoa da haren mamia, eta barnearen ilunak iluntzen du batez ere *Faust II*. Goethe-k berak adierazten zuenez *Faust*-poesia beti geldituko da “als ein Ganzes immer inkommensurabel”. Emil Staiger gaurko Goethe-ezpezialistak dioenez *Faust* da “ein Wunder- und Fabelbuch voll Tiefsinn und weltumfassender Phantasie”. Ez da hau *Euskaldunak*-en prolema. *Faust* drama eta *Euskaldunak* poema ez dago ezertan alderatzerik, mamiak eta formak poesian elkarbatuak eta determinatuak joan behar dutela onar-zen bada behintzat.

ez nuen nik denpora hura egin, oso diferenteak ezagutu nituen bai Gerri-ederrak, bai Ele-ederrak... Ez dut sekula ari-talka bat ikusi (eroso dena baino gehiago ditugun arren), ez inauteria bat (Rhein-ekoak ez bada), ez eultze... edo, nola esaten da? (Barka bezate broma merke bat dela pentsatu dutenek, baina ez hiztegi ez ezer nago desterru honetan. Eta lan honetarako memorioaz eta fitxeroaz baliatu behar izan dut beste ezertaz baino gehiago. Laguntasun ez beti leialak. Bego ohar hau lan osoarekiko), ez dut halako ezkon-pestarik ez herri jairik ezagutu, ez apaizik hain begirune sakratuz defenditurik, ez irule bat, ez balankaririk gure jaietan. Eta kanpokoak utzita, zerbait esan diteke barruaz batez ere, noski, gizonen karakteroaz etab. Ilusio huts derizkiot Virgilio edo Mirerio-rekin alderatzeari. Ala ez ote du noizak ezer kontatzen poesian?

Ni ba dakit ondo Orixe-k ez zeukala zergatik nik —edo guk— ezaguturiko Euskal Herria kantaturik. Libre zan nahi zuena egiteko. Baina “gure erria osorik poema ortan duzu” entzuten badut (eta ez zuen Orixe-k idatzi hori), derrigor harrituko gera. Eta galdekizun asko pizten zaizkit poesiaren aldetik ere.

Mitxelenarengana urbildu nahi nuke inguru luze honekin. Antzekoa bait dugu Salbatorerekin ere kakoa. Gogoan dut nola haren Euskal Herria nahiko arrotz egiten zitzaigun ikasle lagun sail bati behintzat.

Aritz, pago nahiz lizarren ordeztu “piñu arrotzak” (zerraldotarako omen, ez katedraletarako) jan dituela gure mendiak irakurtzen dugunean, ez dugu pentsatu behar ekonomia, ezta estetika ere (ez diot poetika) buru begietan ditugula, sinbolotzat hartu baizik, eta kontestu horretan Mixelenaren irteera askok (orobat Orixe-rekin) ez dute parregarri izpirik gehiago. Galtzen ari geran aintzina galera serioa da. Ez dira beharbada sinbolo aproposenak horietxek izango, gure sensibildadea esnarazteko (eta gure denborari dagozkionean) baina gizona bere garaiari zor zaio, eta bereari

Mitxelena. Olentzaro, pelotari txurien Abe Maiko, mendi gurutze, buruxa beltz nahiz gonantx gorrixkoen galerak Mitxelenari damaioten larria gu ere larrimintzekoa da, sinbolotzat ongi pentsatzen ditugunean. Asarrerik asarre, eta gezurrik gezur, herria ari gera galtzen.

Gure erritasunaren
ezaugarri oro:
agur sekulako.

Beste horiek eraskinak dira (poetarentzat), sustraiarekin batera hiltzera doazenak:

Iltzera doan abenda baten
zotiñak dituzu denak,

esango genuke, Mitxelenaren bertsuok lekuz aldatzea zilegi bazeaigu.

Eta horra euskera bera, ibarretatik uxatua:

Uxo zuria, errazu,
nondik ibilli zera zu?
Kaleetako portu-ateak
izotzak itxi dizkitzu?
Beak utzita, baserritara
deitu bear izan dezu?

Mendietan —zerutik bertanago hiltzeko... beste sinbolo bat— ostatu bila. Baina heriotza infernua da.

Sinboloa eta izana, agerpena ta barnea berexten ez dituen poetak halare galdurik aurkitzen du bere burua. Argazki bat egin du, ez erretratorik; kopiatu, ez sortu. Ez du mundua puntu batean biltzen, alegia, bakoitzean. Sinboloa ez da gehiago mundu barnerako bide, mundu koxkor itxi gelditzen da. Mitxelenak (eta "ipurtargi" ez direnak...) sinboloa ta errealidadea nahastu bazi-

tuzten, kritikoaren labanak ebagi beharko du hortan. Nik neuk, kritiko izan gabe, makina bat ebagi ditekeala (euskal poesia guztian) esango nuke.

Nahiz sinbolo bidez nahiz zuzen zuzen kanta digu Salbatorek Euskal Herriaren heriobidea. Eta itxaropen zuen pizkundean (“naufrago batek ezin laguntza / larrigo eska zeikean”), Arantzazu-ko Andra Maria-gan itxaropen:

Erri oso bat, lainoari iges,
bizi nai orrek bultzata,
non tinka aingura, lurmen dagerren
Arantzazu-ra igota,
salba lezaken Zaindariaren
oñetan dago a...rren...ga,
bere etorkizun deseginkorra
Aretxen esku jarrita.

(Bizi Nai).

Zeatz zer espero zuen zerutik ez zait garbi agiri. Bizitza. Mirari bat. Itxaropengabetu ez nahiaren itxaropen izatetik ez da-bilkigu urruti Mitxelenaren esperantza. Antsia garraxi da itxaropen hau, bizi beharra eta ez jakin nola: mirari baten premia (Lazaro-ren miraria).

“Ta bitartean, ez dut aztu nai, Goliat zangarra menderatzeko Dabid txikiari indarra eman zionaren itxaropen-itza”.

Poman Euskal Herria sinbolizatzen dutenen artean ezin utziko dugu aipatu gabe San Inazio, “erri santu onen santua”.

Iñigo zaldun Loiolakoa
igo zanean Mendira,
gizaldi danen euskal-Fedea
ere zai zegon begira...
Iñigo santu Loiolakoa,
euskal-semetan Lenseme.

Ez dut Arantzazu tema berezizat hartu nahi izan. Ez noski tema berezi ez zalako. Halare, nire ustean, tema izaten hasi zena, poesiak aurrera (eta dagoeneko poeman ere bai, hor meritu handi bat, sinboloaren trazendentziari oso-osoan baitaratzen bait zaio), zerbait gehiago ere bihurtu zitzaion Mitxelenari: alegia, perspektiba. Mitxelenaren sinbologian —hitz honekin irudiaren mundua adierazi nahi nuke, eskolen mugetan xurtu gabe noski— Arantzazu bihotza da. Arantzazu, gurutzea orobat, inoiz Euskal Herriarekin, bere buruarekin inoiz, bategin dizkigu Mitxelenak. Har ditzagun, beraz, batean.

III. POESIA SOZIALA

Zerbait erantsi nahi nioke saio honen akaberari oraindik, alferrikako izanen ez delakoan. Poeta baten gorasarez ari bait gera, euskal poesiara bihurturik, gogoetaldi bat egitea dugu izan ditekian gorasarrerik jatorrena.

Hainbat areago, euskal poesiaren Aldi berri baten ateetan gaudenez gero.

Nire iritzian poeta bat beti da errebelatu bat. Errebelatzearen erak, halare, oso desberdinak izan ditezke. Artista hainbeste, gutxienez, eta askoz gehiago dudarik gabe. Esate baterako, mundu materialista (!) honen erdian lorak begiratzen xoratzen dena errebelatu bat da (edo izan ditek). Ez dezagula hau ahaztu, gero! Baina errebelatu izateak ez du berez poetarik egiten. Eta esan ditek euskal poesia guztia errebelatze guztiz nabarmenekoa izan dela, hain euskal eta abertzale, euskaldun soil izatea bera nahiko errebelatu izate zan denporaotan.

Alabainan, gaur ez dago lorak ere atzo bezala begiratzerik, eta hala esango nuke, San Martin-en hitza erabiltzeko, euskal

poesiaren errebelatzea narzisista edo izan dela gehiegitan, eta horrek eraman gaituela errekaondora.

Ondo egintzat ematen dut horregatik, fantasiaren bigunkerietan refugiatu dan poesiari errebelatu izena ukatze hau. Okerre-ria sentitzean, errebelaturik, nolabiteko ameserietan burua ezkutatzen duen poesiak ez du errebelatu izenik merezi. Poesia izenik merezi badu behintzat.

Joera berriak agiri dira gaurko poeta edo poeta-nahiengan. Lehenagokoek baino bixtanago jarri digute poetok errebelatzearen alderdi hau, era zakarragoak, edo hobeki esan, espresio zuzenagoa, esaera direktoagoa, gorriagoa, soilagoa, plastikoagoa, kantu hau-tsiagoa eta zearka joaterik gabekoa erabili dute-ta. Poesia kon-kreto deritza horri.

Fenomenu hau, beste aldetik, ez da poesiarena bakarrik: artearen azalpen guztiak bihurtu zaizkigu errebelatu eta kon-kreto. Errezkeriaz inoiz, hobe-minez noizpait, baina jeneralki, nik uste, artearen beraren (gizonaren) premiaz.

(Bixtan dagoenez hemen ez zaio kon-kretoari abstraktoa kon-trajartzen —pinturan esate baterako ulertu bide zenez).

“Gaurko artearen estiloan nahiz tematikan, Bizitzaren senti-duaren bilatze grinatsu eta sarritan tragikoak hotsegiten digu” (P. Tillich, *Die Verlorene Dimension*, 15). Krisis esistenziala ez da pasatu, eta ez da hain arin pasatuko, azken juizioa espero du-gunari aurreratzen ez bazaio behinepein. Ez gizonek ez herriek pasa dute, eta inork baino gutxiago guk, euskaldunok. Hain ez da pasatu, ze atrebituko nintzake esaten, espresio poetikoarentzat orain hasten dela benetan: zer eta zertako dan esaera, eta nola egokituko zaion esaera berri bat mundu berriari. Keja jenerala denez mundua arinago aldatu bait da kizkuntza baino.

Putz inporta digu guri, ordea, zer gertatzen ari denak. Guk ez dugu sekula begiekin begiratzen ikasiko, nunbait, fantasiarekin ikusten dugu-ta.

Munduari aurrez-aurre: horrelaxe dago poeta, San Martin gure kritiko oso gutxitakoak esan bezala. Ba dirudi gaur konturatu gerala poeta munduari aurrez-aurre, eta ez ilargiari, dagola, egon behar duela. Baina nahaskeriak gure enpeinurik eta abildaderik gureena dirudienez gero, ez dugu abantail hau alferrikaldu, eta poesiaren realismoa eta kuestio soziala bategin nahi izan ditugu orain. Ez hauzi sozialari lotzen zaio gaurko —betiko— poesia, ordea, gizonari baizik. Alde asko, ez asko dauzka gizonak. Alde guzti horiek azterkatu behar ditu gure poesiak.

Gizonari lotzen zaio poesia, eta neurri berean gaur hauzi sozialari.

Munduari aurrez-aurre, ez estadistika ta formulaz, intuizioz baizik. Mundu honen “bigarren mundua” bilatzen bait du poetak, (Jean Paul, Txillardegia, etc.) esan ohi denez, hots, Trazendentziarena. Betikoa. Gaur gaurkoa, halare, eta gaurko eran. Bere burua urkatzen du, bestela, arteak. Ez da zilegi era zaharrak kopiatzea, sensibildadea ezin kopia diteke-ta. Sentimenaren, sentieraren azalpen bait dira esaerak, eta haiek aldatzen doazen eran aldatzen joan behar azalpenak ere.

Txillardegia berari (Huntaz eta Hartaz, 88) jarraituz esango nuke egiazko arte berri bat egitekotan lehenengoa mundu hau ezagutzea dela, eta bigarren —biak batera beharrezko— artista izatea.

Izan ere, ez dago —gurera etorriaz— poesiarik poetikarik gabe, hots, “un determinante atteggiamento etico-estetico di fronte alla vita” (Ravegnani-Titta Rosa) hura gabe. Denborak uzten duen denboraz gaindiko sorkande da poeta, betieretasun giroan dabil poeta, ez bestegatik, denbora konkreto baten sakoneneraino murgiltzen delako baizik. Alegia, denbora bera geldi dagola esan ditekian denboratasunaren sakoneneraino, denboraren erroetaraino. Gaurko errealdadari denbora erantzi, egiten du poetak. Eta hori egiteko bidea, errealiade edozeinen kolkoan gizona aurkitzea da.

Gizonak ematen dio bizitzari —poesiari, bide batez— sakon neurria. Gizatasunak alderdi asko dauzka, halare, eta esabide desberdinak erabiliko dira bakoitzarentzako ta poeta bakoitzak, derri gorrez.

Orain bada, bixtan dago gizonaren barruan kuestio soziala dagola zenbait lekutan pilpilka, forma hori hartu dutela gizonaren betiko prolema askok. Eta tematikaren aldetik hori gertatzen dan gisa berean, espresioaren formak ere sentimen horrek determinatuta datozkigu. Ezin bata besteagandik eten ditezke tematika ta forma.

Gaurko poesiaren azala besterik ikusi nahi ez duenak bakarrik pentsa dezake, bada, hau kuestio soziala besterik ez dela.

Bildur da norbait, euskaldun poeta ohoregarriren bati ez omen diogula gazteok barkatuko “kuestio soziala” erabili eza... Nik neuk behintzat ez dut hortan barkatzekorik ezer aurkitzen. Baina poesia batean gizona bere gizonen ez badago presente, eta bai horren ordez kimera bat, barkazioak ez baizik Belerofontes da behar duguna.

Eta berdin esango dut: poesia sozialaren azpian gizonaren samin errea sutan agiri ez bada, gizonik aurkitu eta erakutsi ez badugu, laister sonatuko digu “poesia gazteak” ere gezur tonoz, eta guk geuk enterratu beharko dugu lehenbailehen, erremisiorik gabe, tontoak engainatzen jardun gabe, ezeren begirunerik gabe.

Geu izan gera, beharbada, kausante... Nire iritzian ez da kuestio soziala (ez luke izan behar) poesiaren arazo monopolizaturik. Gizona da *gaurko errealidadea* barna bilatu beharrezkoa. Kuestio soziala, ilargia, izarrak, parkeak, ura: sinboloak dira hoek, azalpen dira, izkutuagoko mami batenak. Langai dira, tema, erakuskizun nahi bada. Bakardadea, udazkena, bidaztia (aleman poesiak gizaldi honetan erabilien hiru gaiak) tema dira berebat, eta ez zaizkio kuestio sozialari atzean gelditzen eta ez desegokiago dira gaurko gizona konprenitzeko puntu bezala. Azalpen dira puntu

guztiok, gizonaren egoera baten eta geure konprentzio eraren azalpen. Mami baten azalpen. Eta mami hau gizona da, betiko gizona, eta betikoa delako gaurkoa ere, baina gaur ez atzo bezalakoa. Edo behintzat atzo bezala ikus ezin genezakeana.

Artea, gainera, ez da ikuste hutsa, ikus-eraztea ere baizik. Eta ikustera emateko espresio egoki gaurkoak, gaurko gizonaren pentsaera ta sentierari dagozkionak erabili behar ditu gaurko poesiak. Eta hemen ere, espresio honek erabili ditzakean irudi nahiz esaera sarkorrenetakoak eskeintzen dizkigu hauzi sozialak (gaurko gizonaren barrutasuna gutxi bestek bezala biltzen bait du puntu honek, eta bestetik mintzaera bat moldatu ere du).

Dagoela bada poesian gizona dan bezalakoa presente, eta mintza dakigula egiazki.

Puntu zaila da poetak zein espresio bidez balia behar duen erabakitzea. Inork ez daki hori. Manzoni ezkeroztik uste dut poesia *sliricata* deritzatenaz mintza ohi gera. Izan ere, autentikotasun aldian bizi omen gera, eta pitxikeriak estrainio egiten zaizkio gaurko gizonari. Sozializazio garaia ere ba da, beste aldetik (eta ez ekonomian bakarrik), gure hau. Sentiera sozializatu da batez ere. Eta azkenik, konkretoa nahi dugu edozertan. Pixka bat puntu guztiok bateratzeko zera esango nuke: gure kultura —pentsa eta sentiera— teknika kultura da. Arte guztia obligatzen du honek.

Adibide bakarra aipatzeko, gerra ostean Alemania-n agertu zan poesia joera bat nahiko izango zaigu: "Formula, estruktura ta irudi geometrikoak" hitzetan agertu nahi dituen poesia, edo deitu izan duten gisan "Teknikak anpatu duen gure pentsaeraren lekuko dan poesia" (Zeugen unseres von Technik ausgefüllten Denkens). Akaso ez da leialogia adibide hau, joera oso desberdina nabari bait dira gaurko alemaniar poesian. Kritikoeak, halare, gaurko poesiaren ezaugarritzat, beste zenbaitzuen artean nota hau destakatzen dute: herri bailara ta nekazaritza mundutik *Citu*-ra alde egin du poesiak, edo behintzat, bi poesia horien artean tensio

gorria sortu da (Georg Ried, *Wesen und Werden der deutschen Dichtung*, 334).

Ni, horregatik, De Lollis-en hitzekin esateko, pentsatzen dut hartara doala eta joan behar duela poesiak: “eguneroko bizitzaren poetak, eguneroko estilo ta hizkuntzan”. Hori sentitzen da gaur, eta horri deritzate kritikoeak *realismorantza marxta*.

Gaurko izaeran dauzka honek guztiak bere sustraiak, eta poetak lege du bere gaurrari zintzo izatea. Ala Erdi-aroa edo “dolce stil nuovo” betirakotu behar ditugu?

Ez da nahiko Euskal Herrian jaio izatea euskaldun izateko. Ezta ere kuestio soziala-z jardutea —esate bat da— edo atzerrian modan dagoenari jarraitzea edo geure herrian mundu guztia mintzatzen denaz idaztea, hori ere ez da noski nahiko gaurko izateko. Sentidu batean gaur bizi dan edozein da gaurko. Hainbeste gauza dira, halare, kalendarioan gaurko, ez ordea gizonen bihotzetan... Horra *Sing-Outer* horiek, begiak xuri xuri, mundu honen tatxagabetasuna eta bizitzearen leuntasun zoragarria eta nik dakit zer kantatzen, eta USA-ko gobernuaren dirua —kulturari lagundu egin behar bait zaio— kobratzen.

Ez Estaduari bakarrik, herrikoitasunari ta izenari ere sal dezaioke poetak bere burua. (“Wer hat nicht für seinen guten Ruf schon einmal —sich selbst geopfert?”, Nietzsche, *Jenseits von Gut u. Böse*, 92).

Konprometitua ere izan behar omen du poesiak... Zerekin, ordea? Ez dakit bada nik, gizonarekin ez bada. P. Neruda-k (barka, irakurle, neure buruari barkatu behar izan diot lehenengo) amerikanoen bonba kondenatzen du ta goratu rusoen. “Arte de Pájaros” liburu berria, ikaragarritzko lujoan editatzeko ez da oztoporik izan bere “konpromisoan”: ale bakarra 3.500 dolar pagatu izan omen da... Langileentzako edizioa zan dudarik gabe. Ez dakit zergatik asarretu diran orduan Chile-ko komunisten batzuek...

Munduarena da poeta, ez giza-sail bakarrena. Nik behar beha-

rezkotzat ematen dut orokortasun bokazio honeri guztien gaintik eustea eta ezergatik hartan amor ez ematea. Ze, gaurko grupoak ez dira bihar izango, baina poesia bai. —Honek ez du esan nahi poetak ez duela zilegi talde batengana makurtzea, edo ta sail baten egitekoetan parte hartzea. Esan nahi du bakarrik poeta gidari dela, eta ez duela gidaritza hori abandonatzerik. Gidari, eta ez gidatu.

Nik neuk arau ontzat ematen dut Francesco Flora poeta eta kritikoarena: alegia, poesia ezin ditekeala besterik izan, ez bada “uno spontaneo atto morale, che non ha gli scopi della moralità, ma quelli della sua propria purezza, e in quel modo serve all’eterna moralità che é nell’animo del uomo”.

Kollektivgeist izenburupean zerau idazten zuen, aspalditxo ia, Nietzsche-k: idazle on batek ez dauka bere espiritua bakarrik, baita adiskidearen espiritua ere baizik” (*Menschliches, Allzumenschliches*, 180). Herriaren espiritua bereganatu behar du poetak eta espiritu honi egokitzen zaizkion erak sortu. Aragiz, esaeraz jantzi espiritu hau. Ego biok jasotzen dute poesia.

Itzul nadin oraindik behin berriro Mitxelenarengana. Salbatorek ederki bereganatu zuen herriaren espiritua, sakon sentitu zuen “iltzera doan” herria. Espiritu hau mamitzerakoan erabili zituen irudiak (espresioaren zati bait dira) ordea, batzuk behintzat, dudatzekoak aurkitzen ditut nik. Esate baterako, zerraldotarako bakarrik omen diran piñu “arrotzak” gure mendiok jan izana... Eta ikusi dut norbait hain zuzen irudi horretxek unki unkitua. Bai, pinuak mendietan, sagarñoa maldan bera, sugestiboak dira noski, euskal irakurleen munduari bizitza normaletik kanpora xamarturik gelditzen zaizkienak eta gehientzat idilio-giro amesetzko baten ganduz bilduak. Ames eragikor dira, noski. Baina ez ote dago hortxe bertan okerra? Trajeria bat idilio forman iruditzen bait zait niri. Poesia ez bait da *beste* mundu bat eta ez bait da “herriaren opio” bihurtu behar. Ez ote dauzkagu hemen mamia ta

esaera, gaia ta espresioa, etenda? Dena dela, nabarmenago ikus dezakegu aten hau *Umezurtza* (AtA, 191-197) poesian —ez dut ezkutatuko 1936-39 idatzia dela: hemen mamia ta irudia ezezik, irudia ta esaera bera ere etenda edo paretzea lortu ezinda geratu direla esango nuke. Beharbada neurri horretan idaztea bera da Salbatoreren lehenengo akatsa poesia honetan. Cfr. honetaz Lorca, *La Imagen poética de Góngora*, Obras Completas, Madrid 1963, hor. 83 ta hurr., eta Hans Bender, *Mein Gedicht ist mein Messer*, München 1964, hor. 50 ta hurr.

Ez dut poetika berririk sortu nahi (!) izan. Ahal ere ezin bait diteke gaur holakorik. Tarte aldian gaude, transizio aldian, bilaketa aldian. (Honek ez du esan nahi gaurko poesia probisionala denik). Gainera, García Lorca-k: “Yo comprendo todas las poéticas; podría hablar de ellas si no cambiara de opinión cada cinco minutos. No sé. Puede que algún día me guste la poesía mala muchísimo...”.

Harrigarria da gaurko poesiaren barnean zenbait joera desberdin eta kontrario ari diran ahalegin batean, baliotasun berrien bila (edo zaharren indartzen), hizkuntza ta forma berrien lantzen. Hainbeste gero, esan bait du kritiko batek Alemania-n ia poesia bakoitza eskola berri bat dela.

Berriro gogoratu nahi nuke honera ezker, eta beste alderdi batetik puntu beroni eldu aurretik, Mitxelena-ren oharra: “Gagokion zintasunari. Zintasuna euskaltzalean. Zintasuna ertigintzan ere...”. Azkenean ere Anteo-ren mitoak ez du gaurkotasunik galdu poesiarentzat: lurra da gure indarra.

IV. BIDE BERRIAK?

Ganbiamendu ikaragarrien egunetan eta aundiagoen bezperan gaudela, zaila litzake poesiaren etorkizuna zein den esatea. Gaurkotasuna ta gaurkotasun neurria nagusitu erazten dituzten krite-

rioak ilunak dira. Nire iritzian behintzat. Uste dut denok ados etor gintezkeala puntu batean: gaurko gizonari ta sensibildadeari zor zaio poeta. Gaurko gizona sentitzen duen poetak, bere burua, saminak, kezak, maitasunak, esperantzak, zer dakit nik zer kantatzen dituenean, gizarte baten kantua sortzen du.

Esan dut gaurko gizonak prolema sozialean enkarnatu dituela bere betiko prolema asko, eta puntu hortan batez ere ernatu ta sentikortu dela gaurko gizonaren sentimena. Gizon hau sintetizatzen duten puntuetako bat bihurtu zaigu horrekin hauzi soziala. Puntu *bat* da hori, halare, eta ez bakarra. Hauzi soziala eraman ekartzeak ez du berez poetarik egiten eta gutxiago dago poeta derrigor puntu hori erabiltzera behartua. Poetak, edozergatik dela, beste puntu batean aurkitzen badu gizona, alfer alferrik izango dira orduan retorika guztiak, ze poesia ez da mustro izugarri baten orrua besterik izango, kitarra elektrikoak lagunduta bada ere.

Libertade osoa behar du poetak nahi duenaz jarduteko. Dirijismoak ez du sekula ondoren onik ekarri poesiarentzat. Nazismoak, esate baterako, ez digu tajuzko poeta bakar bat utzi. "Odola eta arraza" kantatu behar bait ziren —ez legeak hartara behartzen zutelako, Hitler-ek esan zuelako baino— eta ondo dio suomitar atsotiz batek oilarrak ez duela agindu ezkerro kantatzen. Utzi libre poeta bere gogara. Eta poetak: iraun libre. Denborari zintzo egoitea ez da sekula izan denbora hartan gustoko zena egitea.

Beste horrenbeste diot protestaz: protesta nabarmena ez da bakarra eta, batez ere, protestaren formak aldatzen joan behar dute, denborarekin eta poeta diferenteekin. Ez dauka protestak zergatik garratza izan. Reinhold Schneider-en gerrateko sonetoez akordatzen naiz.

Gaur gaurkoz poesia irakur dezaketenen jendarte sailetan protesta zalapartaria espektakulo bat da gure zoritxarrerako beste ezer baino gehiago. Ezagunago da gaur B. Brecht Alemania-n, herri hau benetan mixerian eta gorriak pasatzen zegoenean baino... Ex-

zitanteak behar bait ditu gure gizarteak, espirituarentzat ere. Eta horixe ari zaigu tamalez gertatzen: gure gizartea poetarekin ere *Provo* ta *Mods* eta LSD 25-rekin bezalaxe libertitu egiten da. Ikaragarri libertidua izan behar du poeten protestak eta “jenialidadeak” kopa biren eta hiruren artean miatzatzea. Eta protestariak ari zaizkigu *laureatuak* gertatzen... Pentsaerazten bait dit honek protesta egiazkoa izan ote den gurea, ze hitz umila entzuten diet dolorez bizi diren gizakume guztieri! Gizartearen diktadura, diren eta izango direnetan maltzurrena, puskatu behar du poetak. Gure gizartearen krisiak akusatu dituzten idazle eta poetak alabainan, jende ikasien “plazer estetiko” bilakatu dira (Ernst Zahn, *Soziologie der Prosperität*, 146). Eta hau paradoja bat dela pentsatuko ote dugu?

W. Weyrauch-en deklarazioari: “Kezka sortu dut. Tabu zirenak burrukatu ditut. Poesiaren pragmatista bat izan naiz”, Paul Celan-ena erantsi behar zaio: “Esku benetakoak bakarrik idazten dute poesia benetakoa... Zeru ilunaren pean bizi gera —eta gizon gutxi dago. Horregatik dago hain poesia gutxi ere. Oraindik gelditzen zaizkidan esperantzak ez dira handiak...”.

Direkto izan behar du esaerak. (Aresti-zentzat mailu da poesia. Weyrauchentzat aitzo). Gaiak bat ala beste izan esaeraren tasun hau nunahi beharrezko izango dela uste dut. Baina direktoaren ideia ikaragarri erlatibo agertzen da gaurko poesia nik eza gutuan, surrealismo eratik (“amesen paperzorroa”), medizinario ta fisikako hitz zailenak erabiltzea barna ahal dakit nik noraino. Eta irakurlearen baimenarekin esango nuke kaka eta puta esatea, direkto izateaz gainera, beste zerbait ere izan ditekela. Ez dut uste hitz horieri bildur natzaienik, behar direnean erabiltzeko. Baina ez ditut larrosa edo ilargi baino poetikoago aurkitzen. Eta direktoago ere ez dakit zergatik izan behar duten.

Xelebrea dugu bada mundutxo kaxkar hau! Lehenago dena Lizardi zan (izan balitz, orratio!) eta niri behintzat gezur tonoz ezin

eramanekoa egiten zitzaidan. Hautsi genuen hura: eta orain denok nahi genuke frankotiratzaile ta bangoardista. Hasi zen oilar bat kukurruku, eta kukurruku nahi zuten denak. Gaur denok zaunka, zaunkalaria Europa-n moda omen zelako. "Enfant terrible" horiek sinpatiko dira, baina bere buruari neurria hartzen jakitea ez da antipatiko eta zuhurtasun da. Bere buruari, eta denborari.

Lehengo lekuan geldituko ote gera? Berriz ere gure poesia bildugarri berdina izango ote da? Hau da nire bildurra.

Honek signifikatuko ligukeana bixtan dago: euskaldun indibidualista amorratu omen geranok ez dugula poesian behintzat geranik asko agertzen, kreatzaile benetakorik ez dugula granorik ere eta guk poesia ere *en serie* edo fabrikatzen dugula nunbait. *Plan Quinquenal*-ak egiten dizkiogula guk poesiari berari ere.

Honekin guztiarekin poesia aurreratu ez baino pobretu, mixerabletu egiten dugu, eta azkenean ito. Beste hizkuntzetan aixa aurki ditezke joera zearo diferenteetako poetak, ontzat emanak. Beti onartu izan da, bestetik, joerak eta eskolak ez dutela poetaren ontasunik erabakitzen. Gurean, ordea, inun ez bezalako akuerdoa dutela poetak beren artean pentsatuko litzake, eta sail bi edo hirutan gehienez banatzen direla. Harritzekoa benetan hauxe, ze, beste ezertan bategin ezin dugunok, gutxien bategin behar gukean hartantxe bateratzen gera. Emango ditu berriz ere euskal poesiaren lorategiak porru galantak, bai.

Beharbada guri gertatzen zaiguna da poesia ba dugula, eta ez poesia tradizioirik.

Beharbada egia da lirika espainola ta katalana Europa-ko lirikaren bangoardian doazela (hala derizkio Mossèn Josep Grau poetak). Dena dela, izan diteke interesante hemendiko gaien berri zerbait (formaren aldetik beste batean jardun nahi nuke) jakitea. Suomi edo Finlandia-ko hamabost poesia urte azkenekoetan gairik erabiliena hau, omen da: Ni-aren eta gure Izatearen huts gelditzea, estrainio bihurtzea (M. P. Hein, *Moderne finnische Lyrik*). Ale-

mania-n esan dut zeintzuk diren gai erabilienak, eta honen oso gertu egiten dira. Jakina da USA-ko nobelan gizonaren bakarda-deak zein puesto okupatzen duen (Ikus Pérez Gállego, *El héroe solitario en la novela norteamericana*). Txillardegi-ren nobela biak gogora gintezke gurean, eta haren entseiu zenbait. Italia-ko poesiaz *petrarkeskoa* dela esan dute eta haren tonoa *malinconia-k* seinalatzen duela gehien batean. Ingalaterra-n bertan ere, entzuten dudanez, ganbiatzen ari dira aideak eta *angry young* haiek atzera gelditzen ari omen dira (edo haitakorik apenas inor gelditzen). Alemania-n *Naturlyrik* deritzan joera, beste askoren artean, kementsu bizi da. Mossèn Josep Grau poetak berak hiru sailetan banatu ditu bere poesiak: barnekoi, sozial, mistiko.

Nik hemendik eta oraingoz igarri ahal izan dudanean balio-tasun berrien aurkitzearekin eta *itz-montajearen prolema* esango nukeanarekin ari da poesia leherreginetan. Hizkuntza berria sortu nahirik, alegia. Mundu zahar ahuldu baten kritikak ez dirudit poeten prolema denik, gerra osteko arazo ausaz handiena horixe bazan ere. Munduak berak dakar hortan berekasazko indar ika-ragarria. Segitzeko ere —ez gidatzeko bakarrik— nahiko lan ematen duen martxan gainera. Eta ganbiamendu honen zurrunbilan gizona berriz ere hutsik, bakarrik, galdurik aurkitu da.

Ez ote ditu euskal poesiak ere bide berriak, berrienak baino berriagoak, bilatu behar? Nik baiezkoa benturatuko nuke. Zerbait hautsi dugu, zorionean. Ez dezagula halare ondamenetan bizitza egin.

Bide berriak behar badira, zabalak behar dira. Gaur euskal poesiaren kontra kometatu genezakean pekatu rik lotsagarriena gai nahiz forma jakinetara obligatzea delakoan nago. Aldaketa da lege, ta aldaketak lur zabala behar izaten du. Moderno izatearen mamian dago ur-mamidun, mami fluidoko, iheskorreko izatea. Ez dago bada legeetan pentsatzerik. Gai bat edo ta forma bat dogmatutzeak poesia estekatuko ligu ke. Hans E. Holthusen-ek lirikoak

zein tema kanta behar duen galdetu zitzaionean erantzundakoa itzuliko dut: “Baina, esan ote dezake bada lirikoak zein bere tema dan? Bai, akaso esango du: zera: dana, Jainkoa eta mundua, iza-tea nolana ere...”.

Etorkizun joririk nahi badugu biharko forma asko ta beste horrenbeste gai behar ditugu gurean. Asko, onak eta txarrak. Sinistua bait nago gaurko txarrak on ta onak txar izango direla berehalaxe! Eta gainera ez du bibolin batek orkesta egiten.

Laburtuz:

- Hizkuntza berriak: hizkuntza era berri asko behar ditugu. Formak, estrukturak.
- Teknikaren mundua azitzen doa. Hor dago mundu zaharra halare, naturaleza bereziki. Poetari dagokio biok anaitzea (Heinz Piontek).
- Zer signifikaetzen du mundu honek guretzat? Mundu honi —gaurkoari— ordena eta sentidu eman behar dio poetak, edo apalago esateko, mundu honen ordena bilatu eta honen kolkoan gizona situatu.

Eta:

- Pentsa dezagun: ez dagoela poesiaren prolemarik, poetaren prolemak baizik.
- Pentsa dezagun: poesiak nolakoa izan behar duen galderak ez duela erantzunik.
- Poesia gizonaren autoanalisi dela, ezaguera bide beraz, eta gizona ez dagoela definitzerik ez perspektiba bakarretik ulertzerik, baina beharrezko dugula ezagutzen saiatzea... alde ta era ta joera guztietatik. Eta hemen, asma beza poetak bere eboluzioa.

Arrisku zorrotzetako barrutian ausartu naiz, ba dakit. Ez naizelako kritiko, urrun nagoelako Euskal Herritik, berez nahiko puntadun delako gaia bera... Arriskutsua. Hari mutur gehiegita-

tik tire egin dut, gainera. Handi eta txiki, denak endreatu ditut eta gutxi argitu (neu nago ilun-eta). Barka, batez ere desordenu ikaragarri hau, eta apika dariokean eruditismo kutsua, ezin kendu izan diot, arin beharrez. Dialogo baterako oinarri eman, edo behintzat gogoetaldi kolektibo batean parte hartu nahi izan dut nik nire zapero honekin. Beharrezko delakoan, Mitxelenaren obra luzatuko bada.

Jose Azurmendi

Münster.

1967

SAIAKERA ETA HIZKUNTZEN PIZKUNDEA

Txillardegik

Saiolari bikain bakar bat eman du orain arte Euskal Herriak: Unamuno; bainan erderaz eman du. Eta alde hortatik eman ez baina galdu egin duela esan dezakegu. Ideiei buruz ez gutxiago, nere ustez: Unamuno Euskal Herriaren etsai hutsa izan da funtsean. Baina iritzi honen kontra saiatu bait zan S. Mitxelena bere liburuan, utz dezadan nik hau bere horretan. Eta hau galdegingo dut: Unamuno-z kanpo, zer dugu? Zer dugu euskeraz? Zer eman du Euskal Herriak euskal saiakeraren sailean? Egia aitortu beharra dago: ezer gutxi. Euskal saiakera oso ahula da gaurkoz (eta ez saiakera bakarrik, zoritxarrez!).

Euskera ahultasun hortatixek bere ahalean ateratzen saiatu zitzaigun hain zuzen Salvatore Mitxelena zana; eta "Unamuno ta Abendats" bere saiakera famatuak puntu goren bat iritsi du euskal saiolaritzan. Bere liburu horrek ba du entseguaeren plegua: iritzi sendo bat oinarri eta gidari, Unamunoren izkribuz egizatzen saiatzen da liburuaren horrialdeetan barrena; eta hau egitekotan, Unamunoren bere ezagutzapena erakusten du. Ideia nagusi bat agerretzen ahalegintzen da, filosofoak bezelaxe hitz batez; baina puntu zehatz batez ari zaigu: gure honetan, Unamuno euskalduna ote zan galderaz.

Hauxe izan diteke, nik uste, saiakeraren definizio on bat: puntu bakar bati buruzko filosofi apurra, lehenengo abstrazio-mailan egina, izanaren funtsera zabaltasun eta sakontasun guzian abiatu gabe.

Euskal saiakeren bilduma bat egitea erreza da: Salvatore Mitxelenaren saiakera dugu gailen: liburu gutxi dago euskeraz “Unamuno ta Abendats” deritzana baino irakurgarriagorik. Eta, zer gehiago? Jean Etxepareren “Buruxkak” eta “Beribillez” liburu mamitsuak ditugu, ez behar bezin ezagunak euskaltzaleen artean. (Halere Etxeparek ideki zuen euskal saiakeraren sail hau, eta Laffitte kalonjearen hitzez esateko: Etxepare da “gure lehenengo” saiolaria). Ilara honetan beti ere, Jon Etxaideren “Amasei seme Euskelerriko” aipa diteke, Jon San Martinen “Mogel” saiakera laburra, Txillardegiren “Huntaz eta Hartaz”, eta ausaz beste bizpauru liburu gehiago, orain nik ahaztuak. Baina kitto: beste egiazko saiakerarik euskeraz ez dagoela esan diteke.

Oso inportantea dalako, xehetasun bat oharrarazi beharra dago. Noizkoak dira aipatutako saiakera horiek? Lehendabizikoa, “Buruxkak” 1910-ekoa dugu; eta azkena, “Huntaz eta Hartaz”, 1965-ekoa... Mende honetan sortu da, beraz, euskal saiakera.

Alderdi batetik, egia esateko, “saiakera” hitzari zabaltasun haundixeago emanez gero, ba zegoen lehenago ere euskal saiakerarik. “Saiakera” hitza bera batzutan aurki diteke aspaldiko erlijio-liburuetan: Gerrikoren liburu batek, esate baterako, “Kristau-Dotriña guztiaren ezplikazio saiakera” du izenpuru. Irizpidea horretara laxoturik, Atsularen “Gero” bera saiakeratzat har diteke; eta hortara jokatuz gero, “Gero” izango litzake euskal literaturan idatzi dan saiakerarik ederrena. Nekazaritzari buruzko Duvoisinen “Laborantzako Liburua”, Iztuetaren “Guipuzkoa’ko Kondaira”, Kardaberatzen “Euskeraren berri onak”, Etxeberriren “Nabigazioneko Liburua” (beste euskaldun baten erdal-liburuaren itzulpena baizik izan ez arren), eta beste zenbait ere, sail horretan

jar genitzazke. Saiakera ahal da, esate baterako, Aita Xarritonen Kondaira? Saiakerak ahal dira Zinkunegiren eskola-liburuak? Ez nere ustez.

Gaur egun, saiakerak sentidu berezi bat hartu du munduan: erdi literatura erdi filosofia. Saiolaririk ezagunenak aipatu besterik ez da: Berdiaeff, Ortega, Unamuno, Etiemble, Merleau-Ponty, Aron, Jaspers... Nor da ari, gure artean, modu horretara? Noren euskal liburuek dute kutsu hori?

Saiolariak filosofiaren ertzean ari dira. Mauriac-ek saiakera batzuk ditu, Camus-ek, Huxley-k, Baroja-k bezala; baina gehien bat, Russel, Toinbee, d'Ors eta Sartre, esate baterako, agertzen zaizkigu saiolari, puntu xehei buruz filosofigintzan ari diralarik. Saiakera ez da, hertsiki aztertzeraz, ez teologia, eta ez pentsamentu-sistema oso bat ere. Bainan irakaskintza hutsa ere ez da. Saiakera, beharbada, problema zehatzei buruzko "mikro-filosofia" izenda diteke. Idazle baten saiakera guzien oinarrian bere "makro-filosofia" aurki dezake filosofiak: saiakera "grafia" litzake, eta filosofia integrazio bat, "logia" bat.

Euskal saiakera, argitzapen horiek emanez gero, jaio-berria dala esan dezakegu. Eta, agertuko danez, ezin zitekean bestela gerta: Euskeraren eta Euskal Herriaren beraren pizkundearekin batera agertu behar baitzuen euskal saiakerak. Eta horixe gertatu! Euskal Herriaren pizkundera, zernahi esanagatik ere, ez bait da aintzinatik loratutako adaska gutartean!

Azken mendeetako literatura guzien kondairan aurki diteke fenomeno berbera: saiakeraren jaiotza hizkuntzaren pizkundearen seinalea da; hizkuntzaren pizkundera herriaren beraren zuzpertzearren seinalea dan arabera. Hizkuntzaren piztea eta saiakeraren sortzea elkarrekin doaz. Elkarri lotuak dira sustraietik: ezin bata sor bestea gabe.

Hizkuntza mintzabide bat da, elkarri ideiak adierazteko tresna bat. Hau ez dalarik, hil egiten da. Hau da kakoa behin eta berriz.

Hizkuntza baten osasuna edo indarra neurtzeko, beraz, mintzabide zein mailatan dan ikertzea bezelakorik ez dago. Hauxe dugu argibiderik ziurrena hizkuntzean bizitasuna ikertzeko.

Hizkuntza bizien literaturetan, (espainerazkoan, esate baterako) mintzabide-tasun hori gizarte-biziera osoaren eremuan aurkitzen dugu: espainera mintzabide da bizi-maila eta jakintza-mota guzietan. Espainera hizkuntza bizia da, dudarik gabe.

Hizkuntza ahulen literaturetan, aldiz (bretoinerazkoan, esate baterako) mintzabide-tasun hori Bretaña-ko bizieratik at agertzen zaigu soilik. Zertan erabiltzen da bretoinera? Ez ideiak elkarri adierazteko, ez eginbeharretan elkar aditzeko; egiatik aldegitoko eta alegiazko ipuinetan gerizatzeko eta amets-egiteko baizik. Literatura txiroetan olerkia nagusitzen bide zaio biziari; baina areago zaizkio ipuina eta sasi-olerkia bai olerkiari eta bai biziari nagusitzen; eta berebat belaskeria sentimenari, gezurra egiari, ametsa kondairari.

Kasu! ez dut nik, noski, gorroto edo mesprexu mendrenik ere euskaldun olerkarietako: ez, eta mila aldiz ez. Baina hizkuntza bat ipuinak kontatzeko, edo onenean olerkia egiteko gai denean, eta ez bestetarako, hizkuntza hori, olerkia aitzaki, amets hutsen tresna hutsa bihurtzen da, eta herriaren ezpainetik aldatzen; gure hartu-emanetan ari bait gera olerkiez, eta gutxiagotan ipuinez. Olerkariet berek dakite nik baino hobeki olerkia ez dala (ondikoz!) eguneroko ogia! Zer esango, hortaz, sasi-olerki negarti horietaz, herri baten idaz-lan bakarra bilakatu diralarik? Zer esango, gezurrezkoa dala baizik?

Egia esateko, besterik ere idazten danean, sasi-nobela eta sasi-teatroa ez da sasi-olerkia baino hurriago! Baina hizkuntza osasuntsu eta bizi batean, literaturaren zati txiki bat da olerkia,

ez literatura osoa. Eta olerki egiazkoaren zati horretan ere, oso zati mehea dagokie ametsezko pasadizuei eta folkloeari. Espaineraz ba dago Rubén Darío, eta ba dago Juan Ramón Jiménez. Baina ba daude ere Zelaia, Unamuno, Azorín, Benabente, Lafín Entralgo, Pérez y Pérez, eta baita “Espasa”, “Técnicos Labor” eta “Aranzadi” sorta ugariak ere. Denetarik dago! Espaineraz irakurtzen duena ez dago, nahi-ta-nahiez, zotinka bukatzera behartua!

• Adiuntza batzutan bertso-egileek idaztea, eta ez beste iñork, ez da bertso-egileen errua. Noski! Bainan ohargarria da, aztergarria: zergaitik baliatzen dira hizkuntza ahulaz bertso-egileak, eta ez beste inor? Eta ez nolana hikoak, negartiak baizik?

Hizkuntza beti ere mintzabide dalako. Noren mintzabide eta zertaz mintzabide kasu horietan? Beren herriaren heriotza inolaz ere jasan ezin dezateken abertzale biguinena, eta ametsezko aberri batez “garbiki” mintzatzeko. Horrelakoak etnien akaberan eta pizkundearen hastapenetan sortzen dira. Sasi-olerkia morfina da berentzat. Baina abertzaletasunaren sua piz diteke ere horien zirikaldian.

Itzul gaitezen berriz Bretania-ra. Bretoineraz zer dago idatzirik? Esan bizaigu Roparz Hemon bretoin abertzale ezagunak: “Le Barzhaz Breizh (Bardit de Bretagne) est le livre de langue bretonne le plus célèbre jusqu’ici dans le monde. C’est un recueil de poemes —plus exactement de chants”. (La langue bretonne et ses combats, 100gn. horr.). Kantubilduma bat, beraz, liburu nagusia. Zer Bretania da kantuetako hori, alegiazkoa baizik? Zer da hori, Bretaniako egia garratzari etsia egiteko bide bat baizik? Hizkuntza mintza-bide bilaka dedin neurriak hartu beharrean, Hersart La Villemarqué-k bretoinera egiazko mintzabide bilaka dakien behar dan ekintza politikoaz eta literatura-lanaz bretoinen ahoetara eramaten saiatu beharrean, bretoinera ametsezko parabisu batean sarrerazten du. Olerkari baino ameslari agertzen zaigu; eta A. Jeanny’k hau esan dezake: “Il s’occupe de bonne heure, avec

plus de fantaisie et d'enthousiasme que de exactitude et de critique, des antiquités littéraires”.

Eta bere ihes-nahia gaur nabarmena zaigu. Kontutan hartze-koak dira, nere ustez, “Hersat” Villemarqué-ren beste liburu-izen-puru batzuk: “Contes populaires des anciens bretons”, “Poemes des bardes bretons du VI-ème siecle”, “La Légende celtique”, “Myrddhin ou l'enchanteur Merlin”, “La Legende de St. Gurthiern”...

Horrela, berari buruz ari dalarik, hau aitortzen du Marcel Guieysse bretoin abertzale suharrak: “Le temps d'est plus où La Villemarqué se complaisait dans cette pensée que la grande vertu de la langue bretonne était de protéger le peuple breton contre l'hérésie et la philosophie” (La Langue bretonne, 89 gn. horr.). La Villemarqué-k Bretania maite zuen, hau bai; baina gaizki ikusten zuelako, aurrez-aurre begiratu eta burruka egin beharrean, amets egitea erabaki zuen.

Gauza bera salatzen du Gourvil-ek ere: XIX-garren mendean “dena” (“tout”) idatzi omen zan bertsoan. Dana ehun urtez!

Eta ez dugu hau ahaztu behar: garai hartantxe bota zuela Le Brigant'ek “Grégoire de Rostenen-en ideia jasoaz) bere “teoria” hura, Bretania-tik kanpora ere aski ezaguna: bretainera mundu guziko hizkuntza guzien jatorria edo “ama” dala... Orduko bretoin-zaleen artean indar haundia hartu zuen zorakeria honek.

Zer ikus diteke garai hartan egiazko Bretania-n kondaira irakurriaz? Bretania jendez hustutzen hasi zala, lanik neketsuenak eta gogorrenak bretoinek egiten zituztela, ezjakintasuna guztiz hedatua zegoela, hizkuntzak begiramentu guzia galdua zuela eta ezertarako balio ez zuela, Fraintziaren eragina sekulan baino bortitzagoa zala: Bretania-ren amaia ikusten da, beraz. Bretoinen literatura osoa XIX-garren mendean bertsoan inprimatzea eta Bretania-ren akabera, elkarren irudia dira, besterik iruditu arren; fenomeno berberaren bi aurpegiak dira; Bretania egiatik alegiara

pasa zan, ahoetatik ametsetara, Kimper-tik Ilargira, lurretik hodeietara, herriak berak nora edo hara joan behar bait zuen, bre-tointasuna izarretara bidalduz! Literatura hura, horregaitik, zerura joandako arima baten hileta baizik ez da...

Finlandian, beste adibide bat emateko, abertzale-mogimen-duak (Lönnort osagilearen bidez) "kalevala" deritzan bertso-sorta eman zuen 1835-ean. "Kalevala", berriz ere, kanta zaharren bilduma bat da. 1860 arte az zan egiazko finlanderazko literatura-pizkunderik sortu; eta hau abertzale-mogimentuarekin batera mami-tu zan. Gisa da.

Are gehiago. Askotan (eta ez Euskal Herrian bakarrik) sasi-olerkari horiek (sasi-olerkari baizik ez bait dira sarritan) ez dira gauza izaten beren olerkietan erabilitako hizkuntzaz beren bizieran erabiltzeko. Bertso-egile faltsu anitzek horrela jokatu, beren olerkien mamiaz eta beren olerkien hizkuntzaz, egiatik ihes nahi zutela erakusten digute nabarmenkiro. Gure artekorik ez aipatzeko, on izango luke irakurleak Bretania-ko gora-beherak aztertzea.

Ihes-egin: hauxe da xedea. Hizkuntza ez dute sekulan mintzabide nahi: ez beren buruentsako, ez inolaz ere herritar "arrote"en artean honda dedin: ihespide hutsa bai. Literatura eta hizkuntza bera beren amets eroen bideetan barrena nahi dituzte abiarazi; eta lortzen duten heinean, hizkuntzaren eta herriaren ahulezia neurtzen dute. Hizkuntza erritik at erauzi nahi eta ipuinen hodeietan "garbi" gorde nahi horretan, sustraia bat da: kantutan, bertsoetan, gertaera zoragarritan, zatarkerietatik landa, haragirik gabeko "pertsone" zozoen ahoetan, sekulan ez izandako sasi-herri zerutar batean, hor "gorde" behar...

Maurois-en esakuntza bete-beteen erants diteke oraingoan: "Le roman est un univers de secours". Zer esango giharrik gabeko mundu horietaz? Alegiazko izkribuak giro hortan, literaturako bakardade hortan, mortutik aldegitiko ihespide baizik ez dira.

Literatura batek horretan diraucino, galdutzat eman dezake bere burua.

Lerro hauek irakurri ala, nork ez du dagoeneko nabaitu Euskal Herrian ere horrelako zerbait gertatu zaigunik? Hogeigarren menderaino (eta ez 1901?eraino xoilki!) erromantiku negarti batzuen ihesleku hutsa baizik ez da izan euskera. Euskal Herriko ameslariak eta euskaltzale negartiak pertsona berberak izan dira gehienetan.

Orain dala gutxi arteko "olerkikeria"-ren nagusitasun nabarmena, gure hizkuntzaren eta gure herriaren beraren eritasunaren neurri xuxena izan da. Gure liburu famatu batzuk irakurtzea dago, eta idatzi zituzten idazleen nortasunaz bidenabar ahal dana bildu, garaieko giroa eta literatura beti erkatuz: egiaren argiak eta larriak itsutu egiten gaitu. Elizako liburuak alde batera utzita (Bretanian bezela), gure Literatura, gutxi gora-behera, orain dala zenbait urte arte, abertzale bigun guzien aterpea izan da. Gure herriaren gainbehera latzegia izaki, ihes-leku eta ihes-pide batera izan da "olerkia".

Iheskeria horietatik aldatu nahi dugula adierazten duelako, euskera euskaldunen mintzabide izatea nahi dugulako, pozgarri izan zaigu arras saiolaritzaren jaiotza. Urte askotan! "Unamuno eta Abendats" liburua guztiz zaigu itxaropenez betetako zantzua. Salbatore Mitxelenak bide zuzena erakutsi digu.

Saiolariak egia adierazi nahi du (benetako olerkariak bezelaxe, bestalde!). Ez du amets-egitekotan idazten; hizkuntzaren aitzakian ez da ihes-leku bila ari. Hizkuntza adimenduaren tresna dan aldetik hartzen du saiolariak, eta zaiona besteri adierazten diardu. Hori eginaz, literatura haurtzarotik ateratzen da: saiakeraren bidez ipuinetatik egiara igarotzen gera, nahikundetik nahira, malkoetatik ekintzara, atzotik biharrera. Urrats hori eman duen hizkuntzak bere burua salbatzeko bidean jarri du. Herri horrek bizitzea erabaki du.

Bidezkoa da, nahi-ta-nahi ezkoa hobe, herri batek (eta bere literaturak) erromantiko modura hastea: amets ez eta lilurez elikatzen dira hastapen guziak eta gaztaro guziak. Hortan gelditzea da txarra: beharrezkoa da urrengo urratsa ematea, eta kantu legunetatik egia gogorretara eta ekintzara pasatzea.

Finlandiarrak pasa egin ziran, eta beren hizkuntza mintzabide bihurtu dute. Bretoinek ez (1940-ean gaizki jokatu zutelako batez ere), eta berena azkenetan dute, eta herria apurtua. Gure herriak ez hiltzea erabaki duenez gero, amets ezko sasi-olerkiari aldegin behar dio, eta saiakerari fermuki heldu.

Mundura sartzeko delibero irmo horretan, literatura indartzeko nahi zindo horretan, ideiak adierazi behar horretan, mamia nagusitzen zaio itxurari, azaldu-beharra "garbitasuna"-ri, gizatasuna folklore-keriari. Literatura gizondu egiten da. Saiakeraren izanak berak giroaren aldakuntza sakon bat dakar ezinbestean; eta hau osasungarria da.

Saiakera bat idazten duenak, bestalde, gertu ez dagoen hizkera baldres bat aurkitzen du bere luman: mintzairazko tradizioz ez izatea zer dan ongi neurtzen du. Hala ere, ideiak bere herriari saldukeriarik gabe azaldu beharrez, "lur-berri" tan abiatzen da; eta ezinbestean, bigunkeritan ari-izanez gero sekulan ez somatu eta ez urratu egingo ez zituen bide berriak prestatzen ditu; eta hori dala bide, hizkuntza bera osatu eta indartu egiten du. Fenomeno hau nobelagintzan baina aisa nabarmenago gertatzen da saiakeragintzan.

Saiokeraren bidez egia argitu nahiz, beraz, goitik behera aldatzen da hizkuntzaren mundua. Hizkuntza ez da sasi-helburu egoten, baina egiazki mintzabide eta egiazpide bihurtzen. Saiakeragintzan abiatzen diren hizkuntzek, egiazki hartzen dute pizkundearen bidea, saiakeraren bidez egia eta mintzairaren gaitasuna bera batera indartzen diralako.

Jakina: saiolaritza hutsa, besterik gabe, ez da aski. Literatura oso bat ez da aski: frantsesezko literatura ederra da, baina Guernessey-n inglesera nagusitu zaio; eta Alsazin-n frantsesera alemanari. Pikuan egotea litzake literaturan jartzea itzaropena; eta jarria izan dalako gogorazi nahi dut. Bizi-maila guzietan eta hartu-eman guzietan hizkuntza bat arras mintzabide ez deino, galduta dago: eskola eta irakaskintza, kasetak eta telebista, herriko-etxeetako bulegoak eta bankuetakoak, euskaldunen arteko hartu-eman guziak, goitik behera, euskeraz izan artean, jai dugu euskaldunok. Honek ez du duda-izpirik uzten.

Baina gaur hemen literaturari gagozkiola, euskal saiakera bultzatu behar dugula esan nahi dut goratik. Ez saiakera xoilki, noski. Baina euskal saiakera bultzatuz urrats haundi bat emenezaraziko diogu gure Literaturari.

Bene-benetan zaigu jarraigari S. Mitxelenak erakutsi zigun bidea.

Txillardegi
1966

« A M A - S E M E A K »

Luis Villasantek

(Arantzazuko kondaira)

Urruti-miñak joa alde egin zuen gure artetik. Urruti-min horrek ez zion sosegatzera utzi. Sasoi-sasoian abiatu zan munduan barna. Gero itzultzekotan, noski, baiña ez zan sekula itzuli. Bere azken amar urteotan Euskalerrian egon balitz, zer gaillurra joko zuen! Baiña ez gaitezen erosta jotzen asi. Ezikaitza zan. Ezikaitz ta etsigaitz. Urduri. Nerbio uts. Pairu gutitakoa, eta hargatik gehiago pairatu beharrekoa. Azkarra ta burutsua, eta hori ere bere kaltetan apika. Giza-presunaren muiña mamitzen den urte hoetan Konzilio-ondoko giro hau ezagutu izan balu, beharbada ez zan ain nahigabetsu izango. Kanpoan, berriz, denok dakigu zer giroa zegoen gure gauzetarako. Gaurik illunena, eta argi-urratzerik iñundik ere ez ikusten.

Asko zor diogu denek, eta beharbada ni neu natzaio denetan zordunena. Nork esan, aldamenean duzun lagun baten eragiñak zer dezakean? Eta eragin horren luze-laburra nola neurtu? Ixil-ixillik, an, konzientziapeko tolesetan egiten du bere azpi-lana, zerorrek ere ez dakizula...

Oroitzapen zaharrak

Kolejioko urteak Arantzazun eta Foruan egin zituen (1930-1935). Urte haietan bera genuen gure inguruan euskaltzale ba-

karra, euskeraz idazten zekian bakarra, eta alako arridura batekin begiratzen genion. Oroitzen naiz errebista ttipi bat atera genuela Kolejioko mutikoen artean, "Forua" zeritzana (1935 urtean); eta ain zuzen, an euskeraz azaldu zen gauza bakarra berak egiña da. Olerki bat: "Oroilari". ("Aránzazu" illerokoan atera-berri da, 1966, 41 orrialdean).

Gero, berriz, Espaiñiako gerra-ostean, urtebete egin nuen aren ondoan Naparroako Oliten, Filosofiako ikasteak egiterakoan. An ere berak egindako euskal olerkiak uzten zizkigun irakurtzera, makiñaz txukun kopiatuta eta erderazko itzulpena alboan zutelarik; dena egoki josi ta enkuadernatua, liburu-gisa.

Teologu ikasteak Arantzazun egin zituen (1940-1944), eta neri azkeneko bietan (1942-1944) gertatu zitzaidan haren ondoan egotea. Orduan piztu zan haren Arantzazu-zalea. Zergatik edo nola? Alde batetik, jende euskalduna erruz Arantzazura erromerian etortzen ikusten zuelako: ikusgarri horrek bihotza irabazi zion. Gero Manuel Lekuona apaizaren liburua ("Literatura Oral Euskérica") haren eskuetan erori zan. Andik ikasi zuen, nik uste, gure erri xearen literatur eta poesi-kimak maitatzen eta aintzat artzen. Ba genuen, gaiñera, eskuen artean Aita A. Lizarraldek idatzitako Arantzazuko Kondaira (artean argitara gabea).

Baita ere Arantzazuko artxibuan zegoen (eta dago) Arantzazuko kanta-zaharren bilduma: Aita Lizarraldek berak aitona eta amona xaharren ezpafiñetatik jasotako erromantzeak Arantzazuri buruz. Gehienetan ez daude osorik. Baiñan puxka haiek, beren sotillean, beren paregabeko bakuntasunean, zearo lilluratu eta maitemindu zuten Arantzazurekin. Aita Lizarraldek erromantzeok itzik aldatu gabe, erriak esaten zituen bezala artu zituen (ez itzak eta joskera aldatuaz, Azkuek maiz egin oi zuen bezala); hargatik jatorrago eta zoragarriago dira guretzat.

Aski izan zituen elementu hoiek alako sintesis berri bat bere buru-bihotzean sortzeko: Arantzazu izan da euskal fedearen su-

kaldea. Euskal Edestia eta Arantzazurena, bi-biak, uztarturik ibilli dira. Euskalerrriak jaso-aldia ezagutu zuenean, Arantzazuk ere bere urrezko aroa izan zuen; eta hura ondatu zenean, alaxe Arantzazu ere.

Nik ez dut uste Montserrateko Virolairen arako bertso hura ezagutu zuenik:

*Amb vostre nom comença nostra historia,
i es Montserrat el nostre Sinái.*

Baiña ezagutu edo ez ezagutu, gure Aita Mitxelenari idea berberak piztu zitzaizkion Arantzazuri buruz. Eta erabat jarri zan idea hoi en alde.

Arantzazun behiñola gau bijiliak egiten ziran: erromesek, gaua pasatzeko lekurik ez, eta eliza barruan pasatzen zuten. Eta gaueko orduak nolabait emateko, Jesusen Pasioa eta Arantzazuko Amaren historia gogoratzen zuten. Era hortara, dena kantatu, erromantze eta irakurtze batzuen bidez, edo penitentziketan ari ziren bitartean, gaua igarotzen zuten. Gau bijili haien kalbarioasuna: orra bihotz ondoraño sartu zitzaion beste idea bat. Jesusi Pasioan lagundu behar, haren semetasuna irabaziko bada.

Eta Arantzazuko erromesen artean, Aita San Iñazio agiri da, Euskalerrriko Lehen-Seme bezala, Arantzazuko erromesen ispillu eta eredu bezala. Bai. Loyolakoak ere Arantzazuko eliza barruan eman zuen gau bat, beste erromesekin batean parte artuaz. Asko maite zuen Mitxelenak Loyolako Aita San Iñazio: Euskalerrriko Santua eta Arantzazuko Amaren Seme bezala agertzen zitzaiolako, noski.

Gogoan dut nola egin genduen *Velada* bat, berak asmatua ta eratua. 1943-ko urtarrilaren 23-an izandu zan. An jaulki ziran Arantzazuri buruzko ikuskera berri (?) hontako ideak. Aita Agirretxek eta nik ere itzegin genduen *Velada* hartan, baiña, esan dudanez, bera izandu zan denaren asmatzaille eta aitzindari.

Gogoan dut baita ere nola joan giñan irurok Arantzazuko Albitxuri baserrira. Josefa Ollakindea, amona xahar batek, Arantzazuri buruzko kanta zaharrak zekizkiala, eta hoiek jasotzera.

Erromantze sotil hoetatik aitzaki artuta, asmatu zuen ba bere Arantzazu Poema. Aitzaki artuta, esan dut. Izan ere, ez da erreza esatea zer artu duen haetatik eta zer ipiñi duen bere baitatik. Beharbada gehiena berak bere buru bihotzeko labetik atera izan du. Haek aitzakia eman zioten, baiña sintetisa, ikuskera, berria da, bere-berea.

Meza berrikoan

Idea hoek noraiño bihotzean erroztatuak zeuzkan ikusteko, Mezaberriko oroigarritxoan ezarri zituen bertsoak gogoratu besterik ez dago (gauero errezatzen omen zituen, gaiñera, bertso hoek):

“Ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu”.
Zure eskaria, zure eskeñia
auspez entzuten naukazu,
zure izenaren ermitagintzan
albait ekiteko gertu...
Merezi anbat gora zaitzadan
Ama! lagun egidazu.

(“Ama-Semeak”, 146 orrialdean)

Arantzazun asi zuen ba bere poema Teologiako ikaste garaian, eta gero Aguilera (Burgos-en) jarraitu, eta Donostian bukatu. Berak dionez, emen, Donostian, bi illabeteko gaixoaldi batean bukatu zuen (“Ama-Semeak”, 146 orr.). Baiña Arantzazun, teologu-ikasle zelarik ere, asko egiña zuen. Gogoan dut nola teologu ikasleen maisuak (Aita Jesus Larrinagak) txantxetan-benetan, iñoiz esan zion: “Poema idaztea samurra duk; bizitzako poema

egiten ikasi behar duk ik"... Irribarre batekin artzen zituen olako zirtoak.

Gero Donostiara izan zan bialdua, eta an egon zan Ameriketara joan arte. Predikari bortitza zan. Erri askotan mixioak eta abar eman zituen. Gogoan dut nola egun autatu eta aundi batzuetan, bazkal ondoko kafea artzeko garaian, Aita Mitxelena eta Aita Gaztelu-Urrutia bilbotarrak (Cochabamban dago hau orain, Bolivian), biak bikote bat osatuz, kantu-saio zoragarria ematen zuten prailledi guztiaren aurrean. Poemako kantuak izaten ziran (artean Poema argitaratu gabe zegoelarik). Aita Bernardo Madariaga zan orduan Probintzial, eta behin baiño gehiagotan ikusi nizkion begiak malkoz bustiak, doiñu zoragarri haiek entzutean.

Poemaren argitaratzea

Gure Aita Salbatoreren osaba praillea (Aita Arcángel Mitxelena) zan orduan Arantzazuko nagusi, eta hark erabaki zuen Poema santuarioaren kontura argitaratzea. Eta ala egin zan (irugarren partea beste baterako utzia, alere). 1949-ko urtea zan. Makiña bat urtetan ez zan euskeraz ezer tajuzkorik azaldu, eta egundoko arrera ona egin zion erriak. Balio zuelako, noski, eta baita ere, ainbeste urtetan, ezer euskerazkorik ikusi gabe zegoelako. Mitxelenak, ba, bere Poemarekin urratu zuen bidea eta sua ausi, gerra ondoko aro hontan. Darabillen euskeragatik ere, bera dugu aro berri baten aitzindari eta maisu. Berak erakutsi zigun euskera jatorra, errikoia, izkera bizitik urbil dagoena erabiltzen.

Arantzazuko kondaira idaxten

1949-ko urte hartan bertan Aita Paulo Lete izendatu zuten Probintzial. Honek bultzada berria eman zien Arantzazuko gauzei. Beronen aginduz asi baitzan Arantzazuko eliza berria. Berak ager

arazi zuen Aita Lizarralderen Kondaira (1950). Baita ere bera izandu zan Aita Mitxelenari, beste kondaira bat euskeraz idazteko agindu ziona. Orra zergatik lotu zan lan honi. Horretarako Mitxelenak bi illabeteko epea eskatu zion Probintzialari, eta ala, beste lanik gabe, Donostiako girotik irtenda, Zarauzko komentuan burutu zuen bere arloa. Eta Zarautzen bertan, Itxaropena etxean, inprentatu ere (1951).

Mitxelena, beraz, kondairagille? Ez zan paper zaharrak miazten eta albiste ezezagunen billa dabiltzan gibel-andi hoetakoa. Ezta urrik ere. Baiña Arantzazu-gaia ondo menderatua zeukan. Aurreko urteetan, bere Poema egiteko, asko erabilli baitzituen Lizarralderen kondaira eta Arantzazuko kanta-zaharrak. Albiste eta xehetasunen billa, Lizarralderen arrobira eta iñoiz beste zenbait iturritara jotzea besterik ez zeukan. Gaiñerakoan, Poema egin zuenetik berak ba zuen bere ikuskera berezia Arantzazuri buruz. An olerkiz eta kantuz, eta emen itz lauz, baiña bietan ikuskera berbera azalduko du. Poema eta Kondaira, bi biak, anaiak dira ba. Liburu sutsua, gartsua atera zitzaion. Tesis bat ezartzera datorkigu liburu hau.

Tesis hori orra zein den. Arantzazu izan da gure batasunaren sukalde eta auspo (260 or.). Arantzazu izan da euskaldun guzien Santuario nagusia; ez Gipuzkoakoa bakarrik, euskaldun guziena baizik; napar, bizkaitar, arabar ta baita lapurtarrak ere bertora etortzen baitziran; eta Espaiña eta Frantziaren arteko gerrak mugaz andikoei onera etortzea galerazi zienean, an jaso zuten Ainhoako kaperera, Arantzazuko Amaren izenean. Arantzazu-ordea, Arantzazu txiki bat eraiki zuten Lapurdin. Kalbario-kutsua izan da Arantzazuko Santuarioaren berezitasun berarizkoa; kalbariotasun hori garbi ateratzen baita erromantzeetatik, eta bai Ainhoako kaperatik ere (Ikus 97 eta urrengo orrialdeak). Arantzazuko Ama euskaldun guztien Ama ta Zaindaria den ezkerro, Gipuzkoako Zaindaria bezala izendatze horrekin gutxitu eta urritu egin zitzaion

Zaindaritza (Ikus 218 orr.). Labor: ona emen zer izan den eta zer den Arantzazu, Aita Mitxelenaren begitan:

“Jaungoikoagana igotzeko Euskalerriak daukan Mendi Santua. Orixe degu Arantzazu. Santu izandako Erri baten iraupenerako, Ama-semeen otoitz-lekua” (Ikus 249 orr.).

Eta guzti hori kondairatik, eta batez ere erromantzeetatik atera du berak.

Arantzazu, zeruak paratua izan da Euskalerriarentzat. Hargatik, noski, bi biak, Euskalerra eta Arantzazu, bata besteakin lotu eta uztarturik ibilli dira beti. Euskalerra zaharraren urrezko mendeak berebat izan dira Arantzazuren jasoaldiko urteak. Eta Euskalerra zaharrak lur jo zuenean (karlisten lehenbiziko gerratean), orduantxe ondatu zan Arantzazu ere (1834 urtean, liberalek su emanda). (Ikus 199 orr.).

Konparazio eta burujope hoezaz nahi duzuna pentsa dezakezu, baiña buru ta bihotzez egindako liburu da, iñolaz ere.

Itzaurretxoan esaten digu egilleak nola behar luken titulua kondaira honek: “Guzion Ama edo Arantzazuko kondairaren euskal-sentidua, elezarrak lagun” (11 orrialdean). Argi asko azaltzen zaigu itz hoetan liburuaren muiña, tesisa, eta tesis horren iturburu nagusia: erromantzeak, Arantzazuri buruzko kanta zaharrak. Titulu hori luzetxo zela ta, beste hau ipiñi zion liburuari: “Ama-Semeak Arantzazuko Kondairan”.

Arantzazuko erromantze-liburu

Erromantzei buruz liburu berezi bat ere agintzen digu (103 orr.). Izan ere A. Mitxelenak ba zuen Arantzazuri buruzko erromantzeen gaiñean liburu bat egiteko asmoa. Ez asmoa bakarrik. Emendik Ameriketara joan zenean ia bukatua zeukala ustedut. Gogoan dut gaiñera nola Donostian konferentzia bat eman zuen gai hortaz. Itzaldi horren berri labor bat eman nuen nik

Arantzazuko illerokoan (Ikus "Aránzazu", 1954, 252-255). Zer egin da liburu hortaz? Ez dakit. Zirriborro batzuk emen utzi zituen. Baiña liburu orraztua eta amaitua, seguru asko Cuban dago. Bahía de Cochinosko ondamena gertatu zenean, Aita Mitxelena Cuban zan. Etxe partikular batean egon omen zan gordea. Andik gutxi irten zan Cubatik, ainbeste gauza bertan utzita, eta geroago bihurtuko zelakoan, baiña ez zan gehiago ara joan.

Aita Arrutiri zion jaiera

Aita Antonio Arruti olerkariari (1882-1919) berarizko jaiera ta benerazioa zion gure Salbatorek. Biak erri batekoak, biak pran-tziskotarrak, eta hura il zen urtean bera jaioa izan. Jainkoak haren bideari eltzeko eta haren lana osatzeko agindu balio bezalako fedearekin bizi izandu zan Mitxelena. Haren olerkiak, sakabana-turik dauden aldizkarietatik atera eta beroiekin bilduma bat egi-teko asmoa ere ba zuen, baiña asmo hori ez zuen sekula burutu. "Ama-Semeak" liburuan, alere, laudorio ta agur mamitsu bat es-keintzen dio (174 orr.).

Idaztankera

Ama-Semeak liburuakin ari naiz. Beronen idaztankera bizi-bizia da. Bizia eta bizkorra. Txairoa eta apaiña. Zorrotza. Sar-korra. Errikoia eta jatorra. Gauzak labur, artez eta trinko daki esaten. Alako barne indar batekin. Erri euskeraren guna eta gozoa oso menderatua eta beretakotua baitzuen Mitxelenak. Gaurko gi-puzkera arrunta darabil, iñoiz or-emengo itzen batzuk sartuaz. Esate baterako, Gernika aldeko (*Arrapaladan*" behin baiño gehia-gotan erabiltzen du liburuan (adibidez 143 orr.). Alako bero bat, gar bizi bat dario liburuari, maitagarri egiten zaizuna.

Bizkai-aldeko itzak aipatu ditudan ezkerero, ona emen beste batzuk: jaramon (223 orr.), ondakin (213 orr.), mendu (163 orr.), pralleki (65 orr.).

Bere idazkeraren berezitasun batzuk aipatzekotan, onako bi aukerak aipatuko nituzke: relatibodun imperfektuetan marratxoa edo gioia jarri ohi du beti; irakurleari laguntzeko, noski. Ala nola: “bear ziran- baimenak” (202 orr.); “arrapatzen zuten- guzia” (188 orr.). Idazkera molde horrek imperfektuak relatibua gorde-rik daukala abisatzen dio irakurleari. Eta beste berezitasun bat: aditz-forma alokutibuak maiz erabiltzen ditu: horrek ere izkerari astuntasuna kendu ta alako bizitasun bat eman ohi dio. Ona emen adibide batzuk: “asia zizun” (205 orr.), “ipiñi zizun” (63 orr.), “genizkizun” (69 orr.), “jaunartuko dizu” (108 orr.), “dizu ta zizun” (132 orr.), “mutua zenun” (142 orr.), “aski gallendua nizun” (145 orr.), t. a.

Utsak eta akatsak?

Dena behar da ta, hortaz ere esan beharko dugu zer bait. Egia esan, oso gutxi aurkitu dut nik. *-tzaz* gezur-atzizkia erabiltzen du; uste dut atzizki hau gure mendeko asmazioa dela, eta alperriko asmazioa. Ikus 61 orr.: Portziunkulatzaz, Arantzazukoazaz. Baita ere 135 orr.: Arantzazutzaz. “Ederrazaz gañera” (169 orr.).

Eritzi aditzak, jator erabiltzen denean, ba du bere errejimen berezia datibuarekin; Mitxelenak, liburu hontan, batzuetan oso jator erabiltzen du; beste batzuetan ez ainbeste. Ona emen adibide batzuk: “zeritzan senarrak” (142 orr.). “Arantzazu deritza erri batek” (156 orr.). Beste pasarte hau, berriz, jator eratua dago: “Ze derizkiozu gure Santutegiari?” (248 orr.).

Etorri aditzaren imperatibua batzuetan “ator” jartzen du (75 orr.), eta beste batzuetan “atoz” (108 orr.): hau da, noski, jatorra.

Iñoiz “bakoitzan”, “bakoitzean” jarri beharrean idazten du, baiña bertotan ari dela (263 orr.).

Antziñako erromesek Beneritari (Arantzazuko elizkizun jakin eta ezagun honi, alegia) *Salbeta* deitzen ziotela dio (Ikus 105 eta 108 orr.). Baiña nundik atera du hori? Arako kanta-zahar hartatik: “Salbetarako elduko ote naiz?” Baiña *Mezatarako* ere esan ohi dugu, Euskalerriko zenbait partetan behintzat; eta hargatik izen soilla ez da Mezata, Meza baizik.

Adizkera gutxi batzuk ba ditu sintetiko erara jokatuak, erriak ala ez erabilliarren, baiña gutxi dira: “zesaidan” (238 orr.), “darantzu”, “darakus” (249), ta horren antzeko bat edo beste.

Apezpiku itzak “obispo” esan nahi du, noski, baiña behin behintzat erabiltzen du beste esanahi batekin (215). “Párroco”, “cura”, “arcipreste” edo olako zerbait, kontestua an galdetzen duenez.

Izkuntza alde batera utzirik, eta mamiari begiratuaz, liburua otz otzean artuaz, ba ditu noski bada ezpadako gauzak, ain zeatzak ez direnak. Eta egi egiak ez direnak ere bai, behar bada. Esate baterako, erdalkeriaren gaitza ez zela Euskalerrian ta ezta Arantzazun ere ezagutu karlisten lehenbiziko gerratera arte: “ordurarte ezagun gabeko gaitza” (200 orr.; ikus, gaiñera, 224 eta 229 orr.). Gure antziñaren berri zerbait dakianak ba daki hori ez dela egia.

Prantziskotar euskal idazleak denak Arantzazukoak balira bezala sartzen ditu (171 orr. ta urrengoak), baiña denak ez dira Arantzazun bizi izan, ezta gehienak ere.

Aita Mitxelena bere ere ez zan Arantzazun asko bizi izan. Karrerako urte batzuetan bakarrik. Iñoiz agertu batzuk onera egiten bazituen ere. Horregatik bertako ipi-apak ez zituen gehiegi ezagutu. Zurkrutz eta Burdinkrutz nun dauden kokatuak ez du zuzen ta zeatz jartzen (52 orr.). Zeaztasun gutxiarekin esandako beste zenbait gauza ere ba ditu. Baiña jakin behar da liburua presaka egin behar izan zuela, *arrapaladan*, eta ez da arritzekoa.

Eman dezaiogun orain gain-begiratu bat liburuaren egiturari. Erabateko batasun arrigarria du buru batetik besteraño. Aria zuzen eramaten daki bere xedera. Ongi asmatu ta ederki zertua dela ezin ukatu. Amabi kapitulutan dago banatua. Hoetaz gaiñera ba du itzaurre bat eta azken bukaera.

Lehenbiziko kapituluan Arantzazuko Ama Birjiñaren agertzea nola gertatu zen xotil eta bakunki kontatzen du, hauxe baita Arantzazuko gertaera nagusia eta hortan baitago geroko gertakizunen sustraia ta asiera (Ikus 20 orr.).

Bigarreanean gertaera nagusi horren garaiaz ari da. Garaia ere alakoxea izandu baitzan, aukerakoena, aproposena. Euskalerria jauntxoan buruketan zebillenean. Baiña jauntxokeriak gaintitu, askatasuna, anaitasuna ta kristautasuna sendotu, Erdi-Aroko jentilkerien ondarrak betiko uxatu eta bere urrezko arora esnatu zan orduan gure erria. Orduan ditugu gure Santuak, gure itxasgizon famatuak. Loyola, Xabier, San Martin, Elkano, Legazpi, t. a.

Irugarrena, zeruak aukeratutako tokiaz ari da. Nun, eta Arantzazun. Euskalerraren bihotz-bihotzean eta erdi-erdian. Bai Gipuzkoatik, bai Araba eta Naparroa eta Bizkaitik gertu, denona izan zedin, Euskalerriko Ama Zaindariaren etxea izan zedin.

Laugarren kapituluan nola prantziskotarrak erne ta sortu ziren Arantzazun kontatzen zaigu. Lehen urteetako gora beherak: aurrenik serora batzuk egondu ziran, gero Merzedarioak, gero Aita San Frantziskoren Irugarrendarrak bertan erne ziran, gero Dominikoak, eta azkenik Prantziskotarrak.

Bostgarrenean Arantzazun mendez mende ezagutu diren ermita, komentu eta elizen berri ematen da. Lehenbiziko ermita eta serorategia. Gero eliza, ermita barruan zuela. 1553-ko sua. Komentu berria. Elizaren auditzea, XVII gn. mende asieran. Imañña aldare nagusira aldatzen. 1622 gn. urtean sua berriz ere.

Seigarren kapitulua dena osorik antziñako erromeriak kontatzeko. Lapurditik zetozen erromesak. Ainhoako kapera, t. a.

Zazpigarrenean Arantzazuko gau-bijilien berri ematen da. Bai kapitulu hontan eta bai aurrekoan ere kanta zaharren puxka asko sartzen ditu. Arantzazun egiten diren aitortzak eta jaunartzeak. Eta emen sartzen du Aita San Iñazioaren Arantzazura etortzea ere.

Zortzigarrenari "Mirariak eta Mesedeak" deritzaio. Ama Birjiñak egindako mirari eta mesede batzuk kontatzen ditu, egilleari berari egin dizkionak ixildu gabe (145 orr.).

Bederatzigarrenak "Mendi Santuko Dirdaiak" du izenburu. Bertan kontatzen da Arantzazuko Amaren jaierak atzerrietan izan duen edadura. Antziñako kofradia famatua, eta gaur nola berriztatu behar litzaken (164 orr.). Arantzazuko elizkizunen ederra, abeslariak, euskal idazleak, t. a.

Amargarren kapitulari "Gainbera" deritza. Bat batean Euskalerrriak lur jotzen du, eta Arantzazuk ere bai. 1834 gn. urtean su ematen diote liberalek Arantzazuri. Orra dena desegiña eta prailleak sakabanatuak. An bukatu zan betiko Arantzazuren antziña ederra.

Amaikagarren kapituluak "Koroazioa ta Zaindaritza" du titulu. Pixkaka pixkaka asi zan Arantzazu berriz ere burua ailtxatzen, ahal zuen moduan. Koroazioa (1886) ta Zaindaritza (1918) dira buru-ailtxatze horren seiñale nagusiak. Baiña Zaindaritza honek alako tristura bat ematen dio berari, Arantzazuko Ama ezpaita Gipuzkoako Zaindaria bakarrik, euskaldun denena baizik (218 orr.).

Azkeneko kapitulari "Gaurko Arantzazu" deritzaio. Gure egunetan gertatu diren aurrerapenak, gaurko erromeriak, Arantzazun egiten diren lanak t. a. aipatzen dira.

Orra liburuaren muiña azaldua, pixka bat gaiñetik bada ere. Kondaira bezala ere ez dago batere gaizki. Albitez ta xehetasunez ongi ornitua baitator. Baiña kondaira utsa ta xoilla baiño zerbait

gehiago izan nahi du: Arantzazuko kondiraren filosofia, edo zerbait olako. Arantzazu zer izan den ta zer den Euskalerrarentzat adieraztera dijoa. Kondairagille utsak eguneko txikikeria ta ipi-apaguzien oianean galdurik ibiltzen dira. Arbolak ikusten dituzu, baiña ez oiana bere osotasunean. Mitxelena ez da hoietakoa. Gaindegitik artzen du hark Arantzazu. Txikikeritan gehiegi sartu gabe zuzen dijoa bere elburura: Arantzazu gure erriarentzat zer den agertzera. Itzaurrean aitortzen dizu berak hori: sasitan katiatu gabe ibilli nahi du. Gaillurrik gaillur (12 orr.).

Nik esango nuke Aita Mitxelenak bere euskal amodioa, beste iñun ezin da, emen, Arantzazun, kokatu zuela. Beste irteerarik aurkitzen ez, eta emen usttu ta ixuri zuela oso osorik. Honekin ez dut esan nahi Arantzazu aitzaki bat bakarrik dela harentzat. Ez. Haren Arantzazu-zalea ta euskal amodioa, bi biak ezkondurik eta bat egiñik agiri dira liburuan.

Itz eta esakeren zerrenda

Bukatzeko, irakurraldi arin batean andik jaso ditudan itz eta esakeren zerrenda bat jarriko dugu. Egoki esanak edo berri antzekoak, tajuz asmatuak edo zerbaitegatik nabarmen direlako apuntatu ditut. Gehienetan itzak ez dira ezezagunak, baiña, egillearen burutapena azaltzeko bai egoki autatuak. Egokitasun hori neurtzeko, ordea, pasartera jo beharra dago.

Asmotatu = proyectar, discurrir (66 orr.)

Beñola (ordun) (66, 215 orr.)

Arrixkatu = arriesgarse, exponerse a peligros (148 orr.)

Gaurko uster = según la mentalidad actual (46 orr.)

Kulpatu = imputar como culpa (74)

Estaldura = cobertizo, cubierta (76)

Jakin-paperak = documentos, fuentes de información (77)

Bakartegi = eremitorio (82)

- Santutegi* = santuario (83)
- Erroiztu* = derribar, destruir (83)
- Aitortzalle* (eta ez aitorle) = confesor (84, 121)
- Eragingai* = motivo, causa que impulsa a obrar (93)
- Jardurio* = conversión, charla (112, 234)
- Eregi* = edificar, construir (125, 155)
- Euldu* = tejer (?) (125)
- Auspotu* = ponderar (?) (134)
- Askirik gabe* = sin tener nunca bastante, sin decir basta (134)
- Jende aurkia* = gente baja o de humilde condición, sencilla (141, 229)
- Toles* = pliegue (159)
- Galtzara* = calzada (161)
- Zorduru* = pechero (161)
- Billau* = villano (162)
- Giñoan* = en la proporción (164)
- Asmatzalle* = compositor (de música) (167)
- Pralledi* = comunidad de frailes (201)
- Lengotasun* = ascendencia, entronque en el pasado (201)
- Zabali* = *zabaldu* (201)
- Aztatu* = pesar, calcular, medir (201)
- Biotz-pilpira* = emoción (201)
- Gabetasun* = inopia, miseria (202)
- Lendakari* = gobernador (?) (202)
- Burutapen bakoitzari ekiten zion zertzero* = Se aplicaba a realizar cada ocurrencia o pensamiento (207)
- Amildegi* = barranco (210). Arantzazun ots andikoa ta ezin utzizkoa dugu "barrancoa". Bertako baserritarrek arrua deitzen diote.
- Jende ozte* = muchedumbre (210)
- Aundi-maundiak* = detalles (211)
- Ondakiñetan* = en ruinas (213)

- Indarrola* = central eléctrica (213)
Obekuntza = mejoría (214)
Barrundatu = profundizar (226)
Erdi-Aro = Edad Media (226)
Jakin-iturri = fuente de información (227)
Asmobideak = iniciativas, consignas (227)
Isitsu = insistente, tenaz (?) (227)
Idea-eguzki = idea central, idea sol (226)
Aizpadi = conjunto de hermanas (234)
Binbitarte = intervalo (237)
Oroiña = nostalgia (239)
Pilpiratu = suscitar conmoviendo (239)
Liper = insignificante, pequeño (239)
Ezin kabitua gerta zitzaien = llegaron a no haber, vino a resultar insuficiente para contener a sus moradores (240)
Eder-taju = aspecto bello (240)
Kabiera = cabida (242)
Ikuskai = espectáculo (243)
Agerkunde = manifestación, característica (243)
Erromeri jendetsuenak = las peregrinaciones más numerosas (245)
Bakoizkeriak = personalismos (247)
Orrenbeste aundiko = de tal magnitud (248)
Tinkatu = fijarse, inmovilizarse (253)
Gaiztoz = malevolamente (254)
Ainbesteko egikizunari ekin = emprender una empresa de tal envergadura (255)
Albistatu = informar (255)
Diñezko = digno (255)
Oztopo batek jan zizkion egoak asmoari = un obstáculo cortó las alas al proyecto (255)

- Bultzada zernaitarako* = impulso universal, apoyo incondicional (257)
Komententzi = adelantos, progresos (257)
Tamaña = formato, volumen (257, 259)
Len-arau = anteproyecto (258)
Maxialari = murmurador, crítico (258)
Gezakeri = sosada (259)
Erasana = afectado (260)
Antziña = el pasado, la antigüedad (261)
Gogatsu = entusiasta (261)
Len seme = primogénito (261)
Arroki = con orgullo (261)
Mamitu = plasmar (263).

Aita Luis Villasante
1967

MITXELENAREN ARGITARATUGABEKO LANAK

Joan Mari Torrealdayk

“Amodiorik ez duenak / ez du miñik biotzean”, dio kanta zaharrak. Baina bihotza mindurik daukanean, zer egingo du Salbatorek?: “Zein ederra dan / olerkaritza / biotzak min duanean”. Batez ere olerkiari ekingo dio Mitxelenak, bere barruko bihotz asaldatu hori baretzeko: hor dituzu “Arraun ta amets”, “ARAN-TZAZU euskal poema”, “Arantzazuko Ogei Kanta”; hor bila ditzakezu haren sentierak eta bihozkadak, haren poz-min, desespe-razio, gogai, esperantza, kezka, samin, bildur, axola, gurari eta ametsak. Baina poesiatik kanpo ere ba ditu zenbait lan nagusi: “AMA-SEMEAK Arantzazuko kondairan”, “Unamuno ta Abendats”.

Halere, Salbatoreren bihotza bero eta bere burua argi ikusi nahi badituzu, azter itzazu oraingoz argia ikusi ez duten gainontzeko lanak. “Aberriak min dit”, “Bizi Nai”, “Guruzbidea”, poesian; eta hitz-lauz: “Aboz-abo”, “Erri bat guruzbidean”, “Confixus”.

Eta, beharbada (kritiko ez naizen honek zalantzan utzi behar iritzia) Salbatoreren lanik hoberena, argitaratu gabekoa duzu. Salbatore bera, gorputz eta anima, ezagutzeko eta haren garaiari pul-tsoa hartzeko, ez da dudarik, ezkutuko obra honetan murgildu behar duzu.

Nere asmoa, irakurle, ilunpetako obra honen berri ematea duzu. Ez dakit asmatuko dudan. Saiatu naiz bere obra ezagutzen. Eta luzaro pentsatu ondoren, erabaki dut, alegia, obra bakoitzaren berri zehatza eman beharrean, hobe nuela lan bakoitzeko ideia-lerro nagusiak aztertu. Bide zaila hautatu dut. Aldapa horietan arnasa-estuka eta izerdi-patsetan ere ikus nazakezu, ba dakit. Baina aldaparen nekeak, gailurraren atsedena eta eguzkia dakarzke. Atsedena, nere kontura: izango dut, bai, lana bukatutakoan. Eguzkia, zuri opa dizut, alegia, Salvatore Mitxelenaren buru-bihotzak ezagut ditzazula.

Har nazazu, irakurle, itsu-makilatzat.

ABERRIAK MIN DIT...

1937-garrenetik 1943-garreneira bitarterainoko lanak bildu ditu sorta honetan Salvatorek.

Gaztezaroko lanak dira. Bai gaiaren aldetik eta bai euskararenetik ezagun da hasten zegoela. Gaia, oraindik, ez du menderatu, baina seme hau ere sasiko ez dela igarri dezaiokezu, geroko lerro nagusiak aise nabari bait ditezke. Idaztankera, nahiko zakarra da, gero oso berea duen frasearen doinu eta leuntasun hori ez da ageri, noizbehinka ez bada. Hizkuntzaren aldetik, artean, garbizale da. Garbizalekeria hau laister uxatuko du, liburu honetan bertan. Horrialde guziak zuzenketaz beterik dituzu. Mitxelenak ez du askirik. Eta zuzenketa guziek, erreztasun eta herri aldera joko dute. Adibide batzuk: donokia = zerua; gentza = pake; oldoztu = pentsatu; ukar = limosna... Hauek eta beste mila.

15 bat lanek osatzen dute liburua, gehienak poesiak.

Salvatoreren euskalminak ez du nun aserik. Gerra ostea da. Obra honetan bere aldiaren eta giroaren lekuko paregabea duzu Salvatore. Perspektiba faltaz agian, baina errealidadea gertutik ikutuz eta arbola fruituetatik ezagutuz, geure historia lekuko ja-

rriaz, duda-puntarik gabe idatziko du hobe dela bakerik txarrena gudarik onena baino.

Mitxelaren bihotzmina nork sendatu? Eta nola sendatuko, hiltzearen ikusten bait du bere Herria?: “Euskalerrik gaurdaño zerakuzkian enderritasunak mara-mara urritzen doazkigu, maxkal-tzen, aitzen. Zenbait izakera ta berezitasun malgutzea besterik ez bailitz...! Biar, zorigaitzeenean ordea, betiko ilda ikus dakus-kegu, agian”.

Bihar, zorigaitzeenean, hilik ikus zezakean herria, bai. Eta bihar, zorioberean, Lazaroren miraria berri zitekean. Espe-rantza honi beti eutsi dio Salbatorek. Hasieran, zorian-urte hori, 1943-gna zen. “Ingalaterrak-eta garaipidea artu dutenetik, bayetz uste degu. Ala biz”. Eta aliaduen garaipenak gertatu ziren. Eta iragan ziren. Eta usoa, olibo-ostoa mokoan, ez zen azaltzen Euskal Herrira. Itxaron-urte hori luzatu egingo da, betikotu, espirituali-zatu. Gertakizuna zedila nahi zena, logika eta helburu bihurtuko da. Eta eboluzio hau hobeki konpreni dezazun oharrazi nahi di-zut, 1943-gn. urte horretan eratuko duela lehenengoz Guruzbidea, Biztuera eta guzti. Ostiral Santu ostean, Bazko, ezta?

Agirretxe garaikideak aitortzen du “mistika mesianista” bat ba zela garai hartan, beren artean. Ez da harritzekoa. Giroa gain-ditu beharra zuten nolabait.

Nola ikusten zuen, giro horren barruan, Euskal Herria Salba-torek? Biluzik, herritasunik gabe, erdalkeria nagusi, sakabanatua; eredu zen herria, orain ondakin bihurtu-arazia. BIZI NAI-an egingo duen oiua, garratza da: “Gure erritasunaren / ezaugarri oro / agur sekulako!”

“Adio!” da oraingoan bere hitza, hainbeste edertasun ikusten ditu maxkaldurik. Dena ari da baztertzen, zabartzen, aitzen eta galtzen... “Orra Euskalerria zertaratu den!”

“Ilko ote? Baietzean dira pozez zoratuta, kaleko zenbait dea-darkari”. Azaldu da kalea. Laister agertuko da baserria.

Salbatoreren ustez, kalean ez da girorik. Kaleko “zibilizatu-
tuen” artean, euskerarekin datorren euskaldunak arrotz ikusten du
bere burua. Arrotz eta zapuztua.

“Baserritarra kalera
au ta ori eroatera.

—“Egunon Jaunak. Aspaldi partez
emen natortzu ostera”.

Kalean, baña, ezpain gorriek
lotsa mintzaten euskera.

Ta dendariak:

—“Izketa orrekin
zoaz zeure basartera”.

.....

“Uxo zuria, errazu,
nondik ibilli zera zu?

Kaleetako portu-ateak
izotzak itxi dizkitzu?

Beak utzita, baserritarra
deitu bear izan dezu?

Gaixoa!, sartu zakigu,
pozik artuko zaitugu.

Beste iñun ez-ta, mendateetan
billa bear zuk ostatu!”

(BIZI NAI)

Egia esan behar baldin badizut, aurrenekoz poesia hauek ira-
kurri nituanean, ez zitzaizkidan atsegin izan. Rikardo Arregik
salatu zuen “jatorrismoa” ez ote du aupatzen, oraingoan, Salba-
torek? —pensatu nuen nere kolkorako. Alegia, euskaldun jatorra
zein da?, Mitxelenaren iritzian, baserritarra? Euskal giroa eta
baserri-giroa bat ditezke? Hemendik folklokeriara pausu erdi
dago, ez ahaztu. Eta Mitxelenak folklokeria gogorki gaitzestuko

du. Horregatik, ez dut uste Salvatore “jator” iritzi horretan sar ditekunik.

Hitz beraiek erabili arren harek eta guk, arazoak bestelakoak dira.

Gure eginkizuna, gaur, euskera kaletartzea da, “zibilizatzea”, euskera eta kultura, bake santuan, betirako ezkontzea. Euskerak irauraraztea nahi baldin badugu, euskera kalera ere (eta baitipat kalera!) ekarri behar dugu: “Euskara, ialgi adi plazara”, bai.

Baina Mitxelenaren garaiean, giroa arras gaiztotua zen. Kristauki mintzatu behar zen kale izoztuan, euskerak ez zuen inolaz ere lekurik. Salbatu egin behar zen, halere. Baserriko sukalde goxora bildu beharko. Mitxelenaren iritzian, usoa, behartuta joango da mendira, ez borondatez. “Aberriak min dit...” obra honetan, euskera baserrira ihesi dioa, azken arnasa han emateko. Eta euskeraren atzetik, oitura, musika, elizkoitasun eta euskal jakintza. Baina geroko BIZI NAI-an ba da eboluzio bat: ostatu bila joango da euskera baserrira, kalean beroak noiz joko dagola.

Eguzkiak jo du, izotza urtu da, etorri da euskera kaletartzeko eguna. Ongi etorria eman iozu; Mitxelenak, biziko balitz, emango liokean bezala.

ABOZ - ABO

Arantzazuko kanta zaharrak
(folklore lana)

Eskuartearen dudaren prosa-lan hau, gazte zelarik (25 urte) egin zuen. Bere aspaldiagoko asmoa hezuramaitzen zuen honekin.

Lan hau ez dago burutua. Jakin dudanez, azken orraztapena —argia ikusi behar zuen hura— Cuban dago. Handik, gogoz kontra, atera zenean, laister itzuliko zen ustetan, etxe baten gorderik utzi omen zuen. Gaur arte. Gure zoritxarrerako ez dago oraingoz eskuratzerik.

Honoko hau eskuz idatzia hartu dut, eta ez da aise hitz guztiak zuzen asmatzea, ez eta —horrien trukitzeagatik— ordenua beti ziur jakitea. Ez nuke, esandakoarekin, nere burua zuritu nahi.

Dagon dagonean, idazmakinan eginik, 33 folio ditu lanak.

ABOZ-ABOZ honetan bi asmo nagusi darabizki burutan Salvatorek. Bata, euskal elertiaren bitxitasuna erakustea. Eta bigarrena, antzinako Arantzazuren handitasuna eta euskaldunen betiko Arantzazuzaleatasuna begien bistan jartzea.

Kopla zaharretan eta erromantzetan kokatu da, gehienbat, herriaren kontzientzia. Sinesturik dago Salvatore. “Ayen gogapenak, ayen sinismena, ayen biozkadak, nai genituzke jakin, xurgatu eta ausnartu...” Herri baten bizitza barrunbetik ezagutzeko, J. M. Barandiaranekin pentsatzen du hobe dela mintzozko literatura aztertzea, kronika eta jakin-paper asko baino.

Herri-literaturan konbertitu bat, bihurtu bat, duzu Salvatore. Bere eskuetara zenbait erromantzen “letra zentzubako” haiek, lehendabizikoz, heldu zitzaizkionean, aitortzen du, ez omen zien deus axolagarriarik arkitu, doinuen liraintasuna aparte. “Gerora, Imanol Lekuonaren ‘Literatura oral euskérica’-k piztuta, maitasuna ta begikoa artu nien erri-kopla txepelenai ere. Eta ordun, apal bazterreko ‘pilloaz’ oroitu nintzanean eta bigarren begiratua eman nienean, irripar goxoarekin maitasun-arrera beroena para nion nere baitan. Begitan bezela biotz-labeen nerabilzkiala, erri-poesi baliotsuak irudituz zitzaizkidan, ordura arte nik egin nituanen aldean esan-nai luzekoak, zoragarriak”.

Kinka inportantea da kontzientzia-hartze hau bere bizitzan. Gazteagoko bere idazlanak ezagutuz gero, garbi antzeman zenezake aldea. Aurtzarotik bere baitan lotan zekarren bertso-joera, orain jarriko zaio egin ahalean. Bere bidea idoro du. Eta hau den hau korrontaren kontra. Ezezaguna bezain jakingarri litzake Salvatorek hautatutako bideak, gerora begira, izan duen influentzia.

Aurkikunde zoragarri bat egin duen bilatzailearen poza eta

euforia du Salbatorek. Salaberriarekin ere sartuko da. Euskal Herria herri mutua dela? Ez-jakinkeria sementa da Salaberriaren iritzi hori. Eta Salaberriak bezalatsu pentsatzen dute beste euskaltzale askok ere, dio Salbatorek. Horregatik, ezezagunak diren erromantze horiek, berandu orduko, bilatu, aztertu eta argitaratu egin behar lituzke norbaitek.

Erromantzei buruz Salbatoreren asmoa, Arantzazu gaitzat hartzen duten horiek bakarrik txukuntzea eta irozkinak jartzea da. Kritiko lana egiten du. Halere, nago, noizbehinka, nahari zientziari baino leku gehiago ez ote dion ematen.

Bigarren puntua, Arantzazuzaletasuna da. Herriarena eta Mitxelena.

1942-1944 bitartean erretzen dela Salbatoreren Arantzazuzaletasuna aipatzen du, bere lanean, Villasantek. Zergatik sor zizaiotzeko?

1) "Arantzazura ustean eta/Kalbariora bidean" ikusi zuen Salbatorek euskal jendea. Erromeriak Arantzazura, urte haietan, ugalduz-ugarituz dioaz. Erromes ezandiki horiengan kokatuko du Salbatorek bere bizi-nahi bortitza.

2) Esan bezala, M. Lekuonaren "Literatura oral euskérica" irakurririk, desbaliaturik zeuzkan erromantzeak haintzat hartzen ditu.

3) Eta Arantzazuko liburutegiaren ilunpean zeuden Lizarralderen Arantzazuko kondaira eta harek inguratutako kanta zaharrak ezagutzeko zoria izan zuen sasoi hartantxe.

Kanta zaharrok bizkortu zioten asmamena. Jentil aroa —eta euskal fede guzia— iruditzen zaio Arantzazura datorrela, aldapan gora. Mari Gaiztok lan eginagatik, Andre Mari irabazian aterako da betiere. Horregatik du herriak betidanik Arantzazu joera, han aurkituko bait du babesleku, salbabide, eustaile. Han eguzkia eta argia. "Opa / ta / topa / Gure edestiak / bear zun ama idoro du".

Arantzazuk ba du halako usain aparteko bat. Sinbolu bilakatu da. Arantzazu euskaldunena da. "Confixus" draman, "Arantzazu" izena aipatu danerako, asarre bizian jarri da Komisarioa. Zergatik ez Pilar?, galdetuko du. Arantzazura, dio nunbaiten Mitxelenak, ongi nahiak baino areago bizi nahiak dakar jendea. Frase honexek gordetzen du, agian, Mitxelenaren Arantzazuzaletasunaren giltza.

Arantzazu, gainera, euskaldun guziena da, ez Guipuzkoakoa bakarrik. Arantzazura datoz euskaldun guziak, "ajokik gabe frontetaz...". Eta Arantzazuk anaitu egiten ditu: "zazpi erkiok anai geranentz / ez galde beste ezerrri: / Arantzazuko bideak daki / Erri bat dala Euskalerrri".

Salbatorek ba du orraitio euskaldungoaren kontzienzia.

BIZI NAI

BIZI NAI argitaratutzat jo behar ote dugu? Ez? Arrazoia erdizka banandu dezaiegun bietara uste dutenei. Bietara har dezaiegun diot, alegia, inprentan aterea ba dagoelako, baina ez behar zuen moduan eta lekuan.

Esplika nadin. BIZI NAI Euzko Gogoia aldizkarian argitaratua ikus zenezake, aldizkari berak sortutako saria irabazi ondoren. (Euzko Gogoia, 1955-gngo orrilla-lotazilla; 66-75 horrialdeak.)

BIZI NAI-aren lekua, oster, ez da hori. "ARANTZAZU euskal poema"-ren hirugarren zatia duzu. Ez da dudarik, gainera, poemaren oro-tankerak eskatzen duela.

Baina garai harteko giroari bildur, Salbatore ez da argitaratzen ausartuko. Gerorako utziko du, eta gero hori oraindik ez da etorri. Axularrena: "zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak..." Euzko Gogoia-ren norgehiagoka hura irabazi ondoren, Andima Ibinagabeitiak argitaratuko ziola pentsatzen zuen. Ha-

rengandik aurrerapiderik ikusi ez zuenean abiatuko da bera, bildur-zalantzak astinduz —hala dio—, bere adiskideak bultzaturik plazara ateratzeko asmotan. Baina hurbilagotik begiraturik, adar zorrotz handiegiak ikusi dizkio zezenari, oraingoan ere. Eta BIZI NAI hori, bere bizi-gura eta argi-nahi guztiarekin, hor dago ilunpetan.

Esan bezala, BIZI NAI “ARANTZAZU”-ren hirugarren atala da. Nerekiko, atalik hoberena, lortuena, helduena, biribilena. Eta Ibar-entzat, “poemaren saillik deigarriena”. Baietz pentsatzen dut.

Sarrera irakur zazu. Ahalegin handia egin izan behar duela, aitortzen dizu Salbatorek, inori minik ez emateko. Karlsten gerratean tinkatuko du horregatixe, baina “gaurko euskal sentipen larrienak antxe asabenekin kokatuz”.

Salbatoreren ahaleginaren arrazoia ba dakikezu. Oharkabea eta uste ez-eta ere mina ernarazteko arriskua zegoen lurlean, kontuz ibili beharra zeukan. “Politika” guztien azpitik eta alderdikeria guztien gaintik egon nahi du: euskaltasunari atxikiko zaio. Honetan ikusten du Salbatorek literaturaren eginkizuna ere: “Euskaldun ilzoriok gure gauzei ta pertsoneri zor diegun onginaia ta laguntza, ori baitipait erabilli eta auspotu bear dula gaurko literaturak, politika oroz gaintik, euskaltasunari eutsi nai badio. Batasuna billa ta ez alderdikeria”.

Mitxelena bizi duen Euskal Herria ondatua dago. “Keria” guziek “tasunei” partida eskutik irabazi die. Erdalkeriak euskaltasunari, alderdikeriak batasunari, eta abar luze bat... Hildakotzat dure askok Euskal Herria. Horregatik Salbatorek, jatorriz berea duen eta Unamunori ikasi dion bizi nahi hori sartu nahi dio herriari. Ez du bertanbehera utziko. Herriaren gidatzaile bat duzu Salbatore.

Lainoa eguzkiari nagusitu zaion arren, herriak lainopetik ihes egin nahi du. Aizkorri-gainera igo da behin Salbatore, eta

euskal lurrak lainoz estaliak ikusi ditu; mendi-gailurrak bakarrik laino itogarriaren gain eta eguzkiz jantzirik. Mendira jo beharko du, beraz, herriak lainoari ihes. Eta baitipat Arantzazura. Arantzazura erruz dioa euskal jendea, bizi nahiak bultzata. “Bizi nai du! Gaurregun Arantzazura erdaldunik gutxi doakizu, turista antzo ezpada. Ara digozen erromesak arrazaren ondakiñak dituzu: nekazari, arrantzale, langille-yende, ta olako ezandizkiak, oraindik euskeraz mintzatzen diranak, geienbat. Ta zer nai duzu?, aien aboan deadar orren, BIZI NAI orrek, negargura eman izan dit niri, ta poemagille sentiaraz niñun...”

Unamunori hitzak lapurtuz hasi denak, bilatu ditu bereak ere azkenerako:

“No quiero morirme, no; no quiero ni quiero ni quiero quererlo; quiero vivir siempre, siempre, siempre, y vivir yo, este pobre yo que me soy y me siento ser ahora y aquí, y por esto me tortura el problema de mi alma, de la mía propia.”

BIZI NAI-aren hasieran ezarrita ikus dezakezu Unamunoren pentsaera hau. Eta Unamunoren eskutik hasi da Salbatore al-dapa igotzen. Eta orain, gailurrez jabetu delarik, Unamuno utzi eta bere kasa erregutuko du Salbatorek:

“Arren, arren! Andra Mari, / Salba zaiguzu bizia!!, / Noeren arka izan guri!! / Ez utzi iltzen zure Erria!!”

BIZI NAI honetan —eta osterantzeko haren lan guzietan ere bai— Arantzazuren eta Euskal Herriaren zorikidetzaz eta paralelismoaz nabarmenki jabetu zindezke. Arantzazuren ilunabarra, Euskal Herriaren ilunabarra izango da; Arantzazuren urre-garaia, Euskal Herriarena. “Seaska berean ikusi zuten Egunsentia, alkarren eskutik Eguerdiko garaipidea, ta illunabarra yo ere aldare berean yo zuten”.

Baina ez dira zorikide soilik. Arantzazu sendagailu ere bazαιο Euskal Herriari. Mitxelenak bere-bere egin duen sintesi horretan, Arantzazu Euskal Herriaren sukalde da.

GURUZBIDEA

Funtsean, 1943-garrenan egina. “Aberriak min dit” liburuxkaren azken horrialdeetan arki dezakezu.

Gerora, Salbatorek, bere txukuntze joerari jarraituz, orraztu, zuzendu eta biribildu egin du. 1955-gn. urtean osatu duenean, asko irabazi du, ez da dudarik.

Laburra da oso. 8 folio. Guruzbidearen betiko hamalau egonaldiak eta Berpiztea, ametsa.

Egonaldi bakoitza bi atalok osatzen dute: lehenengoa, Kristoren nekaldiak; eta bestea, eusko saminaren zotinak.

Guruzbide hau —eta orobat Salbatoreren obra guzia— definitzen duen frase bat aipatu behar dizut, hobeki konpreni dezazun: “Besteak beste, niri Isaiarena eskatzen zidan barruak: gurutzeraz eraman duten Orren eriotza aldarrika”.

Salbatoreri urkamendia Golgota bihurtzen zaio. Bi planuok bateratzen ditu gehienetan. Maisua da bera olerkiari otoitza itsasten: “Zein ederra dan / olerkaritza / otoi biurtzen danean!”.

ERRI BAT GURUZBIDEAN eta CONFIXUS

Bi obra dira, esan dukezu. Ba du bakoitzak bere nortasuna, eta gorputza. Halere, biok batean aztertuko ditut. Gai bera dute. Eta jantzi berarekin datoz, hori bai bata “maxi”-rekin eta “mini”-rekin bestea. Esan nahi dut, “Erri bat Guruzbidean” dramak 64 folio ditu, eta “Confixus”-ek, 29. “Confixus” bestearen laburpena da. Biak, teatorako antolatutako dramak dituzu.

Noiz eginak? Hasierakoa “Erri bat Guruzbidean” duzu, 1940-55-58 urteetan zehar eratua. 1960-62 artean osatua “Confixus”.

Alde guztietarik ikusita ere, obra helduak dira biak. Estiloaren aldetik, sarkor, zorrotz, txukun, bizi eta leun. Euskera, pare-

gabea, erreza, herrikoia, hitz-jostura aberats eta jatorki asmatuak, hiztegi zabala (Gipuzkoatik landa ere hainbeste).

Esan dut drama gisa taxutuak direla, euskal animaren drama hain zuzen. Usario zahar baten gain muntatuak ditu. Kalbarioak herri txiki eta zokoan zokoan guztietan egin izan dira. Honoko hau, Guruzbide bizi horietakoa duzu, dena antzesturik. Han da mixiolaria, Arantzazukoa, dana antolatzen, herriaren gidari eta sentipen-azaltzaile. Joanes, Garoakoa —Euskal Herria, alegia—, izango da Gurutze-eramailea. Laguntzaile, bere bi seme, Inaki eta Pruden. Beste biak, Berriotxoa eta Xabier, halabeharturik, ez dira etorri ahal. Joanesen hiru alabak ere ez dira presente.

Guruzbidea ba doa aurrera, oroi eta otoi. Baina ba ahal dute, gero, horretarako baimenik? Komisarioak debekatu egingen du. Baina Guruzbideak Biztea du jomuga, eta ez du biderdian gelditzerik. Erori bai, etsi behin ere ez! Publikoaren eta agintedunaren arteko jokabideak gogortu dira. Nola faltako, bada, espetxeratzek eta heriotzak? Guruzbideko herria sakabanatuko dute, baina zer?, plazatik etxe-barnetara igaro da Euskal Anima. Interesgarriak dira Hamiltonen azken hitzak.

Euskaltasuna eta erlijioa eskutik estu-estu hartuta joango dira lan osoan. Bestalde, haren gainontzeko obra danetan ere, gutxi edo asko, ezkontza hau bera ikus dezakezu.

Ez da ezkontza hau batere gure gustokoa. Ez dut maite, ez da nere debozioko santua. Bi plano dira, ez dago bateratzerik. Zenbaitek ateismotzat jo zuten “Euskaltzaleen Jainkoa il behar dugu” artikulua hartan, Rikardo Arregik independentzia horixe besterik ez zuen defenditzen. Gaurko Teologiaren bidea, hori duzu. Izan ere, nork du kristianismuaren patentea? Nork Jainkoaren monopolioa? Euskaltzale izan behar ahal da horretarako? Eta kristau izan behar ahal da euskaltzale izateko? Hola gertatu dela aitortzea (historia), eta hola gertatu behar duela defenditzea (teologia), bi gauza dira, ez bat. Poeman Mitxelenak idatziko du: “Euskaldunik bat

dan bakoitzagan / an bada kristau pijo bat. / Kristautasunik ez duenak euskal / tasunik ere ez anbat”.

Berak “beste aldeko” buruz salatzen duen elkar-hartzeko kaltegarri berean erortzen da, kolore desberdinarekin bada ere.

Drama honek, honegatik, ba du holako oraingoeztasun bat; mundu hori ez dela gure senditzen dugu, ez denboraz (askorentzat) eta ez sentimenduz (askorentzat).

Euskal Agoniaren Guruzbidea dira “Erri bat Guruzbidean” eta “Confixus”. Agoniak, auleriaren eta hil-zoriaren gainetik ba du indar eta bizi nahi bat. Bizi nahi horixe, hots, azken mendeko euskal bizi nahiaren sentimendu trakijoa eman gura luke aditzera.

Itxurarekin ez da fio Salvatore. Azalergia zaio etsairik txarrena. Barnera, Animari, begira dezaiozula eskatzen dizu Salvatorek. Ez turistek antzo, gain jantziei. Festa jantzi beztitua baldin badago ere, Euskal Herriaren Animari ez da alaitasunik. Triste, ilun da (edo dago). Euskal Anima herritasunez biluzturik eta folklokeriaz jantzirik azalduko da, Jesus payaso-tunikaz bezalaxe. Garrazki salatuko ditu Salvatorek “romería vasca” direlakoak, buruxa eta abarkak, tabernetako ayurruntziak eta janedan-apostuak, radiotetako fandango eta “bilbainadak”... “Obe billotzik irau, arlotekeriz jantzirik baino!”.

Euskal Herria ezangutzu nahi badu, fotomakinari lana kendu eta linternari eman dezaiola erregutuko dio Hamilton estranjeru euskaltzaleari.

Aipatu berri dugun problematika hau bat-batean konprenitzeko, “Erri bat Guruzbidean” dramaren zati bat hautatzea baino hoberik ez zait ezer iruditzen. Interesgarritasuna labur-nahiari nagusituko ahal zaio!

— o —

MIXIOLARIAK: ...Interbiu bat zenion. Jakin-askuretan jarri nauzu oraintxe. Ta... askure onekin ez naiz asiko guruzpidean. Pixkat badare aurreratu bearko didazu zure asmoa.

- HAMILTONEK: Ara ba. Bi illabete ontan Euskalerrian nabilkizu, batera ta bestera, turista antzo, bazterrak eta azalmiak ezagutzen: parajeak, usarioak, folklorea, ertigintza... Apunterik galanki atera dut. Baita fotografiak ere. Ikusten.
- MIXIOLARIAK: Poliki poliki.
- HAMILTONEK: United Press'ekoek artikulu-errezka bat eskatu baididate Euskalerriri buruz. Artikulu oiez gaiñera liburu bat ere atera nai nuke gai orretantxe.
- MIXIOLARIAK: A ze mesede dagiguzuken.
- HAMILTONEK: Ta ara: Euskal Animaren ezaugarri jator jator bat nai nuke. Euskal drama jator jator bat. Opera batzuk aitatu dizkidate. Tituluak ementxe ditut. Bildur naiz, ordea, beren funtsa zero autoktono ote dan. Geienetanez musikaz eta ez textuz.
- MIXIO.—Ea zeintzuk?
- HAM.—(Blok bat irikiz eta bertan irakurriz) Guridiren “Amaya”... Usandizagaren “Mendi-mendiyan”... “Txanton Piperri”... “Mirentxu”...
- MIXI.—Ez daude gaizki. Andik edo emendik, oietzek ere Euskao-Gogoaren emaitz dira, ta ezaugarri. Ta Eskuderoren “Illeta”?
- HAM.—Baitare, izendatu didate. (Blokean irakurriaz) Ara emen. Patxi Eskuderoren “Illeta”.
- MIXI.—Nai litzake baietz! Aitatu dizkidazunetan, orixe duzu nere ustez jatorrena, sakonena.
- HAM.—Ainbeste? Tristeegia ez al derizkiozu? Euskalerrria alaia da gero, sendoa, osasuntsua, optimista.
- MIXI.—Sendoa ta osasuntsua baietz nioke. Ez orratio alaia. Ez barrutik beintzat.
- HAM.—Nola ez pa? “*Un peuple qui chante et dance aux Pyrénées*”.
- MIXI.—Bai, mundu guziak ala uste du. Etnologu ta turistek ala

jotzen gaituzte. (Imitatuz) “Un peuple qui chante et dance aux Pyrénées”. Baiño ni kontrara nago, ta kontrara aldarrikatuko dut, danek erotzat jotzen banaute ere. Euskal-Anima bestelakoa da! Da edo dago. Ondo bestelako gaiñera! Ondo larri ta triste!

HAM.—Nola ordea alaia ezetz? Onatx fotografiok: (erakutsiz) Biarritzeko plaiak... Donosti apaiñeko estropak... San Martzialeko erromeria..., Zuberoko dantzariak...

MIXI.—Zuberoko dantzariak aitatzen dizkidazu. Dantzari oien koplaz zaarrari aditu al diozu zer dion?

HAM.—Zer ba?

MIXI.—“Ortzetan dizut irria eta bi begietan nigarra!”

Axaletik beiraturuz, egia da: parajeak irribarrez daude. Biarritz, Donosti, ondartzak, mendi-ibarrak, fabrika, uri, kaleak... Itxuraz, dana parrez, kezkarik gabe, alai. Baiña Euskal-Anima? Oien danen barrutik, Euskal-Anima nigarrez dago. Bakar-bakarrik eta agoni izuan dago, Jesus Jetsemanin antzo: ilnai ta bizinai. Zuk badakizu latíñez: “*tristis est anima mea usque ad mortem*”.

HAM.—*Very interesting!* Ea berriz, berriz ori. (Blokian kopiatuz) “Ortzetan dizut...”

MIXI.—irria eta...

HAM.—...irrita eta...

MIXI.—bi begietan nigarra.

HAM.—...bi..., begietan..., nigarra. *Very interesting!!*

MIXI.—Gizona, fotografiek azala besterik ez dute erakusten. Ta axaletik erri ta nazio danak gera berdintsu; danok or non-baiteko, gurariz, jolas-gogoz... Barrutik, barrutik izan oi gera Erri bakoitza bakoitz!

Ara nere kontsejua: fotomakiñari lan gutxiago eman bear zenioke. (Kentzen dio linterna ta au piztuz eta itzaliz). Gu

ondo ezagutzekotan, geranez ezagutzekotan, linternari, linternari, eman bear zenioke lan geiago, gure barruko illunpeak urratuz zokobarrunak miatu ta jotzeraño.

HAM.—(Blokéan presaka zerbait idatziz) *Very interesting!* (Bloka gordetzen du eta prailleari linterna artzen dio).

MIXI.—(Parrez) Noski ba. (Erlojuari beiratzuz) Oraindik ez dizut ulertu ordea zertaz interbiatu nai nazun.

HAM.—Zure dramaz. Ortaraxe, berariz, bidaldu naute zugana.

MIXI.—(Igerri ez duanarena egiñaz) Nere drama? Motillak, gure artean ere bazegok nonbait humore oneko jenderik. Ortarako nigana errizoko ontaraño etorri? (Bizkarrean txapla-txapla dagio jolas-itxuraz Mister-i.)...

HAM.—Ez dut ulertzen. Serio esan, ez al duzu drama bat zuk, bertsuz eta kantuz?

MIXI.—(Serio antzera) Astera goazen “guruzpide” auxe ezpada, ez. Ta au ez da nerea.

HAM.—Ooori da! Guruzpidea! Ala omen du bai titulua-edo...

MIXI.—Bah, bah, bah! Ori al zan guzia? (Gaiztoz) Nola ba bati burutik pasa ere, zuk billatzen duzun drama aundia gure kalbariuok zitezkenik? Kalbario arruntak, Mixiotako denbotetan kantatzen ditugunak. Obeto esan: gure urietako jendeari aurrerantzean kantaazi ta komentarazi nai nizkienenak.

HAM.—Alako eskasak?

MIXI.—Eskasa, nere parte. (Bi beatzekin bertsoen lerrotamaña mimikatuz) Onenbestekoxea.

HAM.—Nola da ori?

MIXI.—(Kuadernua erakutsiz) Ikusten kuadernutxu au? Arrasto beltz txiki oietxek zirriborratzea, besterik ez dut nik parte.

HAM.—Ta bertako doiñuak, sentimenduak, ideiak, gurariak?

MIXI.—Ooori beste kontu bat da! Oiek bai ederrak. Ederrik ederrenak. Entzun? Ederrik ederrenak. Bestela ez nituken kopiatuko. Ez nintzaken burua austen jardungo sentimendu

oiek lerrotxuetan sartu ta mamitu bearrez. Erri oso batek, azken mendeon, zinki bizi ditun sentimenduak! Ondo bereak!

HAM.—*Very interesting!*

MIXI.—(Kirioz eta entusiasmoz) Ori bai. Erri baten sentipenak darizkin aldetik, guruzpidetxo au (kuadernua erakutsiz), edozein erri koskorrek non baiño non obeto sentitzen dun eta kantatu ere kantatuko didaten guruzpidetxo au, Euskal-Animaren drama duzu! Ez batere gutxiago: Euskal-Animaren drama!

HAM.—(Zoratzen) Banengon ba.

MIXI.—Gure Euskal-Anima berbera bezin larria, eriosuarra, kristau-kristaua! Kristauegia noski, kanpotarrek ulertu dezai-guten.

HAM.—Ain berezkoa?

MIXI.—Ain gurea! Argatik, adiskide, argatik neri ainbat gustatzen zait, neronek itzegin bearrez, jendeari berari itzegin araztea, egonaldiz egonaldi kalbariuok egiten goazen bitartean.”

Euskal Herria da Salbatoreren maitasun nagusia. Den bezalako herri hori, beltza beltz dela, nahiz-eta gustatu ez: txiki lurraldez, are txikiago euskaltasunez, hizkuntzez, etorkizunez; sekta bezala eskas, azken ondakin, galzorian; “agoni-erri” eta “il-erri”. Hau duzu haren Euskal Herria. Baina herri honek bizinahi bortitza du bere baitan, “geutasun bete” hori lortuko dugun esperantza, euskal anima ez dago ixilarazterik, ez hiltzerik; ez, “goldezuloko aleak eztio bildur illobiari”. Gandiagak idatzi duenez “herri-kontzienzia / duen ondakin bat” gera gu. Ez besterik, baino ez gutxiago ere.

Mitxelaren euskaltasunaren bidean arrosak baino arantzak behiago ez ote ziren nago. Lanak ditu euskaltzale izateak. Orain zaila bada, askoz ere nekezagoa zen garai baten.

Zentzatzeko, etsitzeko oiukatzen dizue sirenek etengabean, joan direla Kijote-denborak! Deus “probetxugarririk” ez dugula hor arkituko!

Baina Salvatorek ondotxo ikasi du gizona ez dela ogi hutsetik bizi. Salvatoreren euskaltzaletasuna, zintzotasunaren seme da. Eta leialtasunarena. Leialki eutsi dio Salvatorek zintzotasunari, lasaitasunaren eta erosokeriaren tentatzaileak ahalik eta urrutien uxatuz.

“Milla bider lasaiago biziko giñan; ez giñan ain aguro gaztezartuko; erriz erri gabiltzala euskeraren atzerapenak aztertzean, ez genun naigabea naigabearen gain pillatuko, baldin, biotzari beingoan tiro bat emanda, euskaltzaletasun ori utzi izan bagendu, zenbaitzuk, euskaltzale izenekoen artean bertan ere, egin duten bezela”.

Guk, geure partetik —eta zorrak ordain txarretan pagatzeko asmoz bederen— “izatez eta ekitez (berak aitortuko du) Euskal Herriari oro eskeini” dionaren aurrean, ken dezagun txapela!

JOAN MARI TORREALDAY
1970

SALBATORE SAIOLARI

Nemesio Etxanizek

Lagun baten oroitza ken ezinda ari gera. Aren bizi, giza-giro, lagunarte ta idazlanak gure gogo-biotzetan luzatu nai genituzke gerora. Onela galdu degun adiskidea, piztu bezela egin nai genduke gure artean.

Bakoitzak aren arpegi-alde bat agiri jarri nai degu ta neri Salbatore adiskide miñaren saiolari-eskua adierazteko eskatu didate.

Salbatore, bere lan nagusien guztietan, nolabait saiolari agertu zaigu, noski. Gure baratze au, dena sasi gendukan, eta an sartu geranok, lurra garbitu ta emaitz berriak ekartzeko gauza egin nai izan degunok, guzia egiteko arkitu izan degu, ta onela Salbatorek ere, bere asmoak mamitzeko, saioka jardun bear izan zuan bere egiñetan.

Baiña aren eskua apartekoa zan, gai bat amestu, jantzi, orraztu ta borobiltzeko. Pelotari on baten gisa aritu izan zitzaigun euskal-lanetan. Antzen zuan gaia ta ura adierazteko erabiltzen zuan euskera, alakoak ateratzen zitzaizkion. Eskuiz, ezkerrez, besagoiñez ta ankapez, danera zekian arek gure euskera maniatzen. Bazuan sukaldari onaren eskua, edozein gai maira ondo gozatua ateratzeko.

Irakurtuago ta artuagoa degu aren edozein idaz-lan. ARAN-

TZAZU poema ta AMA-Semeak, nork arek bezela eraman? Gure erria ta Arantzazu-ko Andre Mari nork lotu alkarrekin alako xaloki? Bai ederki baliatu ere, gure ele-zarrez eta kondairaz, alkarren lokarria ta soka ariltzeko!

BIZI NAI kantuan eroso dio:

“Nornaik antzematen du, Arantzazuk eta Euskalerriak bost mendeotan alkarrekin izan duten zorikidetza ta ar-emana:

“Seaska berean ikusi zuten egunsentia, alkarren eskutik eraman Eguerdiko garaipidea, ta Illunabarra yo ere aldare berean yo zuten”.

Ta gerotxoago:

“Gure Euskalerra eta
gure Arantzazu:
zori berak bein beti
zifuzten uztartu.
Lau mendeko aundiak
batean laztandu;
ta orain etsai berak
azkenik ondatu”.

Ba du lan ederrik ontan! Ala EUSKAL SAMIÑAREN GURUZPIDEA-n ere onelako esanak arkitzen ditugu: ta nork ari irabazi gerrate ondorengo euskalmin larria adierazten?

“Ona Arantzazu, euskal Golgota!
euskal Kalbario santu!”

ta lentxeago:

“Il baiño len iltzat uztako Erria,
bide bazterrean ona elbarria,
Ama bat bear-ta Zugana jarria”.

Uztarri batean onela lotu zituan Salvatorek gure erria ta Arantzazu. Or gelditu dira bi lan oiek, eta beste norbaitek nik baiño zabalago aitatuko ditu gerokoen ikasbidetzat.

* * *

Ni lotu natzaion nere gaiari. Ta Salvatore iñoiz baiño saiolarriago azaldu zitzaigun bere liburu UNAMUNO TA ABENDATS-en. Emen azaldu zigun bere jajotasun bereizia saioetan. Beste aren lanak utzi, beraz, eta onen inguru ariko naiz nere jardun onetan.

Unamuno, alajainkia! Garai aretan, aren izenik ere aotan artzea, alako gai irristakorra zanean, mutilla agertu zitzaigun gure zarauztarra, ari alderantzia agirian jartzen.

Elizak kondenatua ta euskeraren etsai amorratutzat joa genduan ordurarte gure Unamuno. Ba zan aren inguruan naikoa irispide itxu ta ez-ikutu naia. Bildurtzekoa bai-zan, aldi artan Salamanka-ko Unibersidadeko Erretore zaarra aitatzeta ere.

Baiña liburua irakurtzen asi orduko, gure arreta irabazia zeukan Mitxelena jostalariak. Katuak xagua bezela artzen zizun arek bilbotar jakintsua. Onen jokabideak, irispideak, filosofi-jardunak, burutapen biurriak euskeraz ederki baiño ederkiago adierazten zizkigun. Ta besterik gabe, bi esangai artzen ditu bere gain, gizon aren giza-tankera ta gogo-giroa neurtu ta mugatzeko. Etziran makalak aren baieskoak: Unamuno, alegia, Erljiiokezka sortzen oso mutilla izan zala; ta arritzekoena: Unamuno barruz euskaltzale izan zala.

Alderdi bi auek ondatuta utzi bear zituan gure praille ausartiak bere liburu ontan. Beste norbait izan balitz, ametsetan geldituko zan onelako liburua; baiña Salvatorek etzuan atzera egin. Amestu zuan bezela aurrera eraman zuan bere liburu onen orrietan, azaltzeko artu zuan gaia.

Urte aietan, Donosti-ko Ateneo-an euskera erakusten ari nintzan. Ta urtero, nere ikastaroari zabalera aundiagoa ematearren, itzaldi bat gertatu oi nuan Ateneo-ko Areto nagusian emateko.

Gaia aukeratzen lanak izaten nituan. Baiña urte aretan, (1958-garren urtean zan) ez nuan neke aundirik izan ortan. UNAMUNO TA ABENDATS irakurri nuaneko, auxe aukeratu nuan nere itzaldirako gai. Alakoa bai-zan liburua ta an gure Salbatorek zerabillen eskua ta euskera. Ta gaur nere eginbearra burutzeko, itzaldi aren urratsetan joango naiz gaiaren aria matazatzen.

Salbatorek bere esanak baiezteko, biderik jatorrena artzen du: Unamuno, beronen burutapen eta filosofi-saretan beretan arrapatzen digu. Arrantza polita ezpada gure zarauztar praille jostalariarena!

Unamunok berak esana zuan bere DIARIO INTIMO izeneko liburuan:

“Nik ixillik gorde nai dedana,
utzi bezaidate geldirik.
Ez dezadala argitara atera bear izan
nere barneko leize ezkuturik.
Au da, izan ere EZKUTUKO GIZONA;
ta beste au AGIRIKOA.
Ta ez det nai NAIZEN AU,
iñoren esan-gai eginda ikusterik.”

Pedro Lain Entralgok eroso dio ontaz: “AGIRIKO GIZONAREN” azpitik, nolakoa izan zan Unamunogan EZKUTUKO GIZONA? Kondairako izan zaneko gizona?

Ta Salbatorek azkar jasotzen dio galdera ta bai erantzuna eman ere ariarira: “Unamuno bere EZKUTUAN EUSKALTZALEA ZAN”. Baiña ortara etorri baiño len, ikus dezagun gure Mitxelena bere sarea botatzen poliki-poliki.

1) UNAMUNO GIZON.—Gandamo Jaunak bere ANTOLOGIA COMENTADA-n au galdetzen digu: “Ta Unamuno zer da bere izan-izanean?” Ta Unamuno beraren itzak jasoaz, onela erantzuten dio bere galderari: “Gizon oso bat, noski”.

Ta Marañonek, (LA MEMORIA Y LA ESPERANZA-n, 183-garren orrialdean), au erasten digu arira datorrena: "Ta orregatik, gizon dizdiratsu baiña funtsik gabeak ez bezela, aren izena briztada batean sortu ta galdu bearrean, Unamuno nekez maitatzen zenduan; baiña gero, garaia aurrera bezela, arekiko maitasuna ere besterik eziñean aunditzen eta geitzen joaten zan".

Ori bai, azal mikatza zizun ta bere jolasik gozoena, bere entzuleen iritziak jorratzen aritzen zuan. Orregatik gai guzien eta gizon guzien kontra itzegin zigun. Izena ere, alakoa eman zion bere buruari: IDEOCLASTA, Burutapen-makilla, ideia guzien xeetzaille, apurtzaille. Unamuno beraren itzak dira oek, (ANDANZAS Y VISIONES ESPAÑOLAS, 117-garren orrialdean):

"Gaztelania-ko ames-giroa, ideia-zaletasuna, geiena, ipui-uts da gaur. Bere kutsu guzia, abertzalekeri ustel batean ustu nai muiñik gabe..."

Ta gerotxoago au agertzen digu:

"Ta burutu ezin ditekera au da: gaztelerrriak beren buruaren iritzi puztuan, beste guziak berak ulertzeko eran itzegitera beartu nai izaten dituztela. Ta ala erasotzen dizue bereala onoko esan onekin: HABLE USTED EN CRISTIANO. Kristauki itzegizu".

Aren mailluak, izan ere, eztu iñor ere makildu gabe utzi izan. Liburu berean beste leku batean au dio:

"Nik uste dedanez, guda-zaletasun jatorraren etsairik aundienak, gudatik bizi diran gudariak dira; Erljioaren etsairik aundienak, nik uste, apaizak ditugu; ta jakintzaren etsai okerrenak, irakas-zaleak".

Ezta ortan geldituko. Bere VIDA DE DON QUIJOTE Y SANCHE-n, begira zer dion:

"Ederdi esan zuan pentsalari batek, Guardi Zibillak, diruz ordaindutako lenengo lapurretatik sortu zirala".

Azkenerako au botatzen digu, munduari erronka joaz:

"Hurdestarrak gure aberriaren omen-goragarrietako bat dira".

Esatekoak dira, gero gure bizkaitar kaskailli onenak! Unamuno, izan ere, gizona izaki, ta gizona zan aldetik bere akatsen jabe ta ajez joa izan bear. Ala ikusten degu bere bizi guzian *Ezaugarri izateko gogo bizitan*. Bere izena geroko denboretan eza-guna ta goratua uzteko egarri amorratua zuan arek. Ta entzute-gose orrek eragiten zion alako esan borobil eta elkarrekin burrukan zeudenak botatzeko. Baiña bere kaskaillukeri ortan, ori bai: gizon osoa agertu zan. Etzan atzeratu zerizkiona esaten, edozeiñen aurka itzegiten. Sasi-jainko guziak makiltzen, naiz ta gaurko bere esanak, atzokoekin muturka azaldu.

Ta onela jokatu zuan euskal-gaietan ere. Aurka-aldeko esanak ditu guk bere idatzietan jasotzeko. Unamunok Bilbo-ko bere itzaldi batean, bere erritarrei, euskera lurperatzeko aolkua eman zien. Lan-tresna zaartua, ta gure aurrerepenerako eragozpena besterik ez omen da, alegia. Onela euskerari illetak eginda gero, bere liburu askotan, (PAZ EN LA GUERRA, DE MI PAIS, LA CUESTION DEL VASCUENCE, VIDA DE DON QUIJOTE Y SANCHE, EL SENTIMIENTO TRAGICO DE LA VIDA ta LA CRISIS DEL PATRIOTISMO-n), bere barruko euskaltzaletasuna azalera nabarmentzen zaio.

Bere izena sonatua uzteko ta geroko urtetan bera aitagarri geldi zedin onelakotxeak egiten zizkigun. Ain poliki esan oi zuan bere buruari ere irri egiñaz:

“Dicho sea con la modestia que me caracteriza”. Alako xotiltasunez jantzia bai-nago, esan ba-lu bezela.

Au guzia bere arian ederki darama gure Salbatorek. Eta orain gure Unamunoren beste alderdi bar adierazten digu:

2) UNAMUNO FILOSOFALARI.—Emen ere ba ditu be-reak eta bi.

“Ni ez naiz jakintsu, ni pentsalaria naiz, —dio Unamunok— ni sentibera naiz”.

Ala izan ere!... Unamuno sinistegabeak, Erlijio-etsipenez

beteak, bere oe-adarrean Biblia, Kenpis eta San Agustin-en, Santa Teresa-ren eta Gurutzeko Juan donearen liburuak ditu eskura.

Aren jokabide osoa ontan dago: bakoitza norberarekin garbia, egi-zalea izaten. Nik sinisten dedan artan eraman bear det ere, nere bizia ta jokaera. Ori da egia Unamunorentzat. Eta zure bizia sinisten dezunaren arian ezpadezu eramaten, ori gezurpean egotea da. Zure egiak edertzen du zure bizia, ta itxusitzen zure gezurrak.

“Zorionekoak biotz garbiak, aiek ikusiko baidute Jainkoa” —dio gure Unamuno sermolariak—. Esan zazue zuen egia beti, ta Jainkoak berea esango dizue...”

Eta beste toki batean onela zabaltzen zaigu:

“Sinisten dezun okerrak, sinisten ez dezun egiak baiño geiago balio du. Okerrak ez baidu animarik iltzen, gezurrak bai, ostera”.

Ta ortan eztijoa ain bidegaldua. Izan ere, zuk fede txarrean jokutzen badezu, gaizki zabilta. Fede onez artutako okerrak, ostera, ez dio kalterik ekartzen zure ontasunari.

Beraz, egia ez dago zuregandik kanpo, zure barruan baizik, —Unamunoren iritziz. Zuk sinistu ta bizitzen dezun ura, zure egia da. Zuk egiten dezu uste ta bizitze orrekin egi. Ta berdin gezurra ere, zuk sinistu ta gero bizitzen ez dezun ura, gezur egiten dezu. Egia ta gezurra zuk egiten dituzu ortan, ez zuregandik kanpoko gauzak.

Au guzia barkatuko genioke, beste iritzi bidegalduak ezpalitu. Ta ala bere filosofiari jarraituaz or dator Unamuno zirti-zarta, bere egia okertzera:

“Iñork eztu EGI OSORIK; baizik bakoitzak egiaren apur bat gorde oi degu. Ta guzion artean, gure egi-apurrak bilduaz iritxiko degu EGI OSOA, PAKEA, JAINKOA”.

Guk Kristauok, Jainko-Semeak agertutako egia degunok, ezin diogu bide ortatik jarraitu.

Zer da, ba, EGIA, Unamunoren ustez?

“EGIA, biotz osoz eta anima osoz sinisten dana orixe da.

Ta zer da biotz osoz eta anima osoz zerbait sinistea?

“Sinisten aren arian bizitzea”.

“Zuk mundu au Jainkoak zuzentzen duala sinisten badezu, ta zure siniste orren legean jokutzen badezu, zu egipean bizi zera. Baiña zuk, Jainkoa ipui bat besterik ez dala sinistu ta zure bizitza uste orren legean eramaten badezu ere, berdin zaude egipean. Beraz, sinisten ez duana ta sinismenduna, biak daude egiaren barruan”.

Orregatik, bera burutapen eta sineste guzien aurrean, iño-rengana makurtu gabe gelditzen da.

“Au det gorrotoena, ideia batzuen izenean, beste ideiak, gu-reak bezin artugarri edo baztartugarriak zapaltzea. Eztet gaitziz-enik maite, baiña ezer onartzekotan IDEOCLASTA, IDEA-PUS-KATZAILLE gaitzizena onartuko nuke”.

Or dezu, gure bilbotarra zuria ta beltza, bai ta eza, berdin artzen. Burutapen guziak aldeztu ditezke, aren iritziz; baiña bide batez, burutapen guziak jorratu ditezke ere. Eldu iozu orri.

Zer da, ba, Unamuno? Ezta errez aren filosofia sail batean mugatzen. Ala ari dira batzuek, Borondate-zalea dala esaten; beste batzuek Bizizalea dala aitortzen. Baiña berak aldiz bere burua Borondate-zalea egiten digu aitortuaz:

“Ez dizut galdetuko: ze ideia dituzun? Baizik: nola bizi zeran? Zure bizitzak ematen die zure burutapenei beren egia, ta ez auk zure bizitzari. Zoritxarrekoa, bere bizitza oiñarritzeko ideiak bear dituana!”

Unamunok Borondate-zaleetara jotzen du pixka bat, alako ura esaten digunean:

“Sinistea, sinistea *nai izatea* da. Jainkoagan sinistea, gogo biziz Jainkoa izatea *nai izatea*”.

Ta aldiz EGINZALEA ere agertzen zaigu, esan aretan:

“Ikusten ez deguna sinistea, ez; baizik ikusten ez deguna sortzea, egitea”.

Beraz, Unamunoren iritiz: “Fedeak bere siniskaia sortu egi-ten du”. Ta egi guziak orregatik dira egi: sinisten ditugulako, ez guregandik kanpora ala diralako.

Ta sineste orrek ematen dio bakoitzari bere nortasuna. Ta erri bakoitza bere Egiagatik da *alako erri*, beste erri guzietatik bereizia. Ta gure Ni ta gura EGIA, guzien kontra ta guzien gain aldeztu bear degu. Ta onela sartzen gera BIZITZAKO SENTIPEN LARRIAN. Au da barkakizunik gabeko gudua, atsedetik gabe ta irtenbiderik gabeko burruka. Burruka, munduaren aurka; burruka gure baitan, burruka eriotzaren aurka. Nere egiak bes-teren egia il nai du; sentipena adimenaren kontra jeikitzen da, Erljioa Filosofiaren aurka. Don Kijote Santxo-ren kontra, guraria eziñaren kontra, betikotasun egarria nere ilkorrari ortzaka. NI beste guzien gain.

Unamunok zerbait ukatzen duanean, Unamuno ez da Unamuno. Sentipena, arrazoiak ukatzen duana baiezten eta ala dala esaten asten danean, orduan sortzen da Unamuno, ta beraren nortasuna mamitzen du. Ta gurariak bere garaipenik iristen ez duanean? Itxaropen seguru batera eldu ezin bada?

Orduan dator ETSIPENA. Egia sendorik beiñere iritxi ezin degunean, gure larrimiña sortzen da zorrotz... Baiña ez da etsi bear orregatik. Zenbat eta zalantza biziagoa, orduan da gogorrago gu gere egia baiezten, ala dala esaten; illunpea beltzago ta gu irrika biziagotzen, are ta geiago gure BAI-ari eusten.

“Jansenismo osoa —dio Unamunok— katolikotasunaren egokiera katolikoa, noski, sillu orrek jota dago. Port-Royal-go giro ura, euskaldun bati zor izan genion (Saint Cyran abatari), ta Loiola-ko Eneko ere, ta au idazten ari zaizuen ere; irurok geron baitan erlijiozko etsipen bat, arrazoiaren bere buru iltzea daramagu aldean... Ta ba dira, uste dedanez, Bizitzaren sentipen larria duten *erriak* ere”.

“Erljio etsipen au... —jarraitzen du Unamunok—, izkutuago

edo agiriago, gaurko gizonen eta errien konturapen ondoa besterik ezta. Erri jakitez jantzien etsipen larria. Au da: adimen-ergelkeriz eta sentipen-ergelkeriz jota ez dauden errien sentipena”.

“Ta sentipen au izan da gizon aundien egite arrigarrien iturri”.

Poliki bota dizkigu Salbatorek Unamunoren filosofi giltza auek. Ta orain asten da bilbotarrari egiten dion azpi-jorra. Beronen itzetan arkitzen ditu gure Mitxelena jajoak Unamuno saretan sartzeko oiñarri ta arrazoibideak. Onela erasotzen bai-dio bilbotarrari, esanaz:

“Sentipen larru au, ezta zurea bakarrik; zure erria dan Euskalerrarena ere, orixe bera dezu. Ta zuk esana da: “Zuk dezun guzia zere abendari zor diozula”.

Ta emen dator Unamunoren beste ateraldirik arrigarriene-tako bat: “Gure barneko eskubideen artean ba degu bat, gure oituren bidez, ez legeen bidez, eskuratu bear deguna: utzi ezin dezakegun eskubidea bera: geu beltz-zuri erabat izateko eskubidea; gaur esan dedanaren kontra biar itzegin al-izatea, nerau aldatzeke”.

Ondoren Unamunoren zartaillua ateratzen digu, eriotzari buruz arek dituan pentsamentuak plazara atereaz:

“SOBRE LA EUROPEIZACION” liburutik ateratzen dizkigu Salbatorek Unamunoren bulko auek:

“Ez det grña beste jokabiderik nai... Ta zer da Europatze ori? “Bizipoza?... Aurrerapenak dakazkiguten aukeraz baliatzea ta gozatzea, noski”. Ortarakotxe dago Unamuno!

“Ez, ez! —dio— Europatu, ez; baizik Afrikatu egin bear degu. Gure lengo izatera biurtu gaitezen. Bizipozaz jabetu bearran, eskuratu dezagun eriotzaren burutapena”.

Ta emen, Unamunok Don Quijote, Velazquez, Gurutzeko Yon donea, Lizarra-ko Diego Anaia, Teresa donea ta Aita San Inazio aitatuaz, Españiari bere goratzarre-kanta jotzen dio. Ta

Errege Katolikoak sortutako batasunarekin España-ri bere kon-
daira okertu zitzaiola esaten digu dena makillatzeko...

“Bai zoritzarrekoak bizitza beste pentsamenturik ez duten
erriak!... Zorigaitzekoak, bai, eriotzaz oroitu nai ez dutenak!...
Miserere ta De profundis-ka etsipenez oroika ari dan erriaren
erdian arkituko naiz beti, anai-arreba artean bezela”.

Ta ondoren, emen dakar Unamunoren egoneziña Paris eta
Madrillen.

Erri bi oietako girorik ezin omen zitzaion biotzean sartu.
Ta Salbatorek eroso erasotzen dio bilbotarrari:

“Ire barnean bizi dekan ire abendaren anima dek ori. Ire
erritik kanpora umezurtz jotzen dekan ire anima. Erri ori, ire
antzera ari dek esan eta esan:

“Ni, ni, ni; beti ni! Ta ez dezaidatela galdetu, ni nor naizen.
Munduarentzat, deus ez, utsa; neretzat, dan osoa... Gizon bakoi-
tzaren espirituak, (eta erri baten espirituak ere). Izadiak aiña balio
du... Beste erri orrek geiago balio duala; ohea, naiz ergelagoa
dala?... Bestea garaille ta ni menderatua izan naizela? protxu on
deiola! Ori guzia oso eder izango zaio, baiña *beste* erri bat da,
ta ori ez! ori ez! Ni besteratua sentitzea, nere izatea ukatzea li-
tzake. Au da: iltzea aiña. Ta ori ez! ori ez! Edozer gauza ori
baiño len!”

Salbatorek ez dio arnasik artzen uzten Unamunori, ta eten-
gabe or ari zaio Unamuno berearen esanak eta itzak arpegia bo-
tatzen:

“Ire erriaren anima larria aiz, erorrek nai izateke ere. Ta
anima larri ori ari zaik barrutik, esaten digukenean:

“Ez det il nai, ez; ez det nai, ezta nai izaterik nai ere; bizi
nai det beti, beti, beti ta bizi ni, onen uts naizen au, onen aul
emen eta orain billakatzen naizen au, eta orregatik nauka kezka-
-zorrotzetan nere anima orren iraupenak, nere biziaren luzapenak”.

Ta Lizardiren itzak dakarzkigu emen Salbatorek:

O, zein dan ituna
bera bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Ikusten, ikusten? —jarraitzen dio Salbatorek. Ik bezelaxe dik Lizardik ere sentipen larri ori.

Ta Unamunoren esanetan aurrera darama bere jarduna:

“Bai; ori izango aiz. Arrotz alde guzietan. Katolikoentzat ereje; munduzaleentzat jainko zaleegia; gartzelarrentzat euskaldunegia; emen bakarrik entzungo bai-dek ire abendaren garraxia; i jaio baiño lenago negarra, gure erriaren erio-sugarreko bizi naia, ta eriotzaren kontrako burruka”.

“Hamlet, ez! —dio Unamunok bere aldetik— Izan edo ez izan, ez! Ire abendaren arimak ez dik ontzat ematen bi irterako esan ori. Guk deadarka erasotzen diagu: Bizi edo bizi! San Agustinek alako jomugaruntz jotzen diagu: Edo bizi ilkorra edo eriotz bizigarria! Ortik jaiotzen dek gure burruka guziak indartu dituan berdingabeko illagiña.

ta udazken atzarreko goiz batean,
esnatu nadi Jainkozko betean!

gure Lizardi olerkariak esango zuanez.

“Burutapen auetatik asko, —dio Unamunok—, etzekiat zer esan nai duten ere. Ba dek norbait nere barruan neri esaten dizkidana”. Ta besterik gabe or jartzen zaigu bilbotarra, aldarrika:

“Abia zaitzte! Nora zoazten? Izarrak adieraziko dizue: ILLOBIRA. Ta ara bidean, zer egingo ote degu? Zer? Burrukatu, burrukatu! Ta nola? Gezurretan ari danik arkitzen ba-dezue, deadar egiozue: Gezurra! ta aurrera! Lapurretan bizi dan norbait

billatzen al-dezue? Deadar egiozue: Lapur ori! Zozokeriak esaten ari dan batekin topo egiten dezuela, ta aren aurrean entzule iñozo taldea aozabalka entzuten? Deadar egiezue: Iñozo alenak! eta beti aurrera!”

Eta gero Barojari erasoten dio:

“Barojak au dio: españiarrok degun gauzarik negargarriene-tako bat, gogoriñak eta alaiak izaten ez jakitea omen-da”. Eta neretzat, —dio Unamunok bere aldetik—. Españiari etorri lezaio-ken gauzarik negargarriena, españiarrak gogo-arin eta alai biurtzea izango litzake. Orduan Españiar izatea galduko genduke, europar izatea bera ere ondatuaz... Orduan jakintza merkedun esku-libu-ruak erakusten dizkiguten zozokeriak berresango genituzke, baiña jakituri-etxean sartzeko bidea galduko litzake guretzat”.

Salbatorek jarraitu dio onera arte Unamunoren burutapen eta filosofi zimenduei. Auetan jarriko du zarauztar jajoak bere erantzun bizia, Unamuno bere saretan sartuaz:

—UNAMUNO TA EUSKERA—

Orañarteko guzia, Salbatoren asmorako gertakizun bat bes-terik ezta izan. Beraren asmorik nagusiena, Unamuno euskaltzale zala egiztea zan, eta ortara dijoa emendik aurrerako bere libu-ruaren alegia.

Ortarako, 1880-garren urte ingurura eramaten gaitu. Aldi aretan, Bizkai-ko Aldun-Etxeak Euskal-Irakastegi bat sortu nai izan zuan, eta artarako leiaketa eratu zan: Unamuno ta Azkue zana azaldu ziran plazamutil irakastegi ura irabazi nairik. Azkue apaizari eman zioten kargua ta orrek utzi zuan gure bilbotarra erremindua. Arraizkero beñere etzion barkatu bere lurrari leia-keta artan atzean gelditua.

Galera ura erabat euskeraren kontrako amorrotan urtu zan. Gañera, euskeraz idatzi izan balu, bere izena ezin zabaldu zitekean erderaz idatzita aña; ta ori bere arropuzkeriaren kontra zetorren. Erderaz mutildu ta gaillendu zitekean; euskeraz, geienaz ere, Kanpion eta Arana Goiri-ren antzeko erdipurdiko idazle besterik etzan izango. Ortik bere esan aiek:

“Katalunia ta ango izkuntzaz... urrengoren batean astiroago itzegingo det. ...Euskera ta gaillegoa il-zori larrian bizi diran bi-tartean, katalanak bizi berria artzen du... Ta onek ez du adierazi nai, katalan-izpiritua euskal-izpiritua baiño biziagoa danik, ez. Baizik euskaldunari bere izkera zaarra etzaio neurrira etortzen gaurko; ta katalanari, bai. (Más sobre el patriotismo.)”

Argatik ari zaigu beste bein garraxika:

—“Noiz zentzatu bear dezue? Noiz izango dezue euskera iltzen uzteko aña gizontasun eta kemen?... Orrenak egin du. Ta ez da gizonen artean, orrena galazi dezakenik. Ba-dijoakigu, besterik eziñean. Bizi-legeak darama, patuaren mende eroriko da... Ta Euskalerrria bere jabe egingo balitza ere, ta euskera lege-izkera izatera jasoko ba-lute ere, berdin ilko litzauguke bizi izateko indarrik gabe. Ala galtzen dira basa-abereak, etxekotu nai ditugunean”.

Baiña Salbatorek ixillik laga bilbotarra? Ortarakotxe dago! Entzun-araziko dizkio bereak eta bi:

“Onela, beraz, zentzua ta burua bear ditugu? Ta nun dira orain len ain su ta gar zimendatu dituzun oiñarriak?”

“Ez, ba —zenion Unamuno orrek—, ez! Ez naiz arrazoipean etsita geldituko. Aitzitik, aren kontra jaikiko naiz; eta sinismenera joko det, fede-indarrak naramala, nere Jainko ezilkortzailleagan oiñarrituaz; ta nere borondatearen indarrez zeru-izarren bideak aldatuko ditut, arrapa edo mostaza ale bat añaiko federik izango ba-gendu, izan ere, mendi orri esan: Alda adi ortik! eta aldatu egingo litzake, ta ezer eziñik ez legoke guretzat”.

“Ta orain, fede sortzaille ori guri goralduta gero, erotasun eta grina azpiratzeko eskatu ondoren, orain, euskera aitatzerakoan zentzudun eta arrazoidun izan bear diogula, esaten diguzu?”

“Ta nun gelditu zaizu Paskal’ en esan ura: “Biotzak ere bere arrazoibideak baditu, ta adimenak baiño baliotsuagoak gaiñera?”

“Erorren filosofiak galtzen au, Unamuno. Gogora ezak ako ura: “Gurea baiño bestea ohea dala? Ala balitz ere, ez det nai; *bestea* baita; eta *ni* izatea galdu baiño len, ta naizen au ez ta beste zerbait izaten astea baiño len edozer guza ohea da... Ni! ni! ta beti ni!...”

Ta irea dek beste esan borobil ura ere: “pentsamentua izkuntzatik esegita dago, itzekin pentsaten baita”. Ta beste ura: “Animaz aldatzea, norberaren izatea ukatzea da”, norberak bere burua iltzea, bai.

Orra, ba, Unamuno, dio Salvatorek bere azpijorran: “Ire barruan ostatu duan erorren arrazaren izpirituak isten dik bidea ta galtzen ire kontsejua. Unamunotar Mikel, Migel de Unamunoren aurka jeiki dek”.

“Euskera laga ta beste izkuntza landuago bat etxeko artuaz, protxo geiago izango degula? Alde batetik, bai; ala dek ori, baiña ire filosofiaren urratsak onartu ezker, eztiagu nai egi ori... Gure nortasuna, gure NI ori, askoz etsigarriagoa, estimagarriagoa dek; gure izateari eustea dek gure lege nagusia”.

“Eztiagu biotza azpiratzerik nai arrazoiaren aurrean, Fedea nai diagu, fedearentzat ezaizegok eziñik”... “Gure pentsaketa, gure ekiña gorputz osoarekin, anima osoarekin, gure ezurretako muin osoarekin, biotz osoz, gure bularreko arnasa betearekin eta gure erraien indar guziz; itz batean, gure bizi-indar osoz eraman nai diagu”.

“Aztu al zaizkik ire itz oiek guziak, Unamuno? Eta Kierkegaarden ura:

“Ni izatea galtzea, guzia galtzea dek”. Ta Michelet-en garra-xi ura: “Nere NI! Itzul dezaidatela nere Ni ura!”

Luze joko luke itzez itz emen Mitxelena Salbatoreren jorrabidea jarraitzea. Ta guzia bere erretara ekartzeko, azkenengo irri-jarduna botatzen dio Unamuno’ri:

“Ara, ba, Migel, amor ematen diagu arrazoiz ari aizela, ta ire euskera gure neurrira ez datorrela aitortzen diagu”. Kontu baiña ez degula “euskera” soillik esaten, “ire euskera” baizik. Egia, noski baiño noskiago orixe: *ire* euskaldun berri totalarena, gaizki egositako *ire* euskera ura, ez gatz eta ez berakatz ura, bertso arlote batzuek bakarrik ateratzeko balio izan zian euskera arekin, asteko lain ere ez diagu”.

Ai, ta ze poliki ziria sartu dikan Onaindia Xantik bere MILLA OLERKI EDER liburuan, ire bertso trakets aiek jarriaz:

Geure euskera baiño
berba ederrago
ezta, gauza ain aundia
zelebratutako.

Ederrarekin sartu aiz, ba!... Salbatorek Unamunori emen egiten dion parre-algara! “Euskera ori mandazai bat jazteko ere, ez dek gauza, Migel!” esaten dio gure praille jostalariak.

“Jakiña, —ikuste aut zer esan nai dekan. Ire burutapen nagusia au dek:

Bartzelonan katalanez egiten baita, Katalunian ere ala egin bedi.

Baiña Bilbon erderaz egiten dan ezkeru, Euskalerrian ere ala egin bedi; edo obeto esateko: “*Nik* erderaz egiten dedan ezkeru, Euskalerrian ere ala egin bedi”. Orrelatsu dek ire “Apal-giroa”...

Baiña, gizona! arezkero euskerak egin duan gorakoa ba-eki... Or dek gure ORIXE aundia, i bezin zakar eta idazle bikain. Or dek Lizardi, ta aien ondorengo euskal-idazle sailla... Baiña ik

nola izango uan, ba, euskal-giroaren berri, ire kazketaldi aretan, gure erritik urruti iges egin bai-uan...

Baiña guzia barkatzen diagu, erorrek aitortu bai-dituk azkeanean, erorren pekatua. Ta emen dakar Salbatorek Unamunok Emilian Arriaga ri egindako idazki-atal bat:

“Nik (Unamunok), gitxi idatzi det euskeraz, gai ortan nere eskola euskaldun berriarena izan baita: Gernika'ko Arbola'ri egindako agur bat, Euskalerrria aldizkarian argitaldua ta zenbait olerki argitara gabeak. Nere lana izketalariarena izan da euskerakiko. Gaur berriro arekiko maitasuna somatzen det nere baitan, eta izkera ori lantzen asi naiz. Eztakit zergatik egiten dedan ori. Agian, benetako nere eldu-muga jo det, eta nere lau semealabekin ontara iritxi naiz. Nolanai nere ideien aldaketa ta berritzea somatzen det nere baitan, eta len nituan ezezko burutapen atzeratiak utziaz osatzen eta konpontzen ari naiz”.

Unamunoren aitorten au eta beste bilbotarraren esan asko ekartzen dizkigu. Oien artean, Sabino Arana baiño “bizkaitarlista” amorratuagoa erakusten digu ondoren:

“Ezer ba-naiz, nere arrazaren ezaguera ta konturapena nigan bere osora iritxi dalako naizela uste det, —adierazten digu Unamunok. Eta beste leku batean, au gaiñeratzen digu:

“Gaindu zakizkie —(euskaldunok erdeldunei, esan nai du)— Irten zaitezte zuen txaburutik kanpora! Zuen euskaltasuna inguruko erriei txerta zaiezue. Etzaitezte orrelako euskeraren espetxe ta kartzela estuan ito”.

Au Unamunok guri. Baiña gu ere —erantzuten dio Salbatorek— euskaldun odolekoak izaki, i bezelaxe; ta Montevideo aldean esan zaarra dek euskaldunok burugogor purrukatuak gerala.

Eta ako Bilbora deitu ziotenean, eta euskera lurperatzeko kontsejua eman zuanean, bilbotarrak arpegira bota zioten bere bigarren abizena:

—Jugo! Jugo! —deadar egin zioten arri egiñaz.

Unamunoren sua! Ta nolako txistuak jo zizkioten entzuleak! Baiña Unamunok bere erritarren txistua baiño miñago izan zuan, Bilbora etorri berri ziran erdaldunen txalo-zarta.

Onela dioa Salvatore, Unamunoren libururetatik, andik eta emendik, gertariak eta idaz-lanak uxartzen. Aietan, Unamunoren euskaltzaletasun sakona agirian utzi arte.

Quikoteren espirituak Castilla-tik kanpora iges egin zuala aspaldi ta iñun izatekotan Euskalerrian ezkutu bizi dala, ta zenbat beste onelako esan ateratzen digun bere liburu onen orrietan. Irakurtzekoak dira benetan.

Guri luzeegi joko liguke Salbatoreri bide ontan itzez-itx jarraitzea. Unamunoren abertzaletasuna, Sabino Aranaren alderantzia da. Onek, euskaldunok Españaigandik eten nai ginduzen. Unamunok euskaldunoi esaten digu, España-z jabetu gaitzela, ta bertan nagusi ta gidari jartzeko deadarra ta oiua jo zigun.

Unamunorenak dira itz auek: “Nik ez det nere mendiak bezelakorik arkitzen...” Ta beste auek ere, bere Emiliano Arriagari egindako eskutitzean jarriak: “Euskera, izkerarik ederrena da, itzegiten dutenentzako; beren izkuntza baita”. Ta beste Musset-en itz aiek ere bere egiten ditu: “Nere antoxiña txikia izan arren, nere antoxinetik edaten det”.

Aitatzekoa da Altamirako leizean izan zaneke gertaera. Gure Unamuno, Comillas-ko Apaizgaitegira igo zan bein, eta euskaldun apaizgai bat eman zioten lagun inguruak ikusteko. Aien artean Altamirako leize barrua ikustatzera joan ziran alkarrekin, eta leizean sartzerakoan, Unamunok Arrizubieta-r Martin bere bide-lagunari au esan zion:

—“Emen euskeraz egin bear da”.

Eta leize barruko marrazki ta pinturak ikusten egon ziran bitarte guzian, euskeraz itzegiñaz jarraitu zuan.

Esandakoak naikoa dira gure Salbatoreren asmo burutsua agirian jartzeko. Aren jomuga garbi azaltzen zaigu bere liburu onetan.

Euskaldunok, gure Erlijio-irrika aurreragi eman izan degu beti. Literatura saillean batez ere, beñiere ez degu ontzat eman sinestea galdutako idazlerik. Balio duan idazlea, naiz ta Eliza aldekoa ez izan, bere balioan neurtu ta etsi bearra degu. Idazle bat ezkertarra, naiz sineste gabekoa dalako bakarrik, ezin diteke gure iritzietan baztartuta utzi. Ta Unamuno ta Baroja, bi euskal odoleko idazle aitatzeko, mundu zabalean oso ezagunak eta aintzat artuak izan dira. Bi balio oiek gureganatu egin bear ditugu. Euskal odolekoak zirala ta euskaltzaleak beren baitan agertzen dirala egiztu al izan ezkeru, gureak diran balore oiek Euskalerriaren onerako, diran bezelakoak agertzea dagokigu.

Beren akats ta guzti, munduak orrenbeste estimatzen dituan idazle oiek gure odolekoak zirala aitortzen eztegu atzera egin bear. Unamunok ala ere, alde asko ditu guretzat ikasgarri diranak.

Mitxelena Salbatorek begi azkarra izan zuan alderdi aun nabaitzen eta lau aldetara zabaltzen. Integristen iritzi estuak zokoratu ta beste bide zabalago ta egikorragoa erakutsi zigun bere lan ontan.

Liburu au ateratzeko ordua ere ederki aukeratu zigun: Lizardi il zanetik ogei ta bost urtera. Ederki egiten dio liburuaren azkenean eskeintza:

“Lizardi: Jaungoikoak nai izan dik, liburu au, bi urtez itxoin ondoren, aurtengo ire zillar-eztaietan argitaratzea. Ez ote eztaio-tako goratzarre dakikantzat? Ala dakikala, bai, o bai! naizta ire diñezko ez izan. Nik onako anaiatze edo enseiu xume onentzat ezin opa sari unkiagarriagorik. Nolanaiere, bere tolesgabean, argiro ta maitaro erakusten baitagokik, ez agokula ez ilda gure biotzetan, baizik ondo bizirik Abendats'en baitan”.

Bein ta betikoz, anaikero bada, Agur iri”.

Ta izenorde, bere Zarauz-ko balleraren izena artzen du:
Iñurritza.

Eta jator egiten digu, egin ere, bere Agurra, euskaldunoi
batasun eta pake bidera deituaz: “Agur Jaunak!... Denok Jain-
koak iñak gire...”

Nemesio Etxaniz

1967

MITXELENAREKIN PENTSAKETAN

Eugenio Agirretzek

Aita Mitxelena zena medio dela, joandako 30 urte hauetan gure artean gertatu diren gorabehera askotxo gogoratzera goaz. Urte hoiek zearka ibilaldi bat eginen dugu gaur Arantzazun bizi geranon batzuk. Taldean ibiliko gera. Inguru hontako mendi-bideetan zenbait aldiz ibili ohi geran berealatsu. Mendian ohinez ibiltzen gera. Gaur berriz gure oroimen eta ideien egotan. Zuek JAKINDar gazteok eta ni, gaztetzarotik irtena eta zuek baino zerbait gehiago ikusia.

Arantzazun naiz orain. Ainbeste baztarretan ibilia, orain hemengo bakardadean naukazute loturik. Franziskotar gaztedi honen gidari ta lagun Teolojiako ikasketak egiten dabilen gure gaztedia. Hirurogei ta hamar prale gazteok osatzen duten talde eder, jakinzale ta ameslari egon ezina. Lehengo mundu ta biziera zaharrarekin askotxo asarretua. Mundu berri baten bila itxumustuan dabilena. Itxumustuan, bai, lehengo bideak utzi nahi ta bide berriak nundik eta nolakoak izanen diran ezin asmaturik dabilen gaztedia. Hamaika gauzatan arrazoi duzute, beste hamaikatan ez, ordea.

Orain 25 urte hementxe nintzan ni ere. Zuek orain zabilzaten bide hoietantxe, zuen etxe hontan bertan. Gazte ameslari, sutsu ta adoretzu ninduzuten. Gure orduko gaztetasun hartatik zuen oraingo gazte-izakeraren artean sortu da, ordea, ezberdin-

tasun izugarri bat, ez Arantzazun bakarrik. Nunahiko sukalde, nunahiko ikastetxe, nunahiko gizataldetan somatzen den fenomenua duzute hori. Zerbait eten egin da lehengoan ta oraingoan artean. Baita Arantzazu hortan ere.

Hamaika elkar-hizketa ba daramazkit gaztedi honekin. Elkar-hizketa hoiek batzutan, ahoz-ahozko berriketan jardutzea besterik ez dira. Edo inguruko gizartearen problemak ikustetik sortu ohi diran iritziak batek besteari ematea, askotan. Edo ta, noiz-bait ez dugu minganez elkarrekin itz egiten, bizitzaren aurrean batzuk eta besteak aukeratu ohi ditugun jokabideen bitartez, baizik.

“Gure gazte-aldian ez hukan holakorikan egin ohi! —edo— halako edo honelako eginbidetik gogotsuago ta zuzenago jokatzeko ba genetxekin” —diot nik.

“Horrek ez du garrantzirik —erantzungo digute berak—. Zuek artaldekeria zenduten gaitz. Orain norbera nor ba da. Norbera ber egiteen jabeago, orduan baino”.

Eta batzuk eta besteak gure jokaerak eginkizunen bidez agertuko ditugu. Esate baterako, gu —zerbait urtedunok— belauniko zaleak azalduko gera. Gazte hauek, berriz, zutizale. Etxe barruan bezala kanpoan ere.

Eta gure elkar-hizketa hauetan, aldi askotan, Mitxelena zaren izena ta izakera ere etorri ohi du gure ezpain eta esanen artera. Orain hogeitau bost urte Arantzazun gazte ginanonek belaunaldikoa bai zen Salvatore Mitxelena. Gu ere —orduko posibilitadeak, bai bizitzeko, bai lanerako, bai ikasteko, bai pentsakeran sakontzeko... oso eskaxak izan arren ba ginan bakoitza norbait eta ba ginan zerbait.

Hara 1943-gn. urtean guretako batek Mitxelenari eskutitzez idazten zion zerbait:

“Oraingo gau beltz onen ondorengo egunsentiak eguzki berri baten argi alaiz gure mendiak zear zabalduko duanean... nola argituko ote ditugu euskaltasunaren alderdiak?”

Or gaituk gu ere laister gure jaioterriaren ondamendia malko artetik eta urre-urretik ikusten. Zenbat lan egin bear!

Idatzi. Itz-egin. Aldameneko eguzkia ta gizon guziak gure xede onetara ekarri. Euskal-gogoetako gorrotoa atzindu. Datorren materialismo ziprixtin guztiak Euskal Herritik garbitu. Gure sinismenari eutsi. Gure umedia berriz euskaleratu. Arantzazu au jaso!”

Baina gaurko hizketaldi hau atera didatenak JAKINdar batzuk ditugu, batez ere: Joan Mari, Xebero, Kaxinto, ta. Zenbakiz-zenbaki, JAKIN aldizkariak gazte hoi en arnas bizigarria zabaltzen du Euskal Herriko bihotz askotara. Nik ba dakit zenbat nekez ta buruauste gogorrez jaio ohi dan JAKINen zenbaki edo ale bakoitza gazte hoi en eskuetatik. Eta ez dute kriatura kaxkarra mundura ekartzen. Gaur gure inguruko gaztediak —gaztedi pentsazaleak, alegia —azpikoz gora jartzen dituan problema askok JAKIN hortan arkituko dute erantzuna. Eztabaidan sartu leiken erantzuna beharbada, baina erantzuna behintzat eta egiaren bila ibiltzeko prest dauden gazte batzuen erantzuna.

Guk —orain 25 urte, gazte ginanean— zerbaiteko gogo ta espiritu-zaletasunik ba-ote genduan?

Eta berealaxe hasi da gure elkar-hizketa pilpilka bero-beroa izaten. Izan ere hauxe da nere bihotzari saltoka eragiten dion arazoa.

Mitxelena emen balego, berak erantzungo lizueke ederki. Baina bere taldeko ginanok bizi gaituk eta nik hitz-egingo di-zuet orain.

Gu, ordukoak, Espanin Errege bat zan garaian jaiotakoak gaituk. Mutikotan, Primo de Riveraren diktadurako urtetan eskolatuak. Euskera hitzegiteagatik, ni neroni ere eskolan —bazkal-tzera erten gabe— itxita behin baino gehiagotan egona nauk. Gero errepublika-urteetako zalapartak ikusi genetxekin. Nahiz eta, txikitatik Arantzazuko ikastetxera etorriak izan, kalean izan ohi ziran

zalapartakin konturatzen ginukan. Eta nolabait —nik ezekiat nola—, gaztetxo ginala behintzat, gure bihotza abertzaletasun erromantiko batera osorik ukan itzuli. Gure arteko gehienen familiko aita “integrista” porrokatuak ziran bitartean!, Euskera berexiki maitatzen ere ia hamairu-hamalau urte ezkerro hasita gexteunden. Sasoi hartako mutikoak izaki, ta guk orduan Aitzol zanaren ondoan biltzen ziran euskal-idazle ta olerkari gehienak gutxi edo asko ezagunak genetxezkin. Euskal Herriaren abertzaletasunari zeragioten gizon politikoen berri ta arrastoaren ezagupena ere ba ginukan nunbaitetik. Batzutan karlisten bileraren baten berri ba ginun; noizbait, komunista gorri-gorrien orru gogorrak entzun behar; hau hemenka, berriz abertzale jendearen zabaltze ta aberri egunetako jaialdi, euskal-abesti, dantzari-talde ta mitinak nunahi. Eta guk, gure gaztetxoaro hartan, guk ere aukera egin behar.

Eta hara nun datorren, gure begirada garbiaren aurrean lebertzera, gerra izugarri hura.

Mutilak! gero agertuko den Mitxelena hori ta horren ondokorik behar bezela ezagutzerik etzegok, guri betirako seinale bat utzi ziguten gertaera haundi haiek gogoratzen ez badira.

Etorri zaiguk-ba gerra hori ta gure gaztetasunaren hasiera-hasiera-hartan... egun batetik bestera Euskal Herri osoa zoroetxe bildurgarri bat bezalaxe etzaiguk ba jarri? Orduan izandako odol-keta zirrara, sustoa ta txorabiatze hura ikaragarria zala, esan nahi dizuet, alegia.

Orduko gaztetxoak, buruan egur batekin norbaitek jo baginun bezala, hor gelditu gaituk tonto-antzean. Apokalipsis ilunkorra gure aurrean jarri zana. Gure aurreko mundu guztia bi erdi egin ukan. Bat zuria ta bestea beltza (=gorria). Eta guk —orduantxe ba konbentuan ere sartu gizajoki ta franziskotarren abituz prailekumetu— gure burua beltzen (= gorrien) artean ikusi egiten; zurien artekoa izan behar ordea, anatematismo gogorren artetik

libratu nahi bagendun. Nunahiko eliz, pulpitu, radio ta baztar guztietatik zuriak zerurako zirala hoska ari itukan; eta beltzak, berriz,... Horrela 1936 hartan.

Baina gu (Mitxelena ta beste batzuk) ezin zuri haietako izan. Hara hor guk urte haietan genekarren buruaustea.

Gerra aurean sortu ukan, Mitxelena ta bere ingurukoen gogoetan, zerbait bihotz ukigarri. Zerbait hori zer zan nola esango? Ama Euskal Herriarenganako maitasun erromantiku bat, baserri zaharreko sutondoan sentitzen zan bihotzeko berotasun bat, gure seaska-inguruan pixkanaka, begi zabalik eta egunik-egun arkituz arkituz joan ginan gure arrazaren seinale ta balore guztientzako estimatasun goxo bat. Horregaitik, Mitxelena hamabost urte bete orduko, hasia ukan bere euskerazko idazlanean ta baita ere, bere ondoan, haren lagun ondoan.

Eta gerraren hasiera-orduko txorabioa ta zalaparta hura (nola gure etxeak su artzean jendea itxumustaka ta burua nora gaberik?... Halaxe gure jendea ta gu ere orduan) pasa zanean, gu beltzat ez ginala konprenditu ginukanean eta gu zurien taldean ere —sermoi ta anatema guztiak arren— goxoki ezin gindezkela bizi ikusi eta gero, maitasun erromantiku hura, bihotzetako berotasun hura, estimatasun hura, azi ta haunditu egin ukan gure talde hartan. “Aberriak min dit” esaten, orduan hasia ginukan Mitxelena ta izen horrekin bataiatutako poesi-xorta egiten ere bai.

Gehienok gerran sartuta ibili beharra izan ginukan. Zurien aldean egokitu ta hoiien serbitzuan sartueraziak. Nola edo hala, batzuk fusilarekin gudatzen, besteok han hemengo lan bigunagoetan, hor pasa genetxezkin gerrako urteak xelege asko. Ez praile, ez soldadu, ez ikasi, ez jator jolastu, ez bide argirik arkitzen...

Mitxelena ere nahiko erromes ibili ukan orduan, bide asko probatu eta barruko egon-ezina ezin baketuz. Izugarritzko jakin gosea zikan eta ahal zituan mundu eta bizibide guztiak miatu zizkin, berriz konbenturatu baino lehen. Zurien eta beltzen trazak

ondo begiratu harek, haruntz eta honuntz soldadu jantzita ibili zanean. Bitartean, behin piztutako su hura, haren bihotzean ez, ordea, itzaltzen.

Gerrako istilu hura bukatutakoan, han gaituk denok Filosofi-ikasketak egiten. Gerrako ibilaldietatik etxeratutako mutilak, gehienak; zaharrak, biguntasun gutxikoak, eztabaidarako gogotsuak. Mundua zurien eskutan betirako jarri zala kredo bezalaxe sinisten zutenak ere ba itukan gure artean. Eta lagunarteko hartu-eman hango ikasleen artean ez zirala beti karidade-bidetik ongi joan, aitortu beharra zegok. Gure Herri osoa, giltzapean zanpaturik zegoen bitartean, guk inoiz baino Herri horren zaleago ta semeago ikusten ginukan gure burua. Gure lagunartera zetorren guztiak euskal-arnasa beharrezkoa zikan bere bihotzean ez-ezik, bere hitzetan ere bai.

Teoloji-urtetan, berriz, gure zaletasunak gizendu ta gizondu egin itukan. Hemen, Arantzazun, alegia. Europa ta mundu gehien gerrate ikaragarri hartan zebilen bitartean (1939-1945). Munduak ez etxigun pozik ematen: bildurra, ikara ta errukia ugari, baizik. Horregaitik, guk prailtza-bizitzari zalantzik gabe, heldu genitxion. Ez munduaren negar eta larritasunetatik ihes egiteagatik; mundu horren alde gurutzez egindako apostolutzaz jokatu behar genuela sinistu genuelako baizik. Kristoren pasioa hemen zebilela, uste izan ginukan. Eta Kristo salbatzaile gurutzekoa ere hemen behar zala. Eta gure bitartez jardungo zala.

Horregaitik gure urte haietan ba ukan gure artean mistika bat "mesianista" xamarra. Otoitz luzea, penitentziketa ta bizimodu latza (gosearen eta pobretasun aldetik, nahi ta nahiezkoa) gogo onez ta oraingo gaztediak baino askoz gogotsuago hartu ohi genetxeztin.

Hori dala-ta, Mitxelenaren literatura-lanetan hainbeste aldiz ta ugaritasunean gurutzea kalbario-bidearen aitapenak eta gaiak arkituko dituzute: bai argitaratuta dauden bere liburuetan ta, bai,

batez ere oraindik ixilean gorderik —argiaren orduaren zai— daudenetan.

Kalbarioko mistika hori gure Herriaren egoera ta gertaera triste askorekin josi egin zikan harek, nola edo hala; hortarako Arantzazu zaharraren gorabehera asko kantu-gaitzat eta hari bezala hartzen zitularik.

Gu baino lehenago gure Herriaren maixu izan diranak ez dizkiagu ahaztu behar, herri-zale jator eta zintzoak izan nahi ba-diagu. Oraingo gazte askok hortan huts egiten duzutela, uste diat. Zuek munduan azaldu arte ia inor ideal aundi hoién alde ez dala neketu, errexegi pentsatzen duzute. Pentsatu bakarrik ez. Zuen aurrekoak ongi ezagutzeko pausorik eman ere ez, beren lanak eta izerdiak estimatu ere ez. (Ibon Sarasola batek JAKIN aldizkarian euskal-poesiari buruz egindako idaz-lan merkeegia, salatuko ahal dut?).

Mitxelenak eta bere inguruko taldeak ez dik orrelako okerrik izandu. Haren ondoko batek Mitxelena —maila hontan behintzat— bere aurrekoei begira egin ukan goi-mailako idazle ta olerkari. Eta bere Herria serioski maitatzea ikasi egin zikan harek, ikasi, maixu onenetatik. Ordu luzeak egingo zizkikan Lizardi edo Orixe edo Lauaxetakin, edo Kizkitzaren edo Arana Goiriren liburuekin, edo Unamuno, ta Aita Lizarraldekin, Azkue ta Manuel Lekuona apaizarekin. Aita Lizarralde, aipatu dizuet. Honek erakutsi bai ziguk beste inork ez bezala gure euskal animak hartu duan erlijiojera berexia zer eta nolakoa den. Gure ermita zaharren esan nahiak, gure kaltzabideen hizketak, gure sukalde beroetan, gizaldiz gizaldi, aitonetatik bilobetara, ahoz aho, jetxi zaizkikun kanta zaharrak, gure Andre Mariren irudi beneragarriak, gure Arantzazuren arnasa bizi ta neketsuaren intziriak, gure mendietako gurutze ixilen hotsak... harek esan zitxigun zer ziran. Eta Mitxelenak hortik jaso zikan batez ere bere kantu-gaia, bere esan be-

harra, bere buru ta bihotz barruan lehertzeko zorian zeramakin mensajea.

1940-1944. Arantzazun ixilka-ixilka teoloji-ikasle talde bat ari da lanean. Zaratarik gabe, izenik gabe, inungo txalorik gabe. Dozena-erdi bat besterik ez ginun izango taldearen lanari bultzatzeko. Danen artean, Mitxelena irten duk aurrelari, txapeldun eta gehien. Haren ondoan ukan beste bat, gaur arte orduan hasitako lanari eutsiz, hainbeste ale ta liburu eder gure hizkuntzan eman dizkiguna. Beste batek, Teolojiako ta kristau-bizitzako gaiak euskeratzen saiatuz milaka horrialde idatzita utzi zizkin. Gaur Ameriketara diran Joxe Mari Elustondo ta Karmelo Iturriak ere, beren aldetik, idazlan eder asko prestatu zizkien. Diru pixka bat ere —ez eta ametsetan ere— ez ginukan ikusten, eta kanpoko laguntzailerik ere ez inundik azaltzen. Eta, horregaitik, gure lan asko han gelditu itukan betirako zokoratuta. Baina talde haren eguneroko saiatze hura ez ukan alperrikakoa izan. Gaur bertan ere orduan jasotako gogo ta espiritu hartatik bizi gaituk askotxo; hari eskerrak ahal izan dugun gutzia —gutxi edo asko— Euskal Herriaren alde ematen ibiliak gaituk.

Arantzazu-zaletasun hura ametsa edo gezurrezko idealismoa zela? Kontuz, hori esaten. Arantzazuk ba dik istoria bat, izan dik influentzi mardul bat, eman zio kutsu bat euskaldunen erlijioari. Mitxelenak poema bat Arantzazuri buruz argitaratu zuenean, Arantzazu gai txikiegia dela poema bat bere gain egiteko —esan zikan euskaldun aundi batek. Baina Arantzazuren izanak merezia zuela, uste diat nik, horrelako poema bat. Eta Arantzazuk izan behar lukenak ere bai.

Izan behar lukena! Nik ez bai diat uste, gaurko Arantzazu honek oraindik bere izan behar lukenari ongi erantzuten dionik. Arantzazun etxegintza ta argintza asko zegok. Gure Herriaren erlijiojera zahararentzako ikusgarri ta entzungarri ta eustapen askotxo ere bai. Baina Euskal Herriak orain behar duen gidaritz

espiritual gogor eta sakon hori, ez dik ematen oraindik gaurko Arantzazu honek. Gure apaiz askok, gure liturji-zale askok, gure pentsalari haundienak, gure herritako militante zahar eta gazte askok Arantzazun arkitu behar lietekek aterpe, indar-iturri, argilari ta euskaldunen arteko gogo on guztien korapilo dotore ta eder bat. Gure Herriaren alderdirik jatorrenak gaur dauzkan problema haundienen aurrean Arantzazuk izan behar likek eratzaile ta eragile, bide-erakusle ta gidari. Barkatu nere ametsak edo Mitxelena zanaren ondokoak geranok ametsak ahozabalka esaten asi banaiz. Hamaika aldiz gure elkar-hizketa haietan guk ibilitako ametsak dituk hoiek. Baina ametsak egintza biurtze hori zaila duk nunbait, nunahi bezalaxe Arantzazun ere. Arantzazu gaur Eleiz handi hori duk. Eleiz haundia eta —Jaunari eskerrak— jendez eta jendez betea. Eta Arantzazu konbentu handi bat duk. Baina konbentu hontatik ase behar, askotan, gaur Ameriketara edo beste nunahiko baztarretan dagon apaiz-premia. Bertan gaudenok, berriz, ezin lan-behar guztietara iritxi. Eta, gainera gure Herria maite dugulako, egin nahi genduken guztia egiteko ere... katibuegi gexeudek Arantzazutarrak.

Mitxelenak berak ere bere burua lotuegi ikusten zikan hemen. Esan nahi zuan guztia ezin esan hemen, argitaratu nahi zuan guztia ezin zabaldu hemen. Oraindik bere idazlanik ederrenetakoak inungo itzalpean daudela esan beharrik ba ahal dago?

1954-gn. urtea zala uste diat, Eibarren biok Mixio bat eman ginukan San Andres parrokiara. Gure hitzak ez itukan nunbait baten batentzat atseginak izan. Eta hor zijoak Donostiako agintariengana salatari bat. Eta gero geroakoak, Mitxelena aspertu ukan horrelako loturak bere hitzarentzat hanhemenka ugaritsu ikustean. Eta Ameriketara joatea erabaki dik. Nik hamaika aldiz erabaki horren kontra hitz-egin arren, harek berea egin zin. Hortan uko egin nitxeukan beti. Mitxelenak etzikan inoiz ere erabat alde egin behar hemendik.

Ez diat uste Mitxelena inoiz gizon zoriontsua izan zanik. Zorion bila asko ibilia bai. Ba zekin ilusio asko bururatzen ere. Halaxe aspertu ukan hemengo Euskal Herri txikiarekin eta irten ukan hemendik, itxasoz-aruntza bere izakera egon-ezin hura lasaia-go ta obetoago arkituko zalakoan. Personaren kanpotik etzala zoriona bilatu behar —esaten netxiokan nik—, nor berak bere barruan sortuerazi behar zuala baizik. Ez alperrik! Harek berea egin zikan. Indepentzi-zalea ukan oso. Estrutura itxi-itxien etsai. Gaur bizi izan balitz, “progresista” porrokatu hoietako bat izango zala, sinistu. Berrogei urte beranduago jaio izan balitz, etzikan harek sufritu zuan guztia sufritu izango.

Bihotza sentikorra zuala, esan beharrik etzegok. Bere olerki lanak, aitor. Hala beharko gainera, harek emandako poesia ta kanta-sailak gure euskal-baratzan inoiz jaioko baziran.

Amatxo maitagarri bat txikitan galdu izana, gure gaztetzaro hartan izan genduan eziera gogor eta kariño gabekoaren mailukadak, geroxeago aberri zaurituaren arpegi tristeak ematen zion min hura, bizitzako urteak zehar ezagutu behar izan zituan beste atsekabe ta ezbeharrak, azkeneko urteetan bere osasuna gaitzaren-gaitzez erortzen ikusi behar hura... hoiek eta beste Jetsemani-aldi asko izan itukan bihotz gazte hura frankotan samintasunez ta negarrez ipini zutenak. Baina oinaze gabe jaioko ahal-uke ezer haundirik lur honetan?

Lasaitasungabeko eskola larriegia eman zitxiguten guri, bai animako gauzetarako, bai munduaren gorabeherak konprenitzeko, bai gure pentsakera behar bezela jazteko, bai gure giza-maitasuna behar bezala tolesgabetzeko... Estutasun lotuegi horren aurka hamaika aldiz mintza ohi ukan hura. Bitartean, bere lagun batzuk, hala beharrez bezala, etsita bizi ginala uste diat. Bera ez, ordea. Oraingo gaztediaren “protesta” asko ongi konprenituko zizkizuen harek.

Ikusmiña ba zikan Mitxelenak ondobageko neurrian. Inungo

lurralde berriak ezagutzeko prest egongo ukan beti. 1954-gn. urtean Kuban mixio-aldi batzuk egitera joan ginukan biok alkarrekin aeroplanoan. Beti leio-ondoko exertokia aukera behar harek, handikantxe ahal zuan guztia begiratzeko. Eta halaxe beti, trenez edo autoz ibili behar zuenean ere. Gazterik hil duk, baina aurretik ikusi dik munduaren alderdia franko. Persona bakoitzaren nolakotasuna ere begiztatuko zikan, hitzegin bitartean hire arpegitik barrura bere begirada zorrotz eta mehe hura luzaki sartuko zikanean.

Halakoxea ukan bere jakin-miña ere. Hizketa-laguna asperteraino, galderaka jarduko ukan. Ez ukan inungo Unibersidadean ibili. Orduko gazteentzat hori amets —egiteko “tabú” bat izaki! Eta Mitxelenak autodidakta izan behar. Eta halaxe, ekin zitxiokan irakurtzeari. Asko irakurri ere. Danetik. Hontan etzikan stopik egin, beste batzuk, gure maixuak, sartu zizkiguten eskrupuloen aurrean egin ohi gendun bezala. Unamuno, eta Baroja eta Dotstoyeskik eta hoiek denak pasa itukan Mitxelenaren begien aurrean.

Eta irakurtzen zuana jaso ere aleka-aleka jaso egiten zikan. Ia metro-erdiko kuadernu haundi bat ibiltzen zikan beti bere ikas-mahi gainean eta hura betetzen-betetzen joan ukan urte askotako irakuraldian.

Danetik jakin-nahi gainera: Teolojistik hasi ta sport, politika, zinema ta literaturaren baztar guztietaraino.

Eta, bitartean, arrazoi-bilatzailea, edozer gaien aurrean. Sentikorra baldin bazan, zerebrala ere bai. Ortodoxi gogorrean bizi ginan sasoi haietarako (1940-1950) nahiko “razionalista”. Baita erlijio gaietan ere, batez ere Eleizaren zenbait instituzio ta estruktura zintzotasunez eskaxegi arkitzen zituanean. Bere zenbait idazti, horren testigu.

Hiztun pizkorra ere bai Mitxelena zala. Jatordu goxo bat egiterakoan (bai zitzaizkiola atsegin halako egonaldiak! Jan-edarian ez ukan eske haundikoa, baina bai gai hortan ere aho-sapai

onekoa), itxas ertzean edota mendizko ibileratan, Mitxelenaren poza! aldamenean hizketarako lagun on bat suertatzen baldin bazitzaion! Orduntxe bai zuala bere, bihotz sutsu ta bere burua aberatsa atseginez hustutzen!

Eta lagun on batzuen premia beste inork ez bezala sentituko zikan Mitxelenak. Haren kolkoa hustu-beharra! Entzun egin behar hari gertatzen zitzazion guztia! Bere sermoiak ere etzizkian bota nahi, aurretik lagun baten aurrean esan baino lehen. Eta “zer derizkiot”?, galdetuko zikan beti. Ez dik ez eta olerkitxo bat ere izango halaxe —lagunekin bakoitzaren gaia, kera ta soinua tratatu gabe— sortu etzuanik. Kemena, bultzakada ta txalo puxka bat askotan jaso behar izaten zizkin lagunetatik. Orduko eskutitz batean gure arteko lagun batek hauxe esaten zitxikan: “Bata besteagandik banakatzen zeratela ikustean, bildur naiz asmo eder guztiak ezertan geldituko ez ote diran; arren, ez dedila ala izan! Mitxelenak ematen dit bildur, *ark norbait bear izaten du aldamenean*” (1945-III-18).

Laguntasun-egarri horrekin gizon eta emakume jator asko oso adiskide izan zizkin. Hoiien artean txit bihotzekoa gure Patxi Eskudero bat. Hamaika hizketaldi elkarrekin egindakoak dituk. Eskuderoren ZIGOR opera haundiaren lehenengo sorrera hartan ez ote zan ibili Mitxelenaren bihotzkada bat edo beste? Nik hala uste! ZIGOR —musikaz eta hitzez haundia benetan— entzutera goazenean, nik Mitxelena ez ahaztuko.

Pulpitoan ere Mitxelena apartekoa ukan. Orain hogeiren bat urte elkarren ondoan sermoi askotxo eginak gaituk. Urte haietan Franziskotar asko ibili ginukan Euskal Herri osoan mixiolari sonatu xamarrek. Gehienok antziñako sermoilarien gaiak, esakerak eta estiloak genetxeztin (gerora guk ere aldaketa haundia egin beharra izan dikagu). Baina ordurako Mitxelenak besteona baino modernuagoa zan sermoikera bat bazikan: gurea baino hizkera libreagoa bere gaietan gizarteko problematika gorabeherak en-

tzungo genetxeztin, jendearen sikolojiari asko begiratzen ziona ukan eta, nahiz eta entzuleak ixilik egin, elkar-hizketan bazez bezala hitzegiten ohi zikan. Erlijio gaietan “tolerantzi” gutxi ukan urte haietan. Baina Mitxelena —kontzilio garaiko arnasa orduz aurretik hartu balu bezala— hortan ere bihotz-zabal eta liberte-zale agertu ohi zikan bere burua. Horrelaxe zeru-aldera jaso zizkin harek zenbait “ardi galdu” Euskal Herri hontan ere.

Gure jardun-aldia bukatzerakoan hauxe esan nahi dizuet. Orain gazteok ba dituzutela guk —orain 25 urte— ez genitun alderdi on asko. Bakoitza bere jaio-aldiaren semea bai duk. Zuen nortasuna jasotzeko sasoi hartan baino posibilitade txit ugariagoak ba dituzutela zuen eskuetan.

Baina, bestaldetik, bildurrak ere sortzen zaizkidak zuen aurrean: lan sakon eta luzerik egiteko izango ahal duzute iraupenik? Ez ote zerate izango errexkerira gehiegi makurtuak?

Orain 30 urte, gaztedia gerrara joan zala ez ahaztu. Idea baliotsu batzuk eragile, bizia ere emateko prest. Elkar-hiltzeraraino heldu itukan milaka gazte, zoritxarrez. Hobe beren pentsakera ta jokabideak pakezko elkar-hizketa librean zuzentzen jakin balute!

Dena dela, beren bizia kantuz eskeintzen zekitenak itukan. Idealismo izugarria ta harrigarria haiena! Gaurko gaztedia maila hortatik urrutitxo ez ote dabil?

Mitxelena, idealismo gabe azi ta bizi dan jendeak ez ote duan konprenituko bildur nauk. Baina idealista, ameslari hoiek ba dituk orain-aldian ere. Itxura dan baino gehiago gainera.

Biziak eta hilak poztu gaitezen!

Agirretxe
1967

OROIPEN BATZUEK

Manuel Lekuonak

Aita Salvatore Mitxelenaren omen-libururako oroipen batzuek eskatzen dizkidate. Oroipen laburtxo batzuek.

Egia esan, nik oroipen gutxi det Aita Salvatorerenik; beti berarekin bizi izan ziranak geiago izango dute; bañan ori bai, nekez aazten diran oietakoak dira, nik ditudanak: biotzetikan biotzerakoak...

Atzekoz aurrera asiko naiz: azkena etorri zane kotik, Ameriketatik etorri zane kotik.

Etorri-berrian bein egin zidan ikuste, Andoaingo gure etxean... Aldatua arkitu nuan, joan zanetik sobera aldatua. Bere azken-lana irakurri zidan: berak oi zuan bezela, gartsu irakurri, predikuan ari bailitzan, beso-makillai eragiñaz: bañan "Kalbario" ura!, gurutz-bide odol-jario ura! "Abendats" ura!, beste ari batekoa atera bait zitzaion leengo "Arantzazu" ura... Oso aldatua iritzi nion gure Salvatore gizagajoari...

* * *

Bere joaierakoa —Ameriketara zijoanekoa— da nere beste oroipena. Arratsalde eder bat zan. Donostiako "Parque María Cristinan" egin genduan bi-biok ibil-aldi goxo. Gure kontuak aotan, eta gure kontuak biotzean...

Azkeneko itzak:

—Don Manuel: an ere nik lanean jarraituko det.

Eta nere erantzuna:

—An; bañan emen, guk, Arantzazu-Poemaren egillea palta...

Eta eztarrian korapillo bat bioiri...

* * *

Leenagoko oroipenak.

Donostiara etorri-berri zalarik —bere Poema egiten ari zalarik— nola etortzen zitzaidan Lasartera, egiten ari zuan lana, egin-ala, apurka-apurka, neri erakustera. Uste bait det A. Gaztelurrutia batekin etortzen zitzaidala, eta bere lana irakurtzera ez baño, kantatzera etortzen zirala biok: kantatzera, bai, eta kantatu ere nola, gero? itzulikatu, transfiguratuta bezela jarduten bait zuten biok: orain kantu bat, gero bestea: zein baño zein ederrago, goxoago, ixuriago... Ala bait zan, izan ere: ezpañetatik jario egiten bait zioten bioiri; ezpañetatik jario baño, eztarritik dar-dar-dar jalki obeto... Eta ni erdi-negarrez, ondoraño ukitua, bi frantziskotar jator aien arikeraren xamurrez, Asisko Olerkariari berari "Eguzkiaren Kanta" entzuten bainengoan... Lasarteko Monja Brijidaen kapillau-etxeko baratz-aldera dagon bazkaldegi zaba-lean, antxe...

* * *

Eta leentxuagorik, zer?

Aren eskutitz xamur eta urduriak Gazteizko Seminaria: bat galde, ta bestea galde; neri galde, nik berak baño geiago jakin, alegia... Gizagajoa! ezekian ondo, zein gutxi irakurria nintzan ni, bera iadanik ain jakintsu zan gai mee aietan.

Poema zerabilkian asmotan, ordukotz; poema biotzean egosten ari... eta neri orientazio eske. Gizagajoa! Nik artean arpegiz

ez ezagutzen bera; ezta berak ere ni; eta gizagajoak neri karta, ta neri galde. Ez dakit zer erantzuten nion.

Nereganako galde-bear orrek, ordea, ba zuan bere oin-arri. Leenagoko zerbait.

* * *

Eta leenagoko ori, zer?

Leengo, nik, Bergarako Eusko-Ikaskuntzaren Batzarretan, itzaldi bat irakurri nuala, "Euskal-Poesi errikoari buruz".

1930-gn. urtea zan. Eta andik bost bat urtera beste liburutxo bat argitaldu nuala "Literatura oral euskérica" zeritzana...

Patmosko Apokalipsis bezela izan bide-zan gure Salbatore-
rentzat nere liburu ura. Berak ala aitortzen zuan. Eta urte bere-
tsuan idatzi bait nuan baita, aur-poematxo bezela, nere "Iesu
Aurraren Bizitza" ere. Aur-poema, erri-poema, poema xalo ta
errex...

Artean gure Anai Mitxelena (oraindik Anai Ikasle besterik
ez bait zan) A. Lizarralde zanaren idazti iratzargarrietan irazekirik,
poema bat erdi bearrean zebillen.

Buru-biotzetan, ezkutu-antzean, zebilkion, ibilli, bere asmo
ori; bañan ez ain ezkutuan ere; A. Sudupe batek, eta A. Gazte-
lurrutia batek, ba zuten beren ikasle-lagun Mitxelenaren ametsen
berri. Bañan, ez berak, ez bere lagunak, ezin biderik ebaki. Eta
bitarte ortan or azaltzen dala, Zarauzko Itxaropenan, nere liburu
"Literatura oral euskérica", eta arekin batetsuan neronek bidali
berari Arantzazurara nere "Iesu Aurraren Bizitza" kopia batean.

—Auxe dek nere bidea —esan zuan gure Salbatorek—;
emendikan jo bear diagu.

Bi gauza ikasi zituan A. Salbatorek nere bi lan aietatik:
erriaren estiloan egin bear zuala bere lana, erriaren estilo xumea...
(onomatopeiak eta guzti; kanta zaarraren erara; bertsolarien ari
bizkorrean)... eta kantuz, kantagarri.

Bera lirikoa zan berez, bere temperamentuz; poemak, berriz, epika-apur ere bear... Bañan erriak ere ba du bere epika; "Alostorrea" ta "Arranoak bortietan" naiko epiko dira. Dana-dala, ordea, Arantzazuren poemari epika-turuta baño areago bait zegokion lirika goxo; gure A. Mitxelenaren erabateko reazioa auxe izan zan:

—Erri-kantaren bidetik jo bear diat garbi-garbi; orixe dek nere bidea.

Eta nik, pozik asko, txalo jo berari.

Ori izan zan, A. Salbatorek nere liburutik ikasi zuana. Eta ortixik zetorkion arri, bere lana, egin ala, egin ala, neri erakutsi bearra.

Argi asko ikusten danez, nik berari ez nion besterik egin: bidea erakutsi. Bañan ori ere bai: berak bide artan, nik erakutsi baño askoz geiago ikasi zuala... Askotan oi-dana: Maisuak erakutsi baño geiago ikasleak ikasi.

* * *

Oietxek dira, bada, besteak beste, nik nere biotz-biotzean gorde-gorderik gordetzen ditudan, gure Salbatore Mitxelenaren oroitzapenak.

Manuel Lekuona

1967

OROITZEN

Lucien Schwob-ek

Ezagutu, ongi ezagutzen nuen Aita Salvatore Mitxelena. Baina, hala ere, nik uste, ezezagun zitzaidan. Ezezagun... Ez nuen bere aberastasun, bere dohain guziak banan-banan aztertzeko lain ezagutu. Ezingo nuke bere barnean zuen "zera" berezi ta gorde hura behar bezala islatu. Jardun hontan ez dut bere bizitzaren alderdi edo detaile bat baino aitatu. Hain zuzen, gizon harengan harrigarrien zitzaidan eta, bidebatez, oraindik osoki ulertu ez dudan detailea.

Nere jaioterri La Chaux-de-Fonds urira heldu ziran Espainiar langileen Apaiz eta Aita zen bera. Kapila txiki batean ospatzen zien igande-goizetako Meza. Kapila arras kaskarra, benetan, Jainkoarekiko eginkizuna betetzeko biltzen ziran espainiar gizon eta emakume guzientzat.

Baina, aurretik, alboan dagoen Locle herrira (langile-uri hau ere) joaten zen espainiarrentzat elizkizunak ospatzera. Hamaikak aldean edo irixten zen Stella Maris eliza txikira, apaiz-jantziz estali, ta zai zeuden kristauak aitortzeko (ta nola egin ere!) juxtu-juxtuan. Halakoxea zen bera: gorputzez handi ez bazen ez zen txiki ere, beltzaran, begiak sakon bezain bizi. Baina sakristi melarretik aldarera agertzen zitzaigunean gertatzen zen harrigarriena: Beste ordu guzietan gorputzez ez handi ez txiki zen hura, (traje beltzez jantzia, lepoko zuria doi-doi agerian zuela) aldarean agertu bezain laister berrogeiren bat zentimetro aziago aurkezten zitzaigun.

Nola ulertu gorputz-azitze hau? Ez dut uste kasuilak sortzen duen irudipena soilik zenik, ez baidut beste apaiz inorengan tainoko aldaketarik nabaritu. Arratsalde batean, nere pintura-lan-

tokian lagunarteko ardoa edaten gaundela, berari aipatu nion arazo hau. Pentsaketan gelditzeke, bizkor asko erantzun zidan: "beste zenbaitek ere esan didate". Eliz-jantziak luzatzen badute ere, nik uste dut aldaketa berezi honek argi bai argi aurkezten digula A. Salbatoren presuna eta anima. Begira: Bere erlijio-eginkizuna betetzeko une hartan agertzen zen hura egunoroko gizon huraxe bera zen, "mundu hontako gizona", bere ondokoen laguntzen, langile bakoitzaren gora-beherak entzuten, haien aolkatzen, beren ordez Espainiar Enbajada edo beste aministrazioetara joaten ibiltzen zen Aita mixiolari huraxe zen, noski. Eta, une-izpi batean, mundu hontako gizon hura beste munduko gizon bihurtzen zen elizkizuna hasterakoan (ta nolako su ta berotasunez, gero!). Horrela, izkutuan, sinismen-gizona haundiagoa gertatzen zen beregan ekintza-gizona baino.

Eguneko Meza zein zen adieraziaz hasiko zitzaigun. Elizkizunaren aldi sakonenean, Sagara-aurrez edo ondoren, abesti bati erasoko zion bere bihotz osoz, denek jarrai zezaioten eta elizatzuan zeuden langile guzien abotsak bat eginik, elkartasuna bizi-berotu zedin. Eta nolako ixiltasuna sortzen zuen sortu hitzaldirakoan! Gizon haiekiko ardura presatsuak eraginda, bere esku zegoen kolonia haren egoera ta behar guzien berri emanaz hasiko zen. Nolako maitasuna ta zenbaterainoko berotasuna berak "refujiatuen atsekabe" deitzen zituen ezbeharretaz mintzatzen zitzaienean. Gero, eguneko Ebanjelioari lotzen zitzaion. Ba zuen, izan, halako etorri berezi bat, Cuban luzaroan landu zuen mixiolari tankerako etorri gartsu bat. Ez zuen hitzaldia prestatzen. Etorri sutsua zuen, eta bere jakite zabala mintzatzen hasten zenean, muinez blaituak, bizigarriak eta sakonak ziran haren pentsakizunak, entzuleengan sinismen-arnasa sortarazteko egokitasunez jantziak.

Aita bezain anai zitzaien hari denek zioten begirune, ta gidari bat bailitz denak belarri zitzaizkion. Asaldaturik jartzen zuten Hitzak eta bere hitzek. Aurpegian irakur zekioken esaten ari zena.

Bere aurpegia itzal-argi-jolas bat bihurtzen zitzaion. Poz-odolak gorritzen zuen bere egitura guzia entzuleen alabatzen ari zenean, baina asarre ta sumin-odolak zerbait madarikatzen zuenean. Egun hartan beldurak ozkatu ninduen, bere arteriak nahiko eroriak zebiltzala jakin nuenean alegia. Zergatik jartzen zera —niotsan nik— hain asaldatua? Gaitz dagiozu zeure buruari eta ume bailira minizatzen zatzaie entzuleai. “Umeak dira-ta” erantzuten zidan, haien pekatuak sufritu ezinik.

Bere osasuna, nahizta bestela iduri, eroria zen erabat. Esan zien esan medikuek: zigarroari uzten ez badiozu, anka bat ebagi-beharraren arrixkua duzu. Berebat baztertzen zituen zigarroak eta irriparrean ageri zuen zigarroak uztea zenbat kostatzen zitzaion. Handik laister, bere bihotz-asaldari ezin eutsiaz, zera esaten zien bere entzuleei Meza amaitzean: alegia, beste apaiz bat etorriko zitzaie la bereak egitera alik-eta bera arteria batetik operatzen zuteino. Hitz hauek larritasun bat utzi zuten denen barnean zintzilik, beldur larri bat. Heriotza bera ere ez baizen egoera hartan pentsa-ezineko gauza.

Operatu zuten eta bere jaioterrian igaro zuen atsedenaldiru luzea. Eskutitz bat idatzi zidan bertatik: “Zarauz nere jaioterritik adiskidetasun eta oroipen bizienak nere lagun jator Schwob-i. Anaikiro Aita Salbatorek, 16-10-65”. Imanol Unzurrunzaga gaztea izan zitzaigun A. Salbatoren ordezkotz, hura sendatzen zen arte.

Dagoneko nahiko argi dager, agian, gizon harrigarri honi zergatik urreratu nintzaion. Hain ongi konprenitu ta ongi onartu ninduen hark espainiar langile ta familientzat zuen elizatzotz hartan! Bere fede bizi hura behar nuen eta berak gatzelaniaz egiten zituen hitzaldi haiek entzun beharra nuen, halako etorri ta berotasun jatorrez jazten zituen hitzaldi haien beharra. Poz ematen zidan, gainera, nere abotsa eliza hartako espainiar langileenarekin batzeak. Areago poza ezen XVII-gn. gizaldiko andaluziar Juan de Valdes margolariari buruz liburu bat idazten ari bait nintzen. As-

kotan hitzegiten genuen, trenean edo ginjoazela, liburu honetzaz Aita Salvatore ta biok. Greccoren argazkiak zitzaizkion berari gogokenak. Harrigarri gertatzen zitzaion Kalifen garaiko Cordoba ere bere haunditasun eta kultur paregabearekin...

Gure elkarrizketa sutsu haietan Aita Salvatoreren kulturak txunditzen ninduen gehienbat, bere iritzien zehaztasunak eta edo-zertarako zuen begi bizkor harek, korapiloak askatzeko zuen errez-tasunak. Bere zorrotzasun-dohainak harriturik nindeukaten. Ez nekian artean zenbaiterainoko apaltasuna zuen: bera hil-ta urrengo egunean jakin nuen, La Chaux-de-Fonds uriko elizako bere lagun Pierre Dortail apaizak esanik, Aita Salvatorek zenbait idazti utzi zituela eta Euskaltzaindikoa zela.

Oraindik ere tristura sakonez datorkit burura azkenekoz elkar ikusi genuen egun hura. Jakin ongi banekian ere, bere osasunaz galdatu nion. Larritasun gorde bat irakurtzen nion bere aurpegian. Oraindik gaztea zera, —niotsan nik— (47 edo urte zituen), nere aldean gazte. Biziki harritu ninduen bere erantzunak: “bai, noski, baina nik baino arteria hobeak dituzu zuk”.

Handik hiru egunera, azkeneko igandean, buruko min gorrak arrapatu zuen, ospitalera eraman ta buru-ezurraren zula-keta egin zioten. Urrengo igandean hil-zorian ikusi nuen izaki erori ta galdu hura biziki urruti zegoen kasuiladun apaiz sendo ta sutsu harengandik.

Hain maite genuenaren aldeko hilen Meza hogei apaizek eman zuten.

Halaxe urtu ziran Aita Salvatore Mitxelenaren urteak: bere izate sendoaren eta bere jardun ugariaren fruituak nunahi zabalduaz. Horrelaxe.

Lucien Schwob
1967

(euskeraz: *Iñaki Beristainek*)

SALBATORE
MITXELENA

J. SAN MARTIN - J. AZURMENDI - TXILLARDEGI - L. VILLASANTE -
J. M. TORREALDAY - N. ETXANIZ - E. AGIRRETXE - M. LEKUONA -
L. SCHWOB

LIBURUAK

EUPOPA.—Jakinlariek.

10 saiakera interesgarri Europear Alkartasunaren gain.

FILOSOFIAREN KONDAIRA I.—Jakinlariek

Filosofiaren Kondaira osoa euskeraz eman nah! luken bildumaren lehen zenbakia.

JAINKOA.—Kristeu Fedearen Sustraiak.—L. Villasante.

Sinismenaren zergaitiak eta oinarri beharrekoak. Teodizearen argitan.

LAU EBANJELIOAK.—Mendizabal-Goitia.

Goxoki ta herriko! emanak. Goitia eskritulariaren ohar ballotsuekin.

EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.

Euskal Verboari buruz gaurdaño egin den azterketarik sakonena ta garbiena.

LAS 7 LECCIONES DE EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.

«Euskal-Aditza»-ren osagarri eta laburpen argigarria.

ELORRI.—Bitoriano Gandiaga.

Olerkiak. 1964-ko «Jose Antonio Agirre Sarla», azken lau urteetako euskal liburu onena bezela saritua, alegia.

EUSKERA.—Iñazio Omaetxebarria.

Gure hizkuntzaren azterketa bat, euskera Irakasteko eglña.

10 %-ko deskuentoarekin hartuko dituzte liburuok JAKIN'en arpidedunak.

ESKATU: Dirección de JAKIN - Arantzazu - Oñate (Guipúzcoa)